


Enpresa Txiki eta Ertainetan Larrialdi-plana egiteko eta ezartzeko OINARRIZKO ESKULIBURUA



KUDEAKETA-GIDA



Erakunde Autonomiaduna



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea

Enpresa txiki eta ertainetan Larrialdi-plana egiteko eta ezartzeko Oinarrizko Eskuliburua

KUDEAKETA-GIDA



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Egileak:

Antonio Beneitez (Fundación MAPFRE)
Jesús María López de Ipiña
(Fundación LEIA / Fundación Laboral S. Prudencio)
Francisco J. Martín (ONDOAN)
Jesús Ortiz de Urbina (OSALAN)
Angel Salvador (KELAN SL)
Alfonso Tovar (MCC – LAGUNARO. MONDRAGÓN SPM)

Argitaraldia: 1.a, 2001eko urria

© OSALAN
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

Argazkiak: Mikel Arrazola
"Argazki" Artxiboa. Eusko Jaurlaritza

Fotokonposaketa: Composiciones RALI, S. A.
Particular de Costa, 8-10, 7.ª - 48010 BILBAO

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S. A.
Bekolarra, 4 - 01010 VITORIA-GASTEIZ

ISBN: 84-95859-03-3

Lege gordailua: VI-448/01

AURKEZPENA

Atsegin handiz aurkezten dizuet enpresa txiki eta ertainetan larrialdi-plana egin eta ezartzeko oinarrizko eskuliburuua. OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Erakundearen eta Mondragón Corporación Cooperativaren (MCC) eta LEIA Fundazioaren elkarlanaren ondorio da. Eskuliburuaren helburua larrialdi-planak egiten laguntzea da, eta, horren ondorioz enpresen lan-baldintzak hobetzea.

Eskuliburuaren diseinuak berariazko helburua du: larrialdi-egoerarik gertatuz gero, enpresan lan egiten duten langileen, instalazioen eta ingurumenaren segurtasun-maila bermatzea. Zenbait lege eta arauk enpresek larrialdi-plana izan behar dutela xedatzen dute (Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko 31/1995 Legearen 20. artikulua, kasu), eta eskuliburu honek lege- eta arau-eskakizun horietan adierazitakoa behar bezala betetzen laguntzen du.

Eskuliburuan aurkeztutako larrialdi-plana, azken finean, agiri bat da, eta bertan enpresan istripu larri bati (sutea, leherketa, produktu toxikoen isurketa edo ihesa, etab.) aurrea hartzeko edota horrek instalazioetan –eta ahal bada, kanpoaldean– dituen ondorioak murrizteko antolamendua eta bitarteko eta prozedurak biltzen dira.

Hemen aurkeztutako eskuliburuan metodologia erraza erabili da enpresa txiki eta ertainek (ETE) euren larrialdi-planak egiteko zailtasunik izan ez dezaten, bai eta, gerora, plana behar bezala ezarri ahal izan dezaten ere.

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi nizkieke, batetik, San Prudencio Lan Fundazioa, LEIA Fundazioa, Mapfre Fundazioa, Kelan S.L., MCC-Lagunaro, Ondosan S.Coop, eta OSALANeko teknikariei, horiei guztiei esker egin ahal izan baita eskuliburu hau; eta, bestetik, Gasteizko Udaleko, Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzako eta EPSA-Grupo Cegasako langileei ere, emandako laguntza guztiagatik.

Juan Carlos Coto
OSALANeko Zuzendari Nagusia

AURKIBIDE OROKORRA

ESKULIBURUA	9
1. Sarrera	13
2. Helburua eta irismena	17
3. Eskema orokorra	19
4. Eskuliburuen azalpena eta gidaren erabilpena	20
KUDEAKETA-GIDA	25
0. Kudeaketa-gidaren azalpena	27
1. Larrialdi-plana nola egin	29
1.1. Nondik hasi?: Enpresaren eta enpresa-inguruaren deskribapena	29
1.2. Zer-nolako larrialdiak izan ditzaket?: Larrialdi-egoerak	36
1.3. Nolako antolamendua behar dut?: Larrialdietarako antolamendua	39
1.4. Zer egin behar dut larrialdietan?: Jarduera-eskema orokorra	43
2. Larrialdi-plana nola ezarri, eguneratuta izan eta hobetu	49
2.1. Plana ezartzeko estrategiak	49
2.2. Zer egin behar dut larrialdi-plana eguneratuta izateko eta hobetzeko?: Plana eguneratuta izateko eta hobetzeko estrategiak	55

ESKULIBURUA

ESKERRAK EMATEA

Lan taldeak eskerrak eman nahi dizkie proiektu hau bultzatu eta beren laguntza eskaini duten enpresei eta erakundeei (MAPFRE Fundazioa, LEIA-CDT fundazioa, San Prudencio Fundazioa, ONDOAN S. Koop., KELAN SL, MCC – LAGUNARO MONDRAGÓN SPM, eta OSALAN), eta jarraian aipatuko ditugun pertsonari. Pertsona horiek jatorrizko testuari kritikak, iradokizunak eta ekarpenak egin dizkiote.

Pedro Anitua (SEIIS – Gasteizko Udala)

Jose Ignacio Inoriza (Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza)

Jose Antonio Otero (Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza)

Mikel Uribe txeberría (EPSA – Grupo CEGASA)

LEIA Fundazioak eskuliburua egiterakoan bi ikerketa-proiektu hauen bidez hartu du parte: OD99LE10 – SEGURPLAN eta TEI – 0045 – 2000 / DIFUSEG. Proiektu horiek Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak finantzatu ditu.

OSALANek, berriz, estrategia-planeari hartu du parte Kontseilu Nagusiak onartutako P0001 proiektuaren bidez.

1. SARRERA

Enpresa guztiek, besteak beste honako helburuak izaten dituzte: emaitza ezin hobeak lortzea, gizarte-giro egokia sortzea, erabilitako baliabide materialei ahalik eta etekin handienak ateratzea, kalitatea lortzea eta guzti horren ondorioz, enpresa-jardueran posizio egokia eskainiko dugun beharrezko lehiakortasuna eskuratzea.

Beraz, maila handiko enpresa-kudeaketa lortzea da helburua. Horretarako, giza baliabideen ahaleginak eta baliabide materialek aurreikusitako helburuak lortzea eta mantentzea bermatu beharko lukete.

Dena dela, gerta liteke gure proiektuak eta ahaleginak ezerezean geratzea enpresan ezbeharren bat gertatu delako –esate baterako, enpresan sute bat gertatzea– eta gertaera horren aurrean nola jokatu behar dugun ez dakigulako. Inolako zalantzarik gabe esan dezakegu ezbeharrek eragindako kalteak larrialdi hori aurreikusteko eta horri aurre egiteko dugun prestakuntza-gabeziaren araberakoak izango direla.

Zentzu horretan, enpresak prestatuta egon beharko luke horrelako egoera baten aurrean azkar eta modu egokian jokatzeko. Eta horretarako, egokiena larrialdi-plana behar bezala garatuta eta ezarrita edukitzea da.

Badirudi zaila dela larrialdi baten aurrean jarduteko plana norberaren baliabideen bidez diseinatzea. Batetik, enpresa-helburuak lortzeko buru-belarri lanean ari bagara; eta bestetik, larrialdien aurrean nola jokatu behar dugun ez badakigu.

Larrialdi-planak diseinatzeko eta abian jartzeko zailtasunak ezagututa, egokia iruditu zaigu larrialdi-kudeaketarako tresna praktikoa hau enpresen esku jartzea, eta batik bat, enpresa txikien eta ertainen esku. Horrela, arriskuak behar bezala kontrolatzea lortu nahi dugu, eta, nola ez, gai horri dagokionez arauen eskakizunak betetzea.

Eskuliburu hau patxadaz irakur dezazun nahi dugu, horrela, enpresen munduan normaltasunez erabil dadin eta aplikazioan sor daitezkeen edozein zalantza argi dezan.

Hainbat arrazoi daude larrialdi-plana diseinatzeko, benetan gauza dadin interesa izateko, planaren helburua norainokoa izan daitekeen zehazteko, eta abarretarako; baina beharrezkoa da, aurretik, oinarrizko hainbat galdera eta zalantza erantzutea eta argitzea. Eta hori da, hain zuzen ere, jarraian egingo duguna. Beraz:


Zer da larrialdi-plana?

Larrialdi-plana dokumentu bat da. Bertan, enpresan gerta daitezkeen istripu edo ezbehar larriei (sutea, leherketa, produktu toxikoen isurketa edo ihesa...) nola

aurre egin, eta gertatuz gero, egoera horrek instalazioetan eta hortik kanpo ahalik eta kalte gutxien eragin dezan nola jokatu behar den adierazten da, hau da, antolakuntza eta prozedurak aurreikusten ditu.

Beste era batera esanda, larrialdi-plana kudeaketa-tresna bat da, eta bertan, larrialdien aurrean nola jokatu behar den adierazten da (NORK ZER, NOIZ eta NOLA egin behar duen). Horrela, honako galderak erantzun ditu plan horrek: Zer-nolako funtzioak ditu larrialdietako buruak? Nola jokatu behar dut sute baten aurrean? Noiz jarriko da abian larrialdi-plana? Nola hustuko dut lantegiko langileak? Nor arduratuko da istripuan edo ezbeharrean zauritu direnez?...

Egia esan, eskuliburu honen asmoa ez da soil-soilik larrialdi-planaren definizioa ematea eta plan hori ezartzea, baizik eta harantzago doa: autobabeserako eskuliburua ere dei dakiok. Baina hori bai, honako puntuak garatuko dituen eskuliburu gisa hartuz: larrialdien arriskuak ebaluatzeko beharrezkoa den enpresa-kudeaketaren sistematika garatuko duen eskuliburua, prebentzio-neurriak eta neurri-zuzentzaileak ezartzea, plana prestatzea eta horren ezarpena behar bezala kudeatzea, mantentzea eta hobekuntzak sartzea.



AUTOBABESTEKO ESKULIBURUA

Zergatik da beharrezkoa larrialdi-plana enpresatan?

Batetik, gerta litezkeen larrialdietarako segurtasun-maila bat bermatzea ezinbestekoa delako, alegia: enpresan lan egiten duten langileen segurtasuna, eta instalazioena eta ingurugiroaren segurtasuna. Eta bestetik, gai horri dagokionez legeen eta arauen eskakizunei behar bezala erantzuten zaielako.

Nola prestatzen da larrialdi-plana?

Eskuliburuak ezarritako urratsak ordena errespetatuz jarraitu behar dira. Gainera, guztien argigarri, ereduak eta adibideak ere eskaintzen ditu.

Nola jokatu behar da zalantza-kasuetan?

Bi eratara joka dezakezu, alegia:

- a) Zalantza kontzeptuen edo edukien ingurukoa bada, eskuliburuan eskaintzen dugun hitzen glosategiaz balia zintezkete.
- b) Bestalde, zalantza egiturari edo formari buruzkoa bada, zure ereduak guk eskaintzen dizugunarekin alderatuz.

Nork gara dezake larrialdi-plan bat?

Larrialdi-plana egiteko eta ezartzeko pertsona egokia izateko honako baldintzak bete behar dira: enpresako prozesuak eta instalazioak ondo ezagutzea, ekipoen eta instalazioen segurtasunean aditua izatea eta eskuliburu honetako urratsak zehatz-mehatz jarraitzea.

Zer-nolako baliabideak behar ditut?

Larrialdi-plana egiteko eta ezartzeko enpresak helburu horretarako denbora eta baliabideak eskaini behar ditu. Gutxi gorabehera horretarako beharko litzatekeen denbora kopurua honakoa da: Plana egiteko langile bakoitzeko ordubete, eta plana ezartzeko, berriz, langile bakoitzeko hiru ordu.

Adibidez: 135 langileko enpresa batek 135 ordu eskaini beharko litzuzke plana egiteko, eta 405 ordu plana ezartzeko (hor sartuko lirateke heziketarako, zabalpenerako... orduak).

Baliabideei dagokionez, plana egiteko eta ezartzeko beharrezko inbertsioak enpresaren hasierako egoeraren eta inbertsioak egiteko duen gaitasunaren baitan egongo dira. Esate baterako, produktu kimikoen gordailuetan, bestek beste, su-itzalgailuak eta suteetako ur-hartuneak gehitzea komeni dela erabakitzen bada, enpresak egoki irizten dizkion erabakiak hartu eta plangintzak egingo ditu, eta ondorioz, horien arabera inbertsioak egingo ditu.

Zenbatetik behin egin behar dira larrialdi-planak?

Hasierako larrialdi-plana egin zeneko baldintzak bere horretan irauten badute, aski izango da larrialdi-plan bakarra egitearekin.

Dena dela, ez dugu ahaztu behar larrialdi-plana dokumentu bizia dela; beraz, instalazioetan, ekipoetan, pertsonalean... aldaketak egiten badira, edota egindako simulazioek horrela iradokitzen badute, enpresak plana berrikusi beharko du eta horren arabera eguneratu. Enpresak egindako aldaketen garrantziaren arabera, plana zati batean edo bere osotasunean eguneratu beharko da.

Zenbateko luzera izan beharko luke dokumentuak?

Eskuliburu hau egin duen lan-taldearen helburua hau izan da: ETEei lanerako metodologia eroso eta erraza eskaintzea, dokumentu praktikoak garatzeko balioko dietena, enpresen errealitateetara egokitua, laburra, alferrikako informaziorik gabea eta plana ezartzeko erabilerraza izango dena.

Zentzu horretan eta adibide modura, esan daiteke guk proposatutako metodologia jarraituz egindako larrialdi-planak ez lituzkeela 15 orrialde baino gehiago izan behar, ezta kasurik konplexuenean ere.

Eranskinetan planaren "hutsik dagoen eredia" gehitu dugu, bai eta asmatutako enpresa baten adibidea ematen duen eredu bat ere. Azken eredu horretan, aurreko paragrafoan azaldutakoa jasotzen da.

Behin larrialdi-plana egindakoan nola jokatu behar da?

Gogoan izan dokumentu "bizia" dela, eta eguneratuta izaten ahalegindu behar dela. Horretarako, informazio zuzena eskaini, etengabeko komunikazioa mantendu eta aldian behin simulazioak egin beharko dira.

Nire larrialdi-plana eskualdeko suhiltzaile-etxeetara bidali behar al dut?

Suhiltzaile-etxe bakoitzaren antolakuntzaren arabera, suhiltzaileek, hala behar izanez gero, beren lana eraginkortasunez bete ahal izateko informazioa nola jakinarazi behar diezun adieraziko dizute. Hori dela eta, suhiltzaileekin harremanetan jartzea eta elkarren arteko adostasunez jardutea gomendatzen dizugu.

Adibidez, Gasteizko Udaleko Suteak Itzaltzeko eta Sorospenerako Zerbitzuak larrialdiak kudeatzeko informatizatutako zerbitzua du, eta beren sisteman sartzeko larrialdi-planaren planoak bidaltzea baino ez du eskatzen.

Orokorrean, suhiltzaileen zerbitzuak honakoa eskatu ohi du: plano horiek enpresako sarreran edota atezaindegian uztea horretarako soilik erabiliko den armairu batean.

2. HELBURUA ETA IRISMENA

Helburua: eskuliburu honen helburua enpresa txiki eta ertainen esku metodologia erraza jartzea da, hau da, beren larrialdi-planak egin eta eraginkortasunez ezar ditzaten metodologia erraza eskaintzea.


Irismena: eskuliburu hau enpresa txiki eta ertainentzat pentsatuta eta prestatuta dago, eta zehazki, 250 langile baino gutxiago dituzten enpresentzat. Tamaina horretako enpresetan larrialdiak eragin ditzaketen arriskuak ez dira hain ugariak, hau da, ez dute behar arriskuak ebaluatzeko metodologia sofistifikaturik (Ikus 1. irudia).

Kontuan hartu behar da hor azaltzen diren irizpideek nolabaiteko malgutasuna dutela; hau da, enpresa batek 300 langile baditu, eta istripu larriak prebenitzeko indarrean dagoen legeria (ED 1254/1999) aplikatu beharrik ez badu, baliteke eskuliburu hau aplikatu ahal izatea.

Pertsonala zenbatzerakoan, hainbat egoera zehatz kontuan hartu behar dira, esaterako, lantegian *pasadizoko pertsonala* ba ote dagoen. Adibidez, hipermerkatuan, bankuetako sukurtsaletan, jendearentzat irekita bulegoetan.... *pasadizoko pertsonala* bertan lanean ari den langile kopurua baino handiagoa izan ohi da. Izan ere, larrialdi-planak jende hori guztia nola atera eta babestu ere aurreikusi behar du.

Larrialdien artean, ohikoez gain (sutea, leherketa, uholdea...), **lan-istripu edota langile baten bat-bateko gaixotasunetik** eratorritakoak nahiz **ingurumen-larrialdiak** ere sartu behar dira. Horrela, legeek (Laneko Arriskuei Aurre Egiteko Legearen 20. Artikulua) eta arauak (ISO 14001, EMAS – OHSAS 18001, UNE 81900 EX) ezarritako eskakizunei enpresek modu koordinatuan eta jardueraplan bakar batekin erantzutea lortu nahi da.


1. irudia. Eskuliburuaren aplikazioari buruzko erabakien zuhaitza



(*) Seveso II jarraibidea (ED 1254/1999).

3. ESKEMA OROKORRA

3. irudia. Eskuliburuaren eskema orokorra



3. irudiko eskemaren azalpena

- **Eskemaren erabilgarritasuna:** larrialdi-plan bat egiteko eta ezartzeko jarraitu behar diren urratsak modu errazean eta laburrean eskaintzea.
- **Nola interpretatu?** Taulari aldez aurreko baldintzak atalarekin ematen zaio hasiera, eta goitik behera, sortzen diren galderari erantzuten die Bai edo Ez aukerak hautatuz.
- **Azken emaitza:** egindako galderari erantzundakoan, gauzatu beharreko ekintzak aipatzen dira, eta behin ekintza horiek gauzatu ondoren, enpresaren beharretara egokituko den larrialdien kudeaketa lortuko da.

4. ESKULIBURUEN AZALPENA ETA GIDAREN ERABILPENA

Eskuliburua bi dokumentu nagusik osatzen dute: **kudeaketa-gida** eta **gida teknikoa**. Eta horietako bakoitza oinarriko bi kapitulutan egituratuta dago, alegia, larrialdi-plana egitea eta ezartzea, eta plana mantentzea eta eguneratzea.


Eskuliburuak proposatzen duen lan-sistema 4. irudian irudikatzen da, eta honako da:

- **Kudeaketa-gidak (ZER EGIN BEHAR DUT?)** larrialdi-plana egiteko, ezartzeko eta mantentzeko gauzatu beharreko jarduerak aipatzen ditu.
- **Gida teknikoak (NOLA EGIN BEHAR DUT?)** aipatutako jarduera horiek gauzatzeko tresnak eta metodologia jasotzen ditu, bereziki horien ardura duen teknikoak nola jardun behar duen ez badaki. Kudeaketa-gidako atal bakoitzak pareko atala du gida teknikoan, eta gida teknikoan atal horietan zehatz-mehatz eta irudien laguntzaz azaltzen da kasuan kasu zein urrats jarraitu behar diren. Beraz, gida teknikoan aurkituko ditugu kudeaketa-gidan deskribatutako jarduerari dagokienez sortutako zalantza eta galdera guztien argibideak eta erantzunak (erabili horretarako 5. irudiko erabakien zuhaitza).
- Emaitzen zutabearen **(ZER LORTUKO DUT?)** bi gidek eskaintako sistemaz baliatuz lor daitezkeen ondorioak laburbiltzen dira, hau da, beste hitz batzuekin esanda:
 - Nire larrialdi-plana.
 - Larrialdi-plana ezartzea eta egunean mantentzea.

Eskuliburuaren eranskinetan honako idatziak gehitzen dira: hiztegia, legeen erreferentziak, banku batentzat prestatutako larrialdi-planaren eredu bat hutsik,

asmatutako enpresa baten datuekin betetako eredu bat, eta enpresan larrialdiak kudeatuko dituen sistema bat ezartzeko prozedura.

4. irudia. kudeaketa-giden eta gida teknikoen egitura orokorra



4. irudiko eskemaren azalpena:


- **Eskemaren erabilgarritasuna:** eskuliburuaren edukien ulermena erraztea. Eskuliburua bi kapitulu zabalek osatzen dute, 1. eta 2. kapituluek, hain zuzen ere. Bi kapitulu horiek garatzeko, kudeaketa-gidaz eta gida teknikoaz baliatzen da.
- **Nola interpretatu?** Eskuliburua 1. kapituluarekin hasten da. Kapitulu horretan, kudeaketa-gidako edukiak jasotzen dira, esaterako, larrialdi-plan bat egiteko bete behar diren obligazioak ordenan aipatzen dizkigu. Gainera, eredurik ez dugunerako, gida teknikorako sarrera eskaintzen digu. Gida horretan, zein eredu erabili gomendatzen da.

Behin larrialdi-plana egiteko urratsak betetakoan, 2. kapitulura pasatuko gara. Aurreko kasuan gertatzen zen antzera, 2. kapitulan ere, aukera eskaintzen zaigu prestatu berri dugun plana eguneratzeko eta eraginkorra izaten jarraitzeko beharrezko diren tresnez baliatzeko.

Eranskinetan, kontsultak egin ahal izateko tresna bat aurkezten zaigu; alegia, era guztietako informazio gehigarria eskaintzen du, eta informazio gehigarri horri esker, prestatutako plana osatzeko eta behar bezala garatzeko aukera izango dugu.

- **Azken emaitza:** enpresako beharretara egokitutako larrialdi-plana, zuzena, erabil erraza, praktikoa eta metodikoa.

5. irudia. Gidak erabiltzeko erabakien zuhaitza



5. irudiko eskemaren azalpena:

- **Eskemaren erabilgarritasuna:** eskuliburuaren edukia modu errazean azaltzea. Horretarako, bi lan-tresna nagusi erabiliko dira, alegia, kudeaketa-gida eta gida teknikoak. Bi lan-tresnak behar bezala erabiliz gero, honako emaitza lortuko dugu: larrialdi-plana ezartzea eta egunean mantentzea.
- **Nola interpretatu?** oinarri gisa eskuliburua hartu behar da; horrek, lehenengo kudeaketa-gidara igortzen gaitu, eta ondoren, zalantzak baldin baditugu edota eredu propiorik ez badugu, gida teknikora.
- **Azken emaitza:** behar bezala prestatutako eta ezarritako larrialdi-plana. Horretarako, adibide gisa eskaintzen diren ereduak baliatuko gara. Horrela lortuko baitugu eskuliburuan zehar sortzen diren galdera guztiei behar bezala erantzutea.

KUDEAKETA-GIDA

0. KUDEAKETA-GIDAREN AZALPENA

Esku artean duzun kudeaketa-gida hau bereziki enpresa txiki eta ertainek (ETE) eta enpresa oso txikiak erabil dezaten eginda dago, eta enpresan sortu litezkeen larrialdiak kudeatzeko baliabide erabilerraza izatea du helburu, esaterako suteak, leherketak, produktu arriskutsuen isurketak, produktu toxikoen isurpenak airera, langileen bat-bateko gaixotasunak edo istripuak eta abar.

Larrialdi-egoera jakin batean enpresak erantzun eraginkorra izango badu, ezinbestekoa da larrialdi-plana izatea. Eta, bestalde, plana ezartzeko trebakuntza-maila nolakoa izan, erantzunaren eraginkortasuna halakoa izango da.

Gida hau erabiliz gero:

1. Enpresara eta enpresaren beharretara egokitutako *larrialdi-plana* egin ahal izango duzu, aurreikus daitezkeen larrialdi-egoerei aurre egiteko modukoa.
2. *Larrialdi-plana ezartzea eta eguneratuta izatea* lortuko duzu, eta horrela enpresako antolaketa larrialdi-egoerei behar bezala aurre egiteko trebatuta dagoela bermatu.


Larrialdi-planak, hala nahi izanez gero, Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko 31/1995 Legeak eta garapenerako xedapenek adierazitako baldintzak beteko ditu, bai eta ingurumen-kudeaketarako arauen (ISO 14001, EMAS) eta laneko arriskuei aurrea hartzeko arauen (UNE 81900 EX, OHSAS 18001 eta abar) baldintzak ere.

1. irudian duzu laburtuta, eskema moduan, kudeaketa-gidaren egitura zein den, gida honen eta gida teknikoaren arteko loturak zeintzuk diren eta kapitulu bakoitza gauzatu ondoren zein emaitza lortzea espero litekeen.

Lan egiteko modua erraz-erraza da:

- Kudeaketa-gidak (**Zer egin?**) atal bakoitza osatzeko egin beharreko urratsak zeintzuk diren azalduko dizu. Bertan hutsik dauden taulak betetzea bera izango duzu emaitza.
- Kudeaketa-gidan azaldutako zereginen bat nola egin ez badakizu edo ziur ez bazaude, jo ezazu gida teknikora, bertan izango duzu-eta arazoa konpontzeko beharrezko azalpen teknikoak. Dena den, kanpoko aditu edo aholkulari espezializatuengana ere jo dezakezu, kudeaketa-gida irakurri ondoren zeure burua larrialdi-plana egiteko eta ezartzeko gai ikusten ez baduzu edo horretarako astirik ez duzula iruditzen bazaizu.

1. irudia. Kudeaketa-gidaren egitura



1. LARRIALDI-PLANA NOLA EGIN

1. 1. Nondik hasi?: Enpresaren eta enpresa-inguruaren deskribapena

Larrialdi-planaren helburua, esan bezala, enpresan gerta litezkeen larrialdi-egoerei azkar eta modu eraginkorrean aurre egin ahal izatea da, eta hori helburu, neurri-neurrira egin behar da. Horretarako, bistan denez, behar-beharrezkoa da aldez aurretik enpresaren eta enpresa-inguruaren ezaugarriak zeintzuk diren oso sakon ezagutzea. Aldi honetan jasotako informazioa enpresaren hasierako argazkia izango da, eta horren arabera diseinatuko dugu gero larrialdi-egoeretan behar bezala aritzeko beharko dugun egitura.

Kapitulu honek hiru atal ditu:

1.1.1. Enpresaren eta enpresa-inguruaren deskribapena

Atal honetan bilduko dira enpresaren eta enpresa-inguruaren deskribapenari dagozkion alderdi gehienak. Horrek ez du esan nahi, ordea, datuek zehatz eta sakonak izan behar dutenik. Aitzitik, atalak xehetasunez ez jostea eta luzeegi ez aritzea gomendatzen dizugu; hobe da datu nagusiak ematea eta enpresan gerta litezkeen larrialdien ikuspuntutik kritikoak izan daitezkeen alderdiak hartzea ardatz.

- *Identifikazio fisikoa*: Adierazi izena, enpresa-izena eta harremanetarako bideak (telefonoa, faxa, irratia eta posta elektronikoa).
- *Sarbideak*: Identifikatu eta deskribatu enpresara joateko dauden errepide eta bideak (eta beharrezkoa balitz, baita zein egoeratan dauden, trenbiderik baden eta abar ere).
- *Eraikinak eta kokalekuak*: Deskribatu kokalekuaren ezaugarriak eta mugak, eraikinak zein motatakoak diren eta nola dauden banatuta (pabiloiak, bulego-eraikinak, biltegiak eta abar), eraikuntza aldetik zein ezaugarri dituzten (azalera, altuerak, itxiturak, estalkia, isolamendua, sabaileihoak, eraikuntzan erabiltako materialak eta abar) eta edukia (prozesu industrialak, gai sukoiaren biltegia, artxiboak eta abar).
- *Jarduera*: Zehaztu, argi eta garbi, zein jarduera-motatan aritzen den enpresa (altzairu-fabrika, mekanizazio-lantegia, janari-denda, ospitalea eta abar).
- *Prozesu industrialak*: Prozesu industrialak eta horietarako instalazio osagarriak izaten dira enpresetako arrisku-iturri nagusiak. Oso garrantzitsua da, beraz, enpresako produkzio-prozesua etapaz etapa banatu eta prozesu osoaren segida zehaztea. Prozesua korapilatsua baldin bada, oso baliagarria izango zaizu fluxu-diagrama egitea, hura ikusteaz batera lanen segida zein den eta zein material- eta energia-mota erabiltzen diren jakingo baituzu. Adierazi, halaber, proze-

su industrialean zein puntu izan litezkeen kritikoak segurtasunaren aldetik, bai egin beharreko lanagatik edo bai erabili beharreko material, tresneria edo energiagatik.

- **Ekipoak eta instalazioak:** Aurreko atalean deskribatu ez badira, identifikatu atal honetan zeintzuk diren produkzio-instalazio eta -ekipo nagusiak, eta instalazio osagarriak ere aipatu, adibidez: goi- eta behe-tentsioko instalazioak (garrantzitsua da elektrizitatearen banaketarako koadro eta ekipo nagusiak non dauden adieraztea), jasogailuak (igogailuak), presio-aparatuak (aire konprimatuaren sarea, galdarak...), produktu kimikoen biltegiak (gordetako substantziak zein motatakoak diren, zenbaterainoko arriskua duten eta zenbat dauden ere adierazi), erregai likidoen eta gaseosoen biltegiak (propano, butano, fuel-olio eta gasolioa biltzeko tangak) eta baita zein kopuru dagoen gorde-ta ere, beroketarako eta aire giroturako instalazio termikoak, hozteko instalazioak, gas naturalerako edo bestelako gasetarako instalazioak –botilak gordetzekoak barne– eta instalazio erradioaktiboak (kapsuletan sartutako iturriak, X izpiko aparatuak...).
- **Enpresako langileak:** Larrialdi-planen helburu nagusia larrialdietan pertsonak babestea da, eta, beraz, ezinbestekoa da jakitea enpresan zenbat langile aritzen den, bai eta non (kokapena) eta noiz ere (txandak, lan-ordutegia...). Izan kontuan bai enpresako bertako langile finkoak eta baita kontrata bidezkoak eta bisitariak ere. Bestalde, larrialdiren bat izanez gero haren berri ohartarazteko eta enpresatik ateratzeko baldintza berezirik behar duen langilerik balego (minusbaliatuak eta abar), adierazi argi eta garbi.
- **Organigrama:** Azaldu zeintzuk diren enpresako antolamenduaren egitura, sailak eta zerbitzuak. Nahikoa da lantokiaren organigrama zein den adieraztea.
- **Ingurune hurbila:** Funtsezkoa da enpresaren ingurunea deskribatzea, larrialdi-plana egiteko kontuan hartu behar baita enpresatik kanpo ba ote dagoen enpresan bertan kalterik eragin dezakeen faktorerik, bai eta gure enpresak berak kanpoan zein kalte eragin ditzakeen ere. Lehenengo kasuan, honako arrisku hauek izan ditzakegu, adibidez: alboko enpresa batean gertatutako ez-beharren batek gurean eragin ditzakeen kalteak, inguruko basoek su hartzeak sor ditzakeenak edo euri-jasak izan eta ibaiak gainezka eginez gero sortarazitakoak. Bigarren kasuan, berriz, ondorengo arrisku hauek izan behar ditugu kontuan: gure enpresan istripuren bat gertatuz gero horrek ingurumenean eta inguruko herrietan nahiz enpresetan eragin ditzakeen kalteak (domino-efektua barne).

Inguruaren deskribapena egiterakoan, beraz, honako alderdi hauek zehaztu beharko dira: alde batetik, gure enpresan izandako istripuren baten ondorioz kalteak izan ditzaketen enpresak, instalazioak, eraikinak, hurbileko herriak eta ingurumena (basoak, ibaiak eta abar); eta bestetik, enpresatik kanpo larrialdiren bat gertatuz gero gure lantokian bertan kalteak eragin ditzaketen kanpofaktoreak.

- *Bete beharreko araudi-eskakizunak*: Istripu larrien araudia (1254/1999 Errege Dekretua) bete behar duten enpresek ezin dute eskuliburu hau baliatu larrialdi-plana egiteko, izaera berezikoak dira eta. Baina araudi horrez gain, badira plana egiterakoan kontuan izan beharreko bestelako baldintzak ere, industria-segurtasunerako araudiak ezarri eta nahitaez bete beharrekoak. Adibide bat Produktu Kimikoak Biltegitratzeko Araudiko APQ-006 instrukzioak ("Likido korrosiboen biltegitratzea" arautzen duena) ezarritako eskakizunak ditugu, horrelakorik duten enpresek bete beharrekoak (altzairu herdoilgaitza desugertzen duten enpresek, adibidez, azido fluorhidrikoa gordetzeko tangak dituzte eta).

1.1.2. Enpresaren baliabideak

Larrialdiren bat gertatu eta hari aurre egiteko enpresak dituen edo lor ditzakeen baliabideak dira. Bi motatakoak dira:

- *Enpresako bertako baliabideak*. Adierazi enpresan gerta litezkeen larrialdiei aurrea hartzeko eta behin gertatutakoan haietatik babesteko zein motatako baliabideak dituen enpresak, bai eta zenbat eta non ere: suteen aurkako instalazio eta ekipoak (suteak antzemateko edota itzaltzeko sistema automatikoak, suteetarako ur-hartune hornituak, su-itzalgailuak, suteen aurkako ur-hornidurarako sistema eta sarea, eta abar), isuriei eusteko sistemak (ontziak, barrera fisikoak eta abar), isurpen toxikoak txikiagotzeko sistemak (garbigailuak, neutralizagailuak, zuziak...), elektrizitate-hornidurarako sistemak eta larrialdietarako argiztapen-sistemak (ekipo elektrogenoak, SAI, larrialdietarako argiak,...), langilearen babesgarriak (arriku kimikoetatik babesteko jantzi eta oinetakoak, kaskoak...), komunikazio-sistemak (telefono finko eta mugikorak, irradi-komunikazioa, megafonia, sirenak...), lehen laguntzarako zerbitzua edota mediku-zerbitzua (langileak eta ekipamendua). Hitz batez, enpresak gerta litezkeen larrialdiei aurre egiteko dituen bitarteko oro.
- *Kanpoko baliabideak*. Adierazi zeintzuk diren enpresako bertako bitartekoen osagarri izan eta kanpotik lortu ditzakeen baliabideak: suhiltzaileak, Ertzaintza edo polizia, ospitalea, anbulantziak, elkarren arteko laguntzarako hitzarmena medio inguruko beste enpresa batzuetako baliabideak eta abar.

1.1.3. Egin beharreko agiriak

Ez da beharrezkoa kapitulu honetako datuak idazterakoan luzeegi aritzea. Gehienetan, gainera, datuak taulatxotan laburbil daitezke, eta testu luze-luze bategan baino errazago eta argiago ulertuko dira horrela. (Erabili 2. eta 3. irudietako taulak).

Horrez gain, ondoren adierazitako planoak ere egin behar dira, eta horiek ere aurreko ataletan eskatutako datu asko eta asko laburtzen dituzte:

- *Enpresaren ingurune hurbilaren eta enpresaren kokalekuaren plano topografikoa*, eskala egokian (adibidez, 1:1000/1:5000). Ondorengo elementu hauek guztiak non dauden argi eta garbi ikusi ahal izateko behar besteko xehetasu-

na izan beharko du planoak: enpresarako sarbideak, hurbileko industria-instalazioak eta herriak, elektrizitate-lineak, gas-hodiak, babes bereziko guneak, ur-lasterrak, kanpoko baliabideak eta, hitz batez, gerta litezkeen larrialdi-egoeretan behar bezala aritzeko garrantzitsua izan daitekeen oro.

- *Honako hauek non dauden adieraziko duen planoak edo planoak*, enpresaren konplexutasunaren arabera: sarbideak, eraikinak, produkzio-prozesua egiten den lekua eta instalazio osagarriak, batez ere segurtasunaren aldetik kritikak diren ekipo eta instalazioak (adibidez, produktu kimikoen biltegia, erregai likido edo gaseosoena, transformadoreak, galdarak eta presiopeko bestelako aparatuak, goi- eta behe-tentsioko sareak, gas-bideak eta abar). Adierazi planoan, halaber, ura, gasa, lurruna, produktu kimikoen hornidura, energia elektrikoa eta bestelako fluidoak eteteko giltzak non dauden.

Ez ahaztu lur azpiko guneak ere adieraztea, adibidez, sotoak.

2. irudia. Enpresaren eta enpresa-inguruaren deskribapena (Hutsik)

Identifikaziorako datuak ¹	Enpresa-izena		Lantokia
	Helbidea:		
	Herria:		
	Probintzia:		
	Posta-kodea:		
	Telefonoa:		
	Faxa:		
	Posta elektronikoa:		
Ingurua eta sarbideak	Egitura	Eraikin industrialia:	
		Eraikin ez industrialia:	
	Kanpoko sarbideak	Oinezkoentzako sarbideak:	
		Ibilgailuentzako sarbideak:	
	Kanpoko laguntza	Suhiltzaile-parkerik hurbilena:	
Distantzia eta iristeko behar duten denbora (gutxi gorabehera):			

2. irudia. Enpresaren eta enpresa-inguruaren deskribapena (Hutsik)

Eraikinaren eraikuntza-ezaugarriak ³	Eraikinaren tamaina	Azalera, guztira:
		Lur gaineko solairuen kopurua:
		Lur azpiko solairuen kopurua:
		Sektore-kopurua:
		Sektore bakoitzaren azalera:
		Altuera:
	Egitura-elementuak	Zutabeak:
		Habeak:
		Habexkak:
		Gangatilak:
Kanpoko eta barruko itxiturak:		
Jarduera ⁴		
Prozesuak ⁵		
Ekipoak husteko baldintzak ⁶	Instalazio elektrikoa	Kontrataturako potentzia: Transformadoreak: Banaketa-koadroak:
	Aireztapena	Naturala: Artifiziala:
	Beroketa	
	Gas sukoiien biltegia	
	Likido sukoiien biltegia	
	Galdarak	
	Konpresoreak	
	Bestelakoak (labeak eta abar)	

2. irudia. Enpresaren eta enpresa-inguruaren deskribapena (Hutsik)

Jarduera eta lana ⁷	Jarduera Sektorea / lantegia	Azalera	Langile-kopurua
	Guztira:		
Eraikina husteko baldintzak ⁸	Eskailera-kopurua	Deskribapena	
	Eraikuntza husteko bide horizontalak	Deskribapena	
	Irteerak	Lantegiko edo sektoreko irteerak	Eraikineko irteerak
Organigrama ⁹			

3. irudia. Enpresaren eta enpresa-inguruaren deskribapena. Enpresaren baliabideak: inbentarioa eta kokalekua (Hutsik)

BALIABIDEA	KOP.	ZEIN PLANOTAN DAUDE ADIERAZITA
Detektatze- eta alarma-sistema		
Su-itzalgailuak		
Suteetarako ur-hartune hornitua		
Ihiztagailuak (sprinklers)		
Alarma-sakagailua		
Alarma-sirena		
Argi bereziak. Larridiatarako argiak.		
Etenik gabeko elikadura elektrikoa (ekipo elektrogenoa, bateria eta abar)		
Megafonia / Telefonía		
Sua itzaltzeko eraikinean zehar jarrita dauden sistemak (CO ₂ , aparra eta abar)		
Babeserako baliabide pasiboak (ate suhesiak, ontziak eta abar)		
Korridoreak, suteen aurkako elementuak eta husteko biderik hurbilenak		
Kanpoko bilguneak		
Mediku-zerbitzua		
Botika-kutxa		
Ohe txikiak		
Anbulantzia		
Xurgatzaile industrialak		
Suteen aurkako langilearen babesgarriak		
Ustekabeko isuriak maneiatzeko langilearen babesgarriak		
Isuri toxikoak maneiatzeko langilearen babesgarriak		

1.2. Zer-nolako larrialdiak izan ditzaket?: Larrialdi-egoerak

Enpresa eta enpresaren ingurunea ezagutu eta gero, hauxe da ondoren egin beharrekoa: zehaztea zein egoerak –gerta litezkeenak– sortaraz ditzaketen larrialdiak enpresan eta, ondorioz, pertsona, instalazio eta ingurumenean kalteak.

Enpresa gehien-gehienetan kontuan hartu beharreko egoerak hauek dira: suteak eta lan-istripuak edo bat-bateko gaixotasun larriak. Dena den, enpresako produkzio-prozesua zer-nolakoa den, enpresa batzuetan bestelako larrialdi-egoera batzuk ere gerta daitezke, esaterako, produktu arriskutsuak isurtzea, ibai edo hodi biltzaileetara kontrolatu gabeko isuriak egitea, ingurumenera substantzia toxikoak isurtzea eta abar; eta egoera horietan guztietan ere larrialdietarako jokatibidea zein izango den jakin beharra dago.

Gerta litezkeen larrialdi-egoerak zeintzuk diren identifikatzeko, *enpresa-jardueraren arriskuak ebaluatu* behar dira lehenik eta behin, eta aurreko atalean bildutako informazio guztia izango da kontuan horretarako. Arriskuen ebaluazio horrek ez du zerikusirik, ezer gutxi behintzat, ohiko lan-istripuen ebaluazioarekin, nahiz eta biek helburu bera izan langileak babesteari dagokionez. Izan ere, enpresa-jardueraren arriskuak ebaluatzerakoan kontuan izango baititugu, halaber, enpresako bertako langileei kalteak eragiteko arriskurik ez izan arren, enpresatik kanpoko pertsonengan, produkzio-prozesuko instalazioetan edo ingurumenean kalteak eragin litzaketenak ere.

Lehenik eta behin, istripu industrialen bat eragin lezaketen enpresako arrisku guzti-guztiak zeintzuk diren jakin behar da. Kendu ezin den arriskurik balego, aztertu arriskua zenbaterainokoa den (arrisku-maila) eta, ondoren, ebaluatu. Gida teknikoko 1.2. atalean azaldutako metodologiaren arabera 3. mailakoak (maila neurritzkoa) edo gehiagokoak diren arriskuak larrialdi-egoeraren bat eragiteko modukotzat hartuko dira.

Gerta liteke enpresa batzuek arrisku industrialen azterketa egiteko beharrik ez ikustea, bai enpresaren tamainagatik edo bai prozesu industrialak kalterik egiteko modukoa ez izateagatik, arriskuak nabariak direlakoan (adibidez, suteak edo lan-istripuak). Dena den, arrisku industrialen ebaluazioa enpresa guzti-guztiek egitea gomendatzen dugu, baliagarri izango baita enpresa hobeto ezagutzeko eta prozesu industrialeko ahulguneak zeintzuk diren jakiteko.

Baliteke, halaber, beste enpresa batzuek jada arriskuak ebaluatzeko bestelako bitartekoren bat erabiltzea (I. eranskinean azaldutakoaren ezberdina; adibidez, AMFEC, akatsen zuhaitzak eta abar). Horrelakoetan, enpresak zehaztu dezala, bere ebaluazio-metodologia erabiliz, zein mailatik gora hartu beharko diren arriskuak larrialdi-egoeraren bat eragiteko modukotzat.

Arriskuak ebaluatu ondoren eta hori oinarri hartuta, hauxe da atal honetan egin beharrekoa: *larrialdi-egoerak zeintzuk diren identifikatzea*, hau da, ustekabeko zein egoerek eragin lezaketen larrialdi-egoeraren bat jakitea.

1.2.1. Egin beharreko agiriak

Gerta litezkeen larrialdi-egoerak zeintzuk diren identifikatu eta zerrendatzeko, 4. irudiko taula erabiliko dugu. Hona hemen taula horretan jaso beharreko informazioa:

- *Larrialdi-egoera*: 3. mailakotzat edo gehiagokotzat ebaluatu den arrisku baten ondorioz sortutako larrialdi-egoera. Adibidez: transformadore batek, substantzia sukoiien biltegiak edo agiritegi nagusiak su hartzea, desugerketarako kupeletako azido klorhidrikoa isurtzea, biltegitartzeko tanga batetik azido fluorhidrikoa jariatzea, altzairu-fabrika bateko iragazkiko mahukak haustea, euri-jasen ondorioz uholdeak izatea, sabotaje edo ekintza terrorista bat eta abar.
- *Kokapena*: Adierazi non gertatuko litzatekeen egoera (esaterako, transformazio gunean, bulego nagusietan, bidaien biltegian eta abar). Bestalde, larrialdi-egoera gertatuko litzatekeen lekuaren ezaugarriak direla-eta edo tartean diren instalazioen izaera medio edo bestelako arrazoiengatik larrialdi-egoeran modu bereziren batean jardun beharko balitz, komenigarria da egoera horiek ondo zehaztea eta banan-banan aztertzea.
- *Arrisku-maila*: Idatzi erabilitako ebaluazio-metodologiaren arabera balioztaturako arrisku-maila. Gida teknikoko I. eranskinean azaldutako metodologia baliatu baduzu, 3, 4 edo 5 idatzi behar duzue.
- *Aurreikus daitezkeen ondorioak*: Adierazi zein kalte izan ditzaketen instalazioek, inguruneak eta langileek (bertakoek eta, baldin baleude, kanpokoek).
- *Oharrak*: Idatzi hemen beharrezkoak iruditzen zaizkizun oharrak.

1.3. Nolako antolamendua behar dut?: Larrialdietarako antolamendua

Antolamendua da larrialdien kudeaketaren funtsezko alderdietako bat, garrantzitsuena ez bada. Horrela, larrialdi-egoeretan jarduteko antolamendua egin behar du enpresak, larrialdi-planean ezarritako prozeduren arabera.

Gida teknikoan baduzu hainbat antolaketa-aukera, enpresaren konplexutasunaren eta arriskuen arabera. Adibide gisa, larrialdietarako antolamenduaren eske-marik *konplexuena* azaltzen dizugu 5. irudian. Hauek dira bertako elementu nagusiak:

- *Larrialdietarako burua (LB)*. Larrialdi-egoeraren arduradun nagusia da eta horrelakoetan egin beharreko esku-hartze guztiak koordinatuko ditu. Fabrikako burua izan ohi da.
- *Esku-hartzeetarako burua (EB)*. Larrialdietarako buruak emandako jarraibideen arabera lanak "in situ" bideratuko dituen da. Enpresako segurtasun-koordinatzailea izan ohi da.
- *Kontrol-taldea (KT)*. Komunikazio-bideak eta larrialdi-egoerari buruzko informazioa zentralizatuko duen pertsona edo taldea da.
- *Hasierako esku-hartzeetarako taldea (HET)*. Larrialdi-egoeraren hasiera-hasieran eta larrialdiari irtenbidea eman eta ezabatzeko edo gehiagora joan ez dadin arituko den pertsona edo taldea da.
- *Azken buruko esku-hartzeetarako taldea (AEST)*. HETek euren bitartekoekin larrialdi-egoera kontrolatzea lortzen ez badute esku hartuko duen pertsona edo taldea da. Horrelako egoeretarako bereziki trebatua izan den enpresako norbait edo norbaitzuk izan daitezke edo baita enpresatik kanpokoak ere (suhiltzaileak, SOS Deiak...).
- *Alarma eta huste-taldea (AHT)*. Enpresako leku jakin bateko gizon-emakumeak ordenan jarrita ateratzeko lanak zuzentzeaz eta kontrolatzeaz arduratuko den pertsona edo taldea da.
- *Lehen laguntzako taldea (LLT)*. Min hartutakoak sorotsiko dituen pertsona edo taldea da.
- *Laguntza-taldea (LT)*. Larrialdian arituko diren taldeei laguntza espezializatua emateaz arduratuko den pertsona edo taldea da (adibidez, mantentze-lanetakoak, bulego teknikoak eta abar).

Enpresaren *tamainaren eta konplexutasunaren* arabera, batetik, eta aurreikus daitezkeen larrialdi-egoeren arabera, bestetik, hainbat antolamendu-eskema egin liteke. Begien bistakoa da altzairu-fabrika txiki batek, janari-denda batek eta enpresa kimiko batek modu desberdinean eratuko dutela euren antolamendu-egitura. Gainera, enpresa txikietan, eta bereziki oso txikietan, pertsona berberak har ditzake bere gain larrialdietarako antolamenduko hainbat mailatako eginkizun eta ardurak.

Hori horrela, beraz, 5. irudiko antolamendu-eskema askoz ere *sinpleagoa* bihur liteke enpresa txikietan: larrialdietarako burua eta esku-hartzeetarako taldea izatea nahikoa izango litzateke horrelakoetan, biak ere enpresako bertako langileek osatutakoak (baina aldeztatik horretarako prestatu beharko dira). Eta horixe gertatuko da, ziur aski, eskuliburu hau erabiliko duten enpresa gehienetan.

Ondorengo hauek dira, laburbilduz, atal honetan egin beharreko zereginak:


- *Larrialdietarako antolamendua diseinatu*, aurreikus daitezkeen larrialdi-egoeren eta enpresak dituen baliabideen arabera. Zalantzarik izanez gero, jo eza zu gida teknikorara. Bestalde, antolamendua diseinatzerakoan kontuan izan beharrekoak dira, bereziki, enpresaren lan-erritmoa (lan-txandak) eta lan-egutegia (jaiegunak eta oporraldiak). Zentzu horretan, baliteke hasierako organigrama aldatu behar izatea, egoera horiei behar bezala aurre egin ahal izateko.
- *Antolamendu-mailak nork edo nortzuek osatuko dituzten erabaki* (larrialdietarako burua, esku-hartzeetarako burua eta abar). Gida teknikoan baduzu horretarako laguntzarik ere, hala nahi izanez gero: taulatxo batean bilduta duzu antolamenduko maila bakoitzerako zein eskakizun komeni diren.
- *Antolamendu-maila bakoitzari dagozkion egiteko eta ardurak eman* (nork egin beharko duen zer, noiz eta nola). Larrialdietarako antolamendua osatuko dutenen egiteko eta ardura batzuk lehendik aipatu baditugu ere, gida teknikoan taula bat aurkituko duzu, horiek emateko orduan errazago aritu zaitezten.

1.3.1. Egin beharreko agiriak

Atal honetan lortu beharreko azken agiria larrialdi-egoeretan jarduteko *enpresako organigrama* da, eta antolamendu-maila bakoitzean nor arituko den eta horietako bakoitzak zein egiteko eta ardura izango dituen zehaztuta ageriko zaizu bertan. Horretarako, 5. irudia eta 6. irudiko taula erabiliko dituzu.

Baliabide materialen antolaketari dagokionez: enpresak larrialdi-egoerei aurre egiteko dituen baliabideak zerrendatu eta antolatu behar dituzu, eta hori guztia *plano batean edo batzuetan adierazi, enpresaren konplexutasunaren arabera.*

5. irudia. Larrialdietarako antolamendua (Hutsik)




6. irudia. Larrialdietarako antolamendua: Egitekoak eta ardurak (Hutsik)

Esku hartuko duena	Atzeman	Baiezatu Aktibatua	Larrialdi-mota	Larrialdia jakinarazi	Esku-hartzeak	Hustea	Kanpoko laguntza	Larrialdiaren amaiera
Larrialdietarako burua								Adierazi
Esku-hartze-etarako burua								
Kontrol-taldea								Jakinarazi
Hasierako esku-hartzeetarako taldea								
Azken buruko esku-hartze-etarako taldea								
Lehen laguntzarako taldea								
Alarma eta huste-taldea								
Laguntza-taldea								
Beste edonor								

1.4. Zer egin behar dut larrialdietan?: Jarduera-eskema orokorra

Larrialdi-egoeretan egin beharrekoen prozedura orokorra aurkezten dizuegu jarraian, 7. irudian, eskema modura. Helburua ez da prozesua lerro-lerro azaltzea; aitzitik, egin beharreko jarduerak azaltzeko adibide gisa erabili dugu. Bestalde, larrialdi-egoera nolakoa den, baliteke eskeman adierazitako etaparen bat kontuan hartu behar ez izatea.

7. irudia. Larrialdietarako jarduera-eskema orokorra



1. *Larrialdia atzeman*. Adierazi nork eta nola atzemango duen larrialdia. Aukera ugari dago: alarma automatiko bat, langileren batek suteetarako esku-sakagailuari eragitea, likidoak ibairatzeko hodi-biltzean dagoen phmetroak isuri azidoren bat antzematea, langileren batek tanga-inguruan soda-isuria ikustea, lanean diharduela langileren bat bat-bateko lan-istripuren batez ohartzea eta abar.

2. *Larrialdia baieztatu / Alarma aktibatuta*. Adierazi nork eta nola baieztatuko duen larrialdia. Alarma pertsonaren batek ematen baldin badu (zuzeneko alarma), larrialdia baieztatuta egongo da. Aldiz, alarma automatikoa bada, baieztatu egin beharko da.

Beraz, larrialdia ez bada alarma automatikoren baten bidez atzemango, zuzenean jakinaraziko da eta ez da beharrezkoa izango larrialdia baieztatzea.

3. *Larrialdi-mota adierazi*. Larrialdia baieztatu ondoren, larrialdi-mota adierazi beharko da, jada badagoen edo aurreikus daitekeen egoeraren arabera:

- *Larrialdi txikia*: Larrialdi-egoera enpresako leku jakin batean gertatu da, eta HETek (hasierako esku-hartzeetarako taldeek) kontrolatzeko modukoa da.
- *Larrialdi partziala*: Larrialdia enpresako zati handi bati edota ekipo edo instalazio kritikoei dagokie, eta, eragin eskasak izango baditu ere, egoerak okerrera egingo duela susma daiteke. Larrialdi-egoera AESTek (Azken buruko esku-hartzeetarako Taldeek) kontrolatzeko modukoa da, eta baliteke langile batzuk handik atera behar izatea.
- *Larrialdi orokorra*. Larrialdi-egoerak enpresa osoan edota ekipo eta instalazio kritikoetan du eragina, eta egoerak okerrera egin eta ondorio larriak izango dituela susma daiteke. AESTak ez dira gai egoera kontrolatzeko, eta litekeena da enpresako langile guzti-guztiak atera behar izatea.

Larrialdia zein motatakoa den enpresa barruan nahiz kanpoan jakinarazteko, aldeztu aurretik erabakitako komunikazio-bideak erabiliko dira (sirenak, telefonoa, irratia eta abar).

4. *Larrialdia jakinarazi*. Aldeztu aurretik erabaki behar da zein komunikazio-bide erabiliko diren larrialdi-egoeretan, bai enpresa barruan eta bai kanporako harremanetan, eta, beharrezkoa balitz, baita zer egingo den ere argi-indarrak huts egingo balu.

Hauek dira, besteak beste, barne-komunikaziorako erabil daitezkeen bitartekoak: ahozko komunikazioa (adibidez, larrialdia atzeman duenak bere ardurdunari esatea), xede horretarako jarritako mekanismoak (adibidez, suteetarako sakagailuak), irratia, megafonia, sirenak edo telefonoa.

Kanpoko baliabideekiko edo instituzioekiko komunikazio-bideak telefonoa edo irratia izan ohi dira eskuarki.

Larrialdiaren berri emateko bitartekoak zeintzuk izango diren erabakitzeaz gain, igorlea hartzailearekin nola jarriko den harremanetan ere zehaztu behar da (telefono zenbakia, irradi-frekuentzia, sirena-hotsaren maiztasuna eta deikopurua, megafoniaz egingo den jakinarazpen-mota...) eta baita zein hizkuntza erabiliko den ere. Kanpo-komunikazioei dagokienez, SOS Deiak-ekin harremanetan jartzeko protokolo-orria edukiko da (ikus gida tekniko).

Bestalde, bi motatako komunikazio-bideak ezarri behar dira: alde batetik, enpresako egitura-mailetakoekin soilik harremanetan jartzekoak, eta bestetik, enpresako langile guztiekikoak (esaterako, megafonia eta sirenak).

5. *Esku hartu*. Enpresan gerta litezkeen larrialdi-egoerak zehaztuta dituzu jada, eta, orain, egoera bakoitzean egin beharreko lanak eta lan horiek egiteko prozedura zehaztu behar dituzu. Larrialdietarako antolamenduko maila bakoitzeko arduradunek lan-fitxa bana izan beharko dute, larrialdi-egoera bakoitzean zein jarduera egin behar dituzten laburbilduta.
6. *Hustea*. Larrialdi-egoera batzuetan beharrezkoa izango da enpresako langile batzuk edo guztiak ateratzea. Beraz, alde aurretik erabaki behar da zeintzuk izango diren huste-bideak eta bilguneak, eta garbi-garbi seinaleztatu. Horretarako modurik errazena plano bat egitea da.
7. *Kanpoko laguntza*. Hasierako esku-hartzeetarako taldea (HET) ez bada gai larrialdi-egoerari aurre egiteko, eta enpresan ez badago Azken buruko esku-hartzeetarako talderik (AEST), ezinbestekoa izango da kanpoko baliabideetara jotzea.

Kanpoko laguntza eskatzeko erabakia, baina, hasiera-hasieran hartu behar da, hara zer dioten-eta suhiltzaileek: "berandu hots egiten badigute, berandu iritsiko gara".

8. *Larrialdiaren amaiera*. Beharrezkoa da alde aurretik finkatzea identifikatutako larrialdi-egoera bakoitza amaitutzat jotzeko (eta, beraz, enpresa jada seguru dagoela emateko) zein baldintza egon behar diren. Bestalde, Larrialdietarako buruak adieraziko du, beti, larrialdi-egoera noiz amaitu den.

1.4.1. Egin beharreko agiriak

Honako hauek dira atal honetan egin beharreko zereginak eta agiriak:

- *Larrialdi-egoeretarako jarduera-prozedura zehaztu*. 10. irudian duzu, adibide gisa, larrialdi-egoeretan nola jokatu behar den ikusteko fluxu-diagrama bat. Enpresak eskema hori *dagoen horretan* har dezake eta bere larrialdi-planean sartu, edo diagrama horretan oinarritu eta beharrezko egokitzapenak egin ditzake, jarduera-prozedura enpresako bere egituraketara egokitzeko (ikus gida teknikoa).

Dena den, prozedurak ondorengo alderdi hauek izan beharko ditu kontuan:

- *Egoera-motak*. Hiru motatako larrialdi-egoerak bereiztu ditugu lehenago: larrialdi txikia, larrialdi partziala eta larrialdi orokorra. Baina enpresak erabaki dezake bi egoera-mota baino ez zehaztea (adibidez, larrialdi txikia eta larrialdia), baldin eta oso konplexua edo handia ez bada. Nolanahi ere, alde aurretik zehaztu behar da zein baldintza egon behar diren enpresak kontuan hartutako larrialdi-egoera bakoitza hasitzat eta amaitutzat jotzeko.


- Barne- eta kanpo-komunikaziorako bideak:
 - Adierazi zein komunikazio-bide erabiliko den kasu bakoitzean (telefonoa, megafonia, irratia, sirena-deiak...). Beharrezkoa balitz, adierazi, halaber, zein komunikazio-bide baliatuko den argi-indarrik gabe geratu eta telefonogunea erabili ezingo balitz (esaterako, irratitefonoak). Gogoan izan, bestalde, larrialdi-egoeretan ez dela komeni komunikazio-bideak behar-beharrezkoak ez direnean erabiltzea, kolapsa litezke eta.
 - Egin barne-komunikaziorako beharko direnen zerrenda: nortzuk arituko diren, horien telefono-luzapena edo zenbakia, irradi-frekuentziak (halakorik balego) eta abar.
 - Egin, halaber, kanpo-komunikaziorako beharko direnen zerrenda (SOS Deiak, suhiltzaileak...). Gainera, horrelakoetarako, diseinatu komunikaziorako protokolo-orria (nahi izanez gero, gida teknikoan dagoena erabil dezakezue).
- *Enpresa husteko plano*a egin, eta, bertan, huste-bideak eta bilguneak zeintzuk diren adierazi.
- *Kontuan izandako larrialdi-egoera bakoitzerako lan-fitxa* egin. Enpresa handi edo konplexu samarretan, norbere ardurei egokitutako fitxa bana izango dute langileek, eta larrialdi-egoera bakoitzean egin beharreko lanak edo jarduerak zehaztuko zaizkie bertan. 9. irudian duzue, adibide gisa, larrialdietarako lan-fitxetan kontuan izan beharrekoak.

9. irudia – Larrialdietarako lan-fitxa (Hutsik - Aurrealdea)

REN LARRIALDIETARAKO LAN-FITXA(*).....	
(Bestela ere esan daiteke:.....(*).....	
RENTZAKO LARRIALDIETARAKO JARRAIBIDEAK)	
(*) ESKU HARTUKO DUENA (HET, AEST eta abar)	
EKINTZAK	
■ Sutereren batez ohartzen bazara	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>
■ Isuriren batez ohartzen bazara	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>
■ Ibaira egindako isuriren batez ohartzen bazara	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>
■ Bat-bateko gaixotasun edo istripuren batez ohartzen bazara	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>
■ Alarmak jotzen badu	<input type="checkbox"/>
■ Eta abar	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>

(Fitxaren atzealdean, eta formatu bera erabiliz, prebentzio-neurriak azalduko dira).

10. irudia. Larrialdietarako jardueraren ereduak



2. LARRIALDI-PLANA NOLA EZARRI, EGUNERATUTA IZAN ETA HOBETU

Larrialdi-plana ezartzea ez da enpresako leku pribilegiaturen batean, hantxe apalean txukun-txukun, zenbait liburukitako agiri lodi-lodi bat izatea, ongi koardernatutakoa eta kolore bizitako eskema eta grafiko ugarikoa, auditoreek, bezeroek eta suhiltzaileek ikusi eta goza dezaten.

Aitzitik, larrialdi-plana ezartzeak zera esan nahi du: enpresan aritzen diren guzti-guztiek, bai bertako langileek eta baita kontrata bidezkoek nahiz bisitariek eta abarrek ere, badakitela jakin zer egin larrialdi-egoeraren bat gertatuz gero, eta, gainera, ahalik eta modu azkar eta eraginkorrean egiteko trebatuak izan direla.

Hori horrela, beraz, larrialdi-plana ezartzea hauxe da:

- Larrialdietan izan beharreko jokabidea enpresa-kulturaren integrazioa, bai eta enpresako prozedura operatiboetan eta kudeaketa-sisteman sartzea ere.
- Planen ezarritako urratsen arabera jardutea.
- Langileei haren berri eman eta trebatzea.
- Sistematikaren bat hartzea, larrialdi-plana eraginkorra den ebaluatzeko eta gerora berrikusi eta eguneratu egingo dela bermatzeko.

Hitz batez, larrialdiren bat gertatuz gero bertan egongo diren langile guztiak planeko ildoan arabera arituko direla bermatzea.

Aurreko kapituluan egindako larrialdi-plana ez da behin-betikoa. Aitzitik, eta enpresak berak aldaketak izango dituen heinean bai eta plana bera ezarri ondoren izandako eskarmentutik ikasiz, berrikusi eta hobetu beharreko agiria beharko luke izan.

Larrialdiak kudeatzeko prozedura nola ezarri argiago ikusteko, adibide bat duzu gida teknikoan, eta ziur lagungarri izango zaizula enpresan larrialdi-plana ezarri, eguneratuta izan eta hobetzeko jarduerak egiteko. Gainera, enpresan ingurumen-kudeaketarako sistemaren bat (ISO 14001, EMAS), prebentzio-kudeaketarako sistemaren bat (OHSAS 18001, UNE 81900EX eta abar) edo bai ingurumen- eta bai prebentzio-kudeaketa kontuan hartuko dituen sistemaren bat ezartzeko asmoa izanez gero, larrialdi-planei buruz araudi horiek eskatzen dituzten baldintzak betetzea ahalbidetuko dizu prozedura honek.

2.1. Plana ezartzeko estrategiak

Plana ezartzeko programa bat izango da atal honetako eginkizunen emaitza (11. irudia). Honako hauek dira eginbehar nagusiak:

- *Arriskuak ebaluatu ondoren erabakitako zuzenketa- edota prebentzio-neurriak ezartzea.* Zein larrialdi-egoera gerta litezkeen aztertzeko, lehenik eta behin arriskuak ebaluatu behar ziren, eta baliteke ebaluazio-prozesu horretan enpresak erabakitzea zuzenketa- edota prebentzio-neurri batzuk ezartzeko beharra duela, horrelako egoeretan izan beharreko jokabidea hobea izan dadin. Eskuarki, ondorengo hauen ingurukoak izan ohi dira neurriak:
 - Norberaren babes-baliabideak egokitzea eta osatzea (suteen aurkako babes-sistemak, larrialdietarako argiak, isurien aurkako sistemak, husteetarako seinaleak, HETak eta abar).
 - Segurtasunaren aldetik kritikotzat diren ekipo eta instalazioak, batetik, eta enpresan jarritako norberaren babeserako sistemak, bestetik, aldizka berrikusi eta behar bezala mantentzen direla bermatzea.

Hona hemen zenbait ohar, norberaren babes-baliabideak eta ekipo eta instalazio kritikoak egokitzeko eta mantentzeko lanen ingurukoak:

- Segurtasunaren aldetik kritikotzat diren ekipo eta instalazio gehienek (adibidez, transformazio-guneek, presiopeko aparatuek, erregaien biltegiek, gas-instalazioek eta produktu kimikoen biltegiek) *segurtasun industrialari buruzko araudia bete behar dute.*

Araudi horren arabera, instalatzaile edo mantentzaile gisa behar bezala kreditatuta dauden profesional baimendunek egin behar dituzte, nahitaez, horrelakoen egokitze eta mantentze-lanak. Gainera, kreditatutako kontrol-erakunderen batek edota industria-administrazioak berak ikuskatu egingo ditu aldian behin. Tokian tokiko industria-bulegoetan izaten dute profesional eta erakunde baimendun horien zerrenda.

Enpresak une oro jakin beharko du, beraz, zein instalazio eta ekipok bete behar dituzten aipatutako araudiko baldintzak, egokitze- edota mantentze-lanak behar bezala eta zuzen egiteko. Gida teknikoan baduzu horretarako laguntza ere: horrelako ekipo eta instalazioen zerrenda, hain zuzen, oso osoa ez bada ere.

- *Suteetatik babesteko instalazioek* ere segurtasun industrialari buruzko araudia bete behar dute, baina enpresetan norberaren babes-baliabiderik ohikoenak izanik, zein baldintza bete behar dituzten zehatzago azalduko dizkizugu. Honako lege honek arautzen ditu horrelako aparatu, ekipo eta sistemek nahiz horiek jartzeko eta mantentzeko lanek bete beharreko baldintzak: 1942/1993 Errege Dekretua, "suteen aurka babesteko jarri beharreko instalazioei buruzko Erregelamendua" alegia (1993-12-14ko BOEn), 1998ko apirilaren 16ko Aginduaren bidez aldatua (1998-4-28ko BOEn).

Hona hemen enpresak horrelako ekipo eta instalazioen mantentze-lanetarako zerbitzuak kontratatzerakoan kontuan izan beharko dituen alderdi batzuk:

- Aparatuek, ekipoez, sistemek eta horien guztien osagaiek (aurrerantzean suteetatik babesteko instalazioak esango dugu), eta horiek jartzeko lanek araudiko 1. eranskinean zehaztutako baldintzen arabekoak izan beharko dute.

- Aparatuak, ekipoak, sistemak eta horien guztien osagaiak, *su-itzalgailu eramangarriak izan ezik*, horretarako baimena izan eta lurraldeko industria-bulegoetako erregistro-liburuan dauden instalatzaileek baino ezin dituzte jarri. Administrazioaren baimena hiru urterako izaten da (luza badaiteteke ere), eta araudiari atxikitako ekipo guztietarako edo batzuetarako soilik balio dezake.
- Suteetatik babesteko instalazioen mantentze-lanak mantentzaile baimendunek egin behar dituzte. Baimenari eta erregistroari dagokienez, instalatzaileei buruz esandakoak balio du.
- Hala zehaztutakoan, teknikari tituludun aditu batek egin eta sinatutako proiektu edo agiriak eduki beharko dira suteetatik babesteko aparatu, ekipo eta sistemak jartzeko, bai eta egin beharreko administrazio-izapidea egin ere horiek martxan jartzeko.
- Suteetatik babesteko instalazioak zaintzeko azterketek bat etorri beharko dute, gutxienez, araudiaren II. eranskinean zehaztutako gutxieneko mantentze-lanen programekin, eta, gainera, azterketa egin duen teknikariak sinatutako akta izan beharko dute. Badira, ordea, salbuespenak: meatze-industriak, industria nuklearrak eta bestelako industria batzuek araudi berezia dute.

Hauxe dute enpresek araudiak ezarritako baldintza horiek guztiak betetze-ko *modurik errazena*: horrelakoak jartzeko, *mantentze-lanak egiteko eta aztertze*ko, *profesional kreditatuak kontratatzea*.

- Enpresako maila guztietan *larrialdi-planari buruzko informazioa ematea*, kontrata bidezko langileak eta ohiko bisitariei barne, baita larrialdiren bat gertatuz gero laguntzen arituko diren kanpoko baliabideei ere: SOS Deiak 112, suhiltzaileak eta abar.

Alderdi hauek jakinarazi beharko dira, gutxienez:

- Instalazioan identifikatutako larrialdi-egoerak zeintzuk diren eta, beraz, zein kasutan aktibatu behar den alarma.
- Larrialdiaren hasiera eta amaiera nola jakinaraziko den.
- Komunikazio-bideak zeintzuk diren.
- Norbanako bakoitzak zein zeregin eta ardura dituen larrialdietako jardura-prozeduran.
- Edonork erabiltzeko moduko norberaren babes-ekipoak (su-itzalgailuak, urhartune hornituak, babes kimikorako ekipoak eta abar) non dauden eta nola erabiltzen diren.

Enpresa handi samarra bada, langileek larrialdietarako lan-fitxa bana izango dute, bakoitzaren zereginen eta arduren arabera. Beharrezkoa izango da,

halaber, kontrata bidezko langileentzako eta bisitariantzako ere oinarritzko jorkabide-jarraibideak izatea.

Oso ondo legoke, larrialdien kudeaketaren aldetik, kanpoko laguntzarako zerbitzuei (SOS Deiak, suhiltzaileak...) larrialdi-planaren kopia bana ematea –batez ere planoena–, eta enpresara bertara joan daitezen gonbidatzea, "in situ" ezagutu dezaten. Beste enpresa batzuekin elkarren arteko laguntzarako hizarmenik balego, egin beste horrenbeste.

- Larrialdi-planean aurreikusitako lan zehatzetan arituko diren *langile guztiak prestatzea*. Prestakuntza horretan honako alderdi hauek landuko dira, besteak beste, eta beti ere ardura-motaren arabera (HET, AEST, AHT eta abar):
 - Enpresako instalazioak eta ekipoak ezagutzea eta fabrikari zein substantzia arriskutsu erabiltzen diren jakitea, bai eta horiek zer-nolako arriskuak dituzten eta enpresan norberaren babeserako zein baliabide dauden jakitea ere.
 - Identifikatutako larrialdi-egoera bakoitzean aritzeko taktikak: sutea, leherketa, isuria, jario toxikoa, uholdea, atentatua, lapurreta eta abar.
 - Lehen laguntza.

Larrialdi-taldea osatzen dutenentzako prestakuntza bereziaz gain, enpresako langile *GUZTI-GUZTIEK* jaso beharko dute alderdi hauen inguruko prestakuntza:

- Gerta litezkeen larrialdi-motak.
- Alarma-sistemak eta larrialdiaren hasierarako eta amaierarako prozedurak.
- Huste-plana.
- Lanean aritzen diren lekuan norberaren babeserako dauden baliabideen erabilera.

Baina noiz prestatu behar dira langileak-eta?:

- Hasiera-hasieran, hots, larrialdi-plana ezartzeko momentuan.
- Plana ezarri ondoren enpresan langile berriak sartzen diren orotan (kontrata bidezko langileak eta bisitariak barne).
- Ondorengo arrazoiak medio, larrialdi-plana aldatzen denean:
 - Enpresan ekipo, produktu edo prozesu berriak sartu eta, ondorioz, larrialdi-egoera berriak daudelako.
 - Antolamendua, jarduera-prozedurak edo enpresak dituen baliabideak aldatu direlako.
 - Larrialdi-simulazioa egin ondoren edo egiaz larrialdiren bat gertatu eta gero larrialdi-planaren eraginkortasuna hobetu beharra dagoela ikusi delako.
- Larrialdietarako lan-taldeetan arituko diren langileak, gutxienez urtean behin, lehendik landutakoa berriz gogora ekartzeko.

Langileak prestatzeko, plangintza bat egin behar da eta, gero, enpresako prestakuntza-plan orokorrean sartu. Bestalde, horretarako gaitasuna duten enpresako bertako langileak aritu daitezke prestakuntza-lanetan edo, bestela, kanpoko zerbitzuetara jo (suhiltzaileak, kanpoko prebentzio-zerbitzuak, erakunde espezializatuak...).

- *Larrialdi-planaren simulazioak eta trebakuntzak.* Enpresan lanean aritzen den orok nahiz bisitari guztiek behar dute nolabaiteko trebakuntza. Hauek dira kontuan izan beharreko oinarritzko alderdiak:
 - Trebakuntza operatiboa, jarduera-prozesuetan.
 - Norberaren babes-baliabideen erabilerari eta larrialdietan aritzeko taktikei buruzko trebakuntza teknikoa.
 - Aldian behin simulazioak egitea, bai partzialak edo bai orokorrak.

Simulazioek honako ezaugarri hauek dituzte:

- Aldez aurretik ezarritako larrialdi-egoera batetik abiatzen dira.
- Planaren edo simulazioari dagokion atalaren barne-mekanika eta mekanika funtzionala frogatzen dute (eta baita egoerari aurre egiten emandako denbora ere).
- Langileen prestakuntza- eta gaitasun-maila egiaztatzen dute.
- Simulazio orokorrak plan osoari dagozkio.
- Simulazio partzialek, berriz, talde bakarra edo gehiago edota koordinazio-gune operatiboak hartzen dituzte.
- Ekipamenduak ondo zainduta dauden eta eraginkorrak diren frogatzen dute.

Hori helburu, *aldian behingo simulazioak egiteko eta langileak trebatzeko plangintza* egin behar da, besteak beste alderdi hauek zehazteko:

- Antolamenduko nortzuk trebatuko diren, zein teknikari arduratuko diren haiek trebatzeaz, zein trebakuntza-jarduera egingo diren, bai eta non eta noiz egingo diren ere. Jarduera horiek prestakuntza-planean sar litezke.
- Aldian behingo simulazioen egutegia finkatzea, eta, bertan, zein larrialdi-egoera, enpresako leku eta barne- nahiz kanpo-baliabide aztertuko diren adieraztea. Komenigarria da, bestalde, gutxienez bi urtetik behin simulazio orokor bat egitea. Simulazioa lehenengo aldiz egin behar denean, jakinarazi aldez aurretik zein egunetan eta ordutan egingo den, eta baita zein larrialdi-egoera simulatuko den ere. Bigarren simulaziorako, berriz, nahikoa izango da eguna eta simulatuko den larrialdi-egoeraren berri ematea. Eta hirugarrenerako, zein astetan egingo den jakinaraziko da soilik.

Trebakuntza prestatzerakoan, kontuan izan beharko da zein behar zehatz dituzten larrialdian arituko direnek: enpresako bertako langileek, kontrata bidezkoek, bisitariak eta, batez ere, larrialdi-planean zeregin zehatzen bat dutenek (HET, AEST eta abar). Larrialdi-planean identifikatutako larrialdi-egoerak baliagarriak izango dira zer-nolako trebakuntza-mota eta simulazioak egin behar diren zehazteko.

Baliabide ugari dituzten enpresetan izan ezik, *gure iritziz, trebakuntza egiteko lekurik onenak* suhiltzaile-parkeak edo horretarako prestatutako trebakuntza-eskola espezializatuak dira.

Enpresak egindako simulazioak eta egiaz gertatutako larrialdiak idatziz jaso beharko dira (ikus gida teknikoan larrialdiak kudeatzeko prozedurak jasotzeko orria – I. eranskina).

11. irudia. Larrialdi-plana ezartzeko plangintza (Hutsik)

PLANA EZARTZEKO PROGRAMA						
Zkia.	Ekintza	Jarduerak	Hasiera data	Amaiera data	Baliabideak	Arduraduna
1	•					
2	•					
2	•					
3	■					
4	■					
5	■					
6	■					
7	■					
8	■					
9	•					
10	•					

2.2. Zer egin behar dut larrialdi-plana eguneratuta izateko eta hobetzeko?: Plana eguneratuta izateko eta hobetzeko estrategiak

Lehenago esan bezala, larrialdi-plana ez da agiri estatiko bat, behin egin eta bere horretan uztekoa. Aitzitik, agiri dinamikoa izan beharko luke eta, beraz, beharrezkoa denean berrikusi egin beharko litzateke, *eguneratuta* egon dadin. Hona hemen zein egoeratan, bederen, berrikusi beharko litzatekeen plana:



- Enpresan instalazio berriak sartu edo daudenak aldatu egingo balira, baldin eta berrikuntza horiek planean kontuan izandakoen bestelako larrialdi-egoerak sortarazteko moduko arriskuak eragin baditzakete.
- Enpresako antolamenduan aldaketaren bat egingo balitz (baldin eta larrialdietarako antolamenduan ondorioak izan baditzake), enpresan ezarritako babes- eta prebentzio-baliabideen kalitatea eta kopurua aldatutako balitz eta, oro har, larrialdi-planeko alderdiren batean aldaketaren bat egingo balitz.
- Araudiak baldintza berriak ezartzen baditu.
- Aldian behingo simulazioen emaitzek hala eskatzen badute.
- Aurreko egoerarik gertatzen ez bada, hiru urtetik behin, gutxi gorabehera.

Larrialdi-plana hobetzeko, berriz, bi era ditugu:

- *Prebentzio gisa*: enpresan egindako simulazioak edo segurtasun- eta ingurumen-kudeaketarako bestelako jarduerak aztertuz (adibidez, barne- edo kanpo-ikuskapenak), "ideia-ekaitza" delako teknikak baliatuz eta abar.
- *Erantzun gisa*: egiaz gertatutako larrialdi-egoerak aztertuz. Larrialdi-egoera larriak gertatuz gero, jatorria zein izan den aztertu beharko da, zergatiak eza-gutu eta hartu beharreko neurriak hartzeko.

Enpresa Txiki eta Ertainetan Larrialdi-plana egiteko eta ezartzeko OINARRIZKO ESKULIBURUA

GIDA-TEKNIKOA • ERANSKINAK



Erakunde Autonomiaduna



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakunde

Enpresa txiki eta ertainetan Larrialdi-plana egiteko eta ezartzeko Oinarrizko Eskuliburua

GIDA TEKNIKOA • ERANSKINAK



OSALAN

Laneko Segurtasun eta
Osasunerako Euskal Erakundea

Erakunde Autonomiaduna

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Egileak:

Antonio Beneitez (Fundación MAPFRE)
Jesús María López de Ipiña
(Fundación LEIA / Fundación Laboral S. Prudencio)
Francisco J. Martín (ONDOAN)
Jesús Ortiz de Urbina (OSALAN)
Angel Salvador (KELAN SL)
Alfonso Tovar (MCC – LAGUNARO. MONDRAGÓN SPM)

Argitaraldia: 1.a, 2001eko urria

© OSALAN
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

Argazkiak: Mikel Arrazola
"Argazki" Artxiboa. Eusko Jaurlaritza

Fotokonposaketa: Composiciones RALI, S. A.
Particular de Costa, 8-10, 7.ª - 48010 BILBAO

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S. A.
Bekolarra, 4 - 01010 VITORIA-GASTEIZ

ISBN: 84-95859-03-3

Lege gordailua: VI-447/01

AURKIBIDEA

GIDA TEKNIKOA	7
Gida teknikoaren azalpena	9
Larrialdi-plana egitea	11
1.1. Eredu deskribatzailea	11
1.2. Larrialdiak identifikatzea eta tipifikatzea	22
1.3. Antolamendu-eskema	35
1.4. Jarduera-ereduak eta jarduera-jarraibideak	45
Larrialdi-plana ezartzea, mantentzea eta hobetzea	65
2.1. Plana ezartzeko programa eta irizpideak	66
2.2. Plana mantentzeko eta hobetzeko irizpideak	68
ERANSKINAK	75
1. ERANSKINA - Larrialdi-plana. Hutsik	77
2. ERANSKINA - Larrialdi-plana. Adibidea	90
3. ERANSKINA - Hitzen glosarioa	117
4. ERANSKINA - Legeen eta arauen erreferentziak	125
5. ERANSKINA - Larrialdi-arriskuak ebaluatzearen zailtasun-mailari buruzko taula orientagarria, jardueraka	129

GIDA TEKNIKOA

GIDA TEKNIKOAREN AZALPENA

Gida teknikoaren helburua kudeaketa-gida erabiltzerakoan sor daitezkeen arazoari eta zalantzei erantzutea da.


Gida teknikoa *tresna eta adibide multzoa da*. Kudeaketa-gidaren erabiltzaileak bere larrialdi-plana diseinatzeko eta egiteko, eta planaren eraginkortasuna mantentzeko erantzun teknikoak eskaintzen ditu (adibidez: NOLA EGINGO DUT?).

1. irudian, gida teknikoaren egitura eta kudeaketa-gidarekin dituen erlazioak irudikatzen dira. Gida teknikoko kapitulu nahiz atal guztietan, kudeaketa-gida erabiltzerakoan sortutako arazoari erantzuteko tresnak eta adibideak eskaintzen dira.

Lanerako sistema oso erraza da, hala nola:


- Kudeaketa-gidak (**Zer egin behar dut?**) atal bakoitza osatzeko eman beharreko urratsak zein diren adieraziko du. Batik bat hutsik dauden formatuak betetzea izango da emaitza.
- Kudeaketa-gidan aipatutako lanak nola egin ez badakizu edo zalantzak badituzu (**Nola egin behar dut?**), gida tekniko honek arazoari aurre egiteko behar adinako laguntza eskainiko dizu.

1. irudia - Gida teknikoaren egitura



1. LARRIALDI-PLANA EGITEA

1.1. EREDU DESKRIBATZAILEA



Helburua: atal honek enpresa deskribatzen lagunduko dizu, hori da, hain zuzen ere, larrialdi-plana egiteko abiapuntua.

Edukia: kudeaketa-gidan garatutako kontzeptuak sakontasunez aztertzen ditu, eta adibideak ere ematen ditu.

1.1.1. Enpresaren eta enpresa-inguruaren deskripzioa

Atal horren helburua lantegiaren deskripzio orokorra egitea da; horrela adieraziko eta definituko baitira lantokiaren berezitasun nagusiak.

Deskripzioa egiteko, kudeaketa-gidako 2. irudian zehaztutako hutsik dagoen formatua erabil dezakezu. Datuak erabiliz betetako formatua gida honetako 2. irudian adierazten da.

Ondoren, eta laguntza gisa, formatu horren atal eta azpiatal bakoitzeko edukia eta irismena zehazten ditu.

1. Identifikaziorako datuak.

Lauki horiek enpresaren identifikazio fisikoa egiteko balio dute.

2. Ingurua eta sarbideak.

Lantokiaren kokagunea eta konfigurazioa gainontzeko ingurunearekiko deskribatzea.

Eraikina **hainbat motatakoa** izan daiteke, hala nola:

- Erabilera ugari dituen eraikinaren zati bat industriadako erabiltzea.
- Eraikin oso bat industriadako erabiltzea, eta eraikin hori, era berean, beste hainbat erabilera dituzten eraikinei atxikita egotea (edo gehienez 3 metroko distantziara egotea).
- Eraikin oso bat edo gehiago industriadako erabiltzea, eta gainontzeko eraikinetatik urruti.
- Zati batean itxitako eremu bat hartzen duen industria-eraikina, edota aire librean dagoen eremua.
- Industria-erabilerarik ez duen eta hirigunean dagoen eraikina. Isolatuta egon daiteke, edo beste hainbat eraikinei atxikita, eta beste erabilera batzuk izan ditzake ala ez.

Lantegiaren kokagunea deskribatzerakoan, **bertara nola iritsi daitekeen (sarbideak)** ere adierazi beharko da, esate baterako:

- Oinezkoentzako sarbideak.
- Ibilgailuentzako sarbideak. Sarbidea zerbaitek oztopatzen badu, adierazi zeintzuk diren oztopo horiek.

Era berean, interesgarria izango litzateke **kanpoko laguntza (suhiltzaileak) gutxi gorabehera zenbateko distantziara dagoen eta iristeko zenbat denbora behar duten** adieraztea. Adierazi egingo da hurbilen dagoen suhiltzaileen parkea zenbateko distantziara dagoen, eta gutxi gorabehera lantokira iristeko zenbat denbora behar duen.

3. Lantokiaren eraikuntza-ezaugarriak.

Atal honetan honako datuak aipatuko dira:

- Zenbateko azalera duen.
- Zenbateko luzera, altuera eta zabalera dituen.
- Lur arrasetik gora zenbat solairu dituen.
- Lur azpira zenbat solairu dituen.
- Zenbat sektore dituen.
- Eraikinaren egitura:
- **Pilareak** (metalezkoa, hormigoizkoa edo egurrezkoa). Suaren aurrean nola jokatzen duen adierazki behar da (EF).
- **Habeak** (metalezkoa, hormigoizkoa edo egurrezkoa). Suaren aurrean nola jokatzen duen adierazki behar da (EF).
- **Habexkak** (metalezkoa, hormigoizkoa edo egurrezkoa). Suaren aurrean nola jokatzen duen adierazi behar da (RF).
- **Gangatilak** (metalezkoa, hormigoizkoa edo egurrezkoa). Suaren aurrean nola jokatzen duen adierazi behar da (RF).
- **kanpoko eta barruko itxiturak**. Mota eta lodiera adierazi, bai eta suaren aurrean nola jokatzen duen ere (RF).

4. Jarduera.

Enpresaren jarduera zehaztuko da (indarrean dagoen ekonomia-jardueren sailkapen nazionala kontuan har daiteke).

5. Prozesuak.

ekoizpen-prozesuen deskripzio laburra egin behar da, eta arriskua eragin dezaketen prozesuak bereziki azpimarratu.

6. Tresneria eta instalazioak.

Instalazioen ezaugarri nagusiak deskribatuko dira, hala nola:

- Instalazio elektrikoa (hitzartutako potentzia, transformadoreak, hartuneak, banaketa-koadroak).
- Aireztapena (naturala, derrigortua).
- Beroketa (gasaren, elektrizitatearen nahiz bestelakoen bidez).
- Gas sukoien gordailuak.
- Likido sukoien gordailuak.
- Galdarak.
- Konpresoreak.

7. Sektore bakoitzean burutzen den jarduera eta horietan lan egiten duten langile-kopurua.

Atal honetan sektoreak deskribatzen dira, alegia: azalera, langile kopurua eta bertako ohiko langileez gain egon daitekeen kanpoko langile kopurua.

8. Eraikina husteko baldintzak.

Atal honetan, berriz, eraikina husteko baldintzak deskribatzen dira, hala nola:

- Zenbat **eskailera** dauden (eraikina husteko erabil daitezkeenak)
- **Eraikina husteko bide horizontalak** (pasilloen, ateen... zabalera)
- **Irteerak** (eraikinetik, eraikinaren ingurutik... irteteko).

Puntu horri dagokionez, egokia litzateke eraikuntzako oinarrizko araua NBE-CPI 96 (suteei aurre egiteko baldintzei buruzkoa) kontsultatzea, bai eta aplikagarri diren bertako arauak ere (adibidez, Gasteizko Udal Agindua, udalerrria suteetatik babesteari buruzkoa).

9. Organigrama.

Enpresako organigrama adieraziko da orientazio gisa, horrela, larrialdiren bat gertatzen denean, jarduera-organigrama egokitu ahal izango baita.

2. irudia - Enpresa eta horren ingurua nola deskribatu adibide bidez adieraztea

	ENPRESAREN IZENA	LANTOKIA
Identifikaziorako datuak ¹	PLASCOR S.A.	
	Helbidea: Aitzgorri, 40	
	Herria: Zumarraga	
	Probintzia: Gipuzkoa	
	Posta kodea: 20999	
	Telefonoa: 943999999	
	Faxa: 943999999	
	Posta elektronikoa:	
Lantokiaren ingurua eta sarbideak ²	Konfigurazioa	Eraikin industrialia: erabilera horretarako hartzen du eraikin osoa, eta eraikin hori, era berean, beste hainbat erabilera dituzten eraikinei atxikita dago
	Kanpoko sarbideak	Oinezkoentzako sarbideak: bulegoetara daraman sarbidea.
		Ibilgailuentzat sarbideak: lantokira daramana.
	Kanpoko laguntza	Hurbilen dagoen suhiltzaileen parkea: Ordizia
Lantokira iristeko gutxi gorabeherako distantzia eta denbora: 15 minutu.		
Eraikinaren ezaugarriak ³	Eraikinaren dimentsioak	Azalera guztira: 1500 m ²
		Lur arrasetik gora zenbat solairu dituen: bulegoak dauden tarteko solairua (250 m ²). Lur azpira zenbat solairu dituen: sotoa 120 m ²
		Sektore kopurua: sektore bakarra
		Altuera: 6 m.
	Eraikinaren egiturak	Pilareak: metalezkoak
		Habeak: metalezkoak
		Teilatua: metalezko txapa aurrelaketuz egina.
		Kanpoko eta barruko itxurak: anodizatutako aluminiozko arotzeria eta aurrelaketutako metalezko panelez egindako itxituraitsuak.
Jarduera ⁴	Plastikozko erdi egindako produktuak fabrikatzea eta biltegitratzea.	
Prozesuak ⁵	<ul style="list-style-type: none"> • Jarduera: hainbat luzera eta lodierako teflonezko txapen eta zilindroak ebaki eta konformatzea. Eraikinaren zati bat egindako produktuak eta lehengaiak gordetzeko biltegitzat erabiltzen da	

2. irudia (jarraitu egiten du) - Enpresa eta horren ingurua nola deskribatu adibide bidez adieraztea

Ekipoak eta instalazioak ⁶	Instalazio elektrikoa	Hitzartutako potentzia: 250.000 w. Banaketa-koadroak: koadro nagusi bat eta lau azpi-koadro partzial.	
	Airezatzea	Aire girotua instalatzea.	
	Konpresoreak	Aire konprimituaren konpresore eta instalazio finkoa dago.	
	Beste batzuk (labeak...)	3.1500 w-ko sinterizazioko bi labe.	
Jarduera eta langile-kopurua ⁷	Jarduera Sektorea	Azalera	Langile-kopurua
	Bulegoek	250 m ²	6
	Lantegiak	1250 m ²	14
	Guztira:	1500 m ²	20
Eraikina husteko baldintzak ⁸	Eskailera kopurua: Bakarra	Deskripzioa Bulegoetara iristeko ataria pasa behar da.	
	Eraikina husteko bide horizontalak	Deskripzioa Bulegoetan bat. Lantegian bat.	
	Irteerak: Bi	Sektoreko irteerak: Bi	Eraikineko irteerak: Bi
Organigrama ⁹	<pre> graph TD A[Langilea] --> B[Erdi mailako arduraduna] B --> C[Langilea] </pre>		

1.1.2. Baliabideak

3. Irudia - Suteetatik babesteko baliabideak (1)

Baliabideak	Erabilgarritasuna	Gomendioak
Detektatze- eta alarma-sistema	Honako elementuez osatzen da: detektatzeko elementuez, alarmen gailuez eta detektatzeko zentral batez. Oso bide erabilgarria da, sua piztu dela berehala jakinarazten du. Abisuak eta alarmak kudeatzen ditu.	Su-arriskua handia den enpresetan, eta gainera, uneoro langileak daudenetan, ekipo hau izatea gomendatzen dugu. Ekipo horrek sua hasi bezain laster sumatuko du, eta ondorioz, sua itzaltzeko lanetan berehala hasteko aukera eskainiko du.
Su-itzalgailuak	Sute hasieran suari aurre egiteko oso erabilgarria da; baina behin sua guztiz zabaldu denean, erabilgarritasuna galtzen du, baldin eta ez bazaito suari aurre egiten su-itzalgailu asko erabiliz eta antolatuta.	Indartean dagoen legeriaren arabera obligaziozkoak dira. Sor daitekeen sute-motaren arabera aukeratu behar da (A motako sutea: solidoak; B motakoak: likidoak; C motakoak: gasak... Kokapena adieraztea ere garrantzitsua da (egun, lantokietan jartzea beharrezkoa da 485/1997 Errege Dekretuak, laneko segurtasun- eta osasun-seinaleei buruzkoak xedatutakoaren arabera).
Suteetarako ur-hartune hornitua	Sutea hasierako fasearen eta erabateko sutearen artean dagoenean erabilgarria da.	Zenbait kasutan, legeak behartu egiten du ekipatutako suteetako ur-hartuneak jartzea (kontsultatu udal aginduek eta aplikagarri diren araudiak). Lantokiaren (eraikinaren) azalera osoa estali behar du. Garrantzitsua da lantokian zehar non kokatuta dauden behar bezala seinaleztatzea (egun, lantokietan jartzea beharrezkoa da 485/1997 Errege Dekretuak, laneko segurtasun- eta osasun-seinaleei buruzkoak xedatutakoaren arabera).
lhinztagailuak (sprinklers)	Sua hartzeko arrisku handia duten eraikin handietan erabilgarriak dira (biltegiak, salmentarako azalera handiko eraikinak...)	Ur nahikoa dagoela –eta presio aski duena– dagoela egiaziatu behar da, eta egon ezean, ura ponpatzeko ekipo osagarri bat jarri behar da.

Arestian aipatutako baliabide guztientzat balioko duen gomendio bat: Baliabide horien mantentimenduz kreditatutako enpresak arduratzea komeni da (1942/1993 ED, suteen aurka babesteko jarri beharreko instalazioei buruzko Erregelamendua).

3. irudia (jarraitu egiten du) - Suteetatik babesteko baliabideak (2)

Baliabideak	Erabilgarritasuna	Gomendioak
Alarma-sakagailua	Inguruetan dauden langileak ohartarazteko tresna erabilgarria da.	Azalera handiko eraikinetan jaritzea komeni da, bertako langileen artean dagoen tartea handia denean edota larrialdiaz ohartzeko bestelako baliabideak eraginkorrak ez diren edo urrun dauden tokietan.
Alarma-sirena	Eraikin batean daudenei abisu partzialak edo orokorrak emateko balio du.	Azalera handiko eraikinetan jaritzea komeni da, bertako langileen artean dagoen tartea handia denean edota larrialdiaz ohartzeko bestelako baliabideak eraginkorrak ez diren edo urrun dauden tokietan.
Argi bereziak. Larrialdietarako argiak	Eraikinetik jendea ateratzeko erabilgarriak izan ohi dira. Instalazio kritikoak lekuzeko (koadro elektrikoak, ponpatzeko instalazioak, biltegiak...)	Beharrezkoa da baliabide horiek instalatzea. Simulazioetan edota energia-mozketak egitean, nabarmen geratuko da, aurretik jarrita ez badaude behintzat, argi berezi horiek jartzearen beharra.
Etenik gabeko elikadura elektrikoak (Ekipo elektrogenoa, bateria...)	Erabilgarria izan ohi da energia estandarra mozteak pertsontzat, ekipoentzat eta instalazioentzat arrisku erantsia eragiten duten kasuetarako.	Beharra izanez gero, ekipoak zein eremuri eta sistemari eman behar dion zerbitzua sakontasunean aztertu behar da. Gomendagarria da aldizka eremuetan energia-mozketak egitea, horrela egiaztatuko baita ekipoaren sarrera eta funtzionamendua egokiak diren.
Megafonia / Telefonía	Tresna horren bidez, hainbat pertsona edota talde zehatz aldi berean ohartu daiteke; alegia, batera abisa dakieke suteaz, horrela, kasu horretan egin beharreko lana egin dezaten. Kanpoko laguntza ere eska daiteke tresna horren bidez, hala nola: osasun zerbitzuei, suhiltzailei... dei dakieke.	Behar bezala funtzionatzen duen aldizka egiaztatzea gomendatzen da. Komenigarria lizateke etenik gabeko elikadura elektrikoak konektatzea.
Sua itzaltzeko eraikinean zehar jarrita dauden sistemak (CO ² , aparra...)	Suari sortu den gunean aurre egiteko tresna baliagarria izan daiteke, alegia, sua hartzeko arrisku handia duten edota balio handikoak diren instalazio zehatzetan.	Babestu behar den instalazio-motarentzat eta aurreikus daitekeen suterako egokiak diren su-itzalgailuak jarri behar dira. Kontu handiz ibili oxigenoa toki itxietan higitzen duten tresnekin (pertsonek segurtasunerako).
Babeserako baliabide pasiboak (ate suhesiak, sarbideak itxeko gailuak...)	Sua, kea... hedatu ez daitezen tresna baliagarriak dira.	Azalera handiko eraikinetan, instalazio zehatzetan... Segurtasunerako, hesien egituraren egoera aldizka kontrolatzea komeni da.

Arestian alpatutako baliabide guztientzat balioko duen gomendio bat: Baliabide horien mantentimenduz kreditatutako enpresak arduratzea komeni da (1942/1993 ED, suteen aurka babesteko jarri beharreko instalazioei buruzko Erregelamendua).


4. irudia - Lan-istripuetan edota bat-bateko gaixotasun larrietan zaurituari edo gaixoari laguntzeko baliabideak

Baliabideak	Erabilgarritasuna	Gomendioak
Mediku-zerbitzua	Erabilgarritasun handikoa litzateke larrialdiko osasun-zerbitzuak urrun dituen arrisku handiko enpresetan.	Osasun-agintari eskumendunak gaiari dagokionez ezarri dituen xedapenak bete behar dira (306/1999 Dekretua, EAEn larrialdiei aurrea hartzeko zerbitzuek nola jardun behar duten arautzen duena).
Botika-kutxa	Istripu txikiak gertatzen diren enpresetan erabilgarriak dira, lesio arinei laguntza azkarra emateko, alegia.	Lehen laguntzak emateko gai den pertsonala edukitzea. Seinaleen bidez behar bezala adierazi behar da non dagoen. Egoera onean eta garbi mantendu behar da. Aldizka edukia berrikustea komeni da. Ez utzi edonori erabiltzen.
Ohe txikiak	Istripua jasan duena edo gaixoa eraikinetik kanpora eramateko.	Bizkarrezurrean traumatismorik izan dezakeela susmatuz gero, EZ higitu zauritua.
Anbulantzia	Erabilgarritasun handikoa litzateke arrisku handiko enpresa bada, eta larrialdiko osasun-zerbitzuak urrun baditu eta zaurituak ospitalera eramateko garraio bide pribatuak nahiz publikoak lan hori behar bezala betetzen ez badu.	Anbulantzia egoera onean eduki.

5. irudia - Ingurumen-istripu bati aurre egiteko baliabideak

Baliabideak	Erabilgarritasuna	Gomendioak
Xurgatzaile industrialak	Xurgatzaile industriak oso erabilgarriak dira ustekabeko isurketarik gertatuz gero, lurrera edota ubideetara eroritako isuriak lurrazala kutsa ez dezan. Xurgatzaile ugari daude, hala nola: sepiollitak, zerrautsa... Substantzia horiek guztiak likidoak xurgatzeko ahalmen handia dute.	Xurgatzaile egokiak zein izango den jakiteko, aurretik, isurketak zein produktu-mota eragin ditzakeen ezagutzea komeni da. Esaterako, ez litzateke zerrautsa erabiliko sua har dezaketen likidoak xurgatzeko. Kontuan eduki beharreko beste alderdi garrantzitsu bat honakoa da: likido arriskutsu edo toxiko bat xurgatzeko erabilitako xurgatzaile industriala bera ere hondakin arriskutsu bihurtzen dela; eta beraz, hondakin horiek berehala kendu behar dira lantegitik eta indarrean dagoen ingurumenari buruzko legeriak dioenaren arabera kudeatu.
Suteen aurkako langilearen babesgarriak	Langilearen babesgarriak, suteak eragindako ingurumen-istripuaren aurrean jarduteko eta horri aurre egiteko (eskularruak, betaurrekoak, maskarak, babes-jantziak...)	Horrelako egoerak zein produktu-motak eragin ditzakeen hartu beharke da kontuan. Horretarako, produktu bakoitzaren segurtasunerako fitxa aztertu beharke da, eta bertan egiten diren gomendioei eta jarraibideei jarraitzea litzateke egokiena. Nahiz eta fitxak zein babesgarri-mota erabili behar dugun adierazi ez, babesgarriak egokiak aukeratzeko orduan erabilgarri izango zaizkigun irizpideak eskainiko dizkigu.
Ustekabeko isuriak maniatzeko langilearen babesgarriak	Langilearen babesgarriak, isurketak eragindako ingurumen-istripuaren aurrean jarduteko eta horri aurre egiteko (eskularruak, betaurrekoak, maskarak, babes-jantziak...)	Horrelako egoerak zein produktu-motak eragin ditzakeen hartu beharke da kontuan. Horretarako, produktu bakoitzaren segurtasunerako fitxa aztertu beharke da, eta bertan egiten diren gomendioei eta jarraibideei jarraitzea litzateke egokiena. Nahiz eta fitxak zein babesgarri-mota erabili behar dugun adierazi ez, babesgarriak egokiak aukeratzeko orduan erabilgarri izango zaizkigun irizpideak eskainiko dizkigu.
Isuri toxikoak maniatzeko langilearen babesgarriak	Langilearen babesgarriak, igorpenak eragindako ingurumen-istripuaren aurrean jarduteko eta horri aurre egiteko (eskularruak, betaurrekoak, maskarak, babes-jantziak...)	Horrelako egoerak zein produktu-motak eragin ditzakeen hartu beharke da kontuan. Horretarako, produktu bakoitzaren segurtasunerako fitxa aztertu beharke da, eta bertan egiten diren gomendioei eta jarraibideei jarraitzea litzateke egokiena. Nahiz eta fitxak zein babesgarri-mota erabili behar dugun adierazi ez, babesgarriak egokiak aukeratzeko orduan erabilgarri izango zaizkigun irizpideak eskainiko dizkigu.

1.2. LARRIALDIAK IDENTIFIKATZEA ETA TIPIFIKATZEA



Helburua: Kapitulu hau baliagarria izan dakizuke enpresan gerta daitezkeen larrialdiak identifikatzeko. Horretarako, kontuan hartzen da enpresan burutzen den jarduerak dituen arriskuen ebaluazioa. Bestalde, aukera eskainiko dio larrialdiak sailkatzeko, eta horren arabera plangintza eta larrialdiari nola aurre egin prestatzeko.

Edukia:


- a) Arriskuak ebaluatzeko metodologia sinplifikatua.
- b) Larrialdiak tipifikatzeko metodologia.

1.2.1. Arriskuak ebaluatzeko sinplifikatutako metodologia

1.2.1.1. Arriskuak ebaluatzearen konplexutasuna zehaztea

Jarraian agertzen den eskemak jardueraren larrialdi-arriskuak ebaluatzerakoan gutxi gora-behera zer-nolako zailtasunak izango ditugun irudikatzen du. Horrela lortuko da fase hori behar bezala planifikatzea.

6. irudia - Arriskuak ebaluatzen dituen agenteari buruzko erabakien zuhaitza



1.2.1.2. Arrisku industrialak ebaluatzeko sinplifikatutako metodologia

A) Arriskuak atzematea

Fase honetan, enpresak eragin ditzakeen arriskuak atzematen saiatzen dira. Horretarako, enpresan gerta daitezkeen eta kontrako eraginak sor ditzaketen istripuak sailkatuko dira.

Arriskuak atzemateko honako taulaz balia gintezke:

7. irudia - larrialdi-egoerak eragin ditzaketen arriskuen zerrenda (ez osoa)

JARDUERAK BEREZKO DITUEN ARRISKUAK	INGURUNE TEKNOLOGIKOA	INGURUNE NATURALA	GIZARTE-INGURUNEA
Sutea	Trafiko-istripua eta kanpoko garraioa	Uholdeak	Greba
Leherketa	Obretako, eraikuntzako eta azpiegituretako akatsak (erorketak, irristatzeak...)	lur-jauziak, irristatzeak	Sabotajea
Tresneria, hodiak edota biltegitratze- eta hornikuntza-instalazioetako tangak hausteak eragindako ihesak edo/eta isurketak	Enpresaren inguruko industria arriskutsuak	haizeteak	Bidegabe sartzea – lapurretak
Prozesu-instalazioetan gertatuko akatsek eragindako ihesak edo isurketak		Elurteak eta txingor-zaparradak	Atentatuak
Barneko garraioan gertatutako akatsek eragindako ihesa edo/eta isurketa		Tximistak	Suteak nahita eragitea
Akatsak kutsadura arazteko eta kontrolatzeko ekipoetan		Baso-suteak	
Instalazio erradioaktiboan ihesak egotea (kapsuletan sartuta dauden iturrietan edo x izpien ekipoetan)			
Hondakin arriskutsuak behar bezala ez biltegitratzea			
Akatsak plantako operadorean			
Domino-efektua			

Arriskuen azterketa hobeto egituratzeko eta ebaluatu behar diren enpresa gehienak nahikoa sinpleak direnez, PHA (Preliminary Hazard Analysis – Arriskuen Aurretiazko Analisia) ikuspegi metodologikoa aukeratu da.

7. irudiaren formatua jarraituz, kontrako eragina sor dezaketen enpresako jarduera bakoitzari lotutako arriskuak identifikatuko dira. Horretarako, honako datuak aipatu behar dira:

- Arrisku-mota.
- Arriskuaren deskripzioa, azterketa arriskuaren iturburuan edo kausan oinarrituz.
- Arrisku-egoera horrek sortutako kontrako eraginak.

Instalazio industrialaren konplexutasunak arriskuen azterketa sistematikoagoa eskatzen badu, honako tresnez balia zintezke: HAZOP, AMFEC, akatsen zuhaitzak (FTA)... Gerta liteke analisi horiek gaitutako baliabide propioak edo kanpoko baliabide adituak eskatzea.

B) Arriskuaren balioespena

Arriskuaren balioespenak aurreko fasean identifikatutako arriskuei dagozkien kalkulu hauek egiten ditu:

1. Aztertutako arrisku-egoerek sor ditzaketen *kontrako eragin*en irismena edo *ondorioak* zehazten ditu (O –ondorioa–).
2. *Eraginak sortzeko zenbateko probabilitatea* dagoen zehazten du (P –probabilitatea–).
3. Zenbateko arrisku potentziala dagoen kalkulatzeko du probabilitatea eta ondorioak biderkatuz ($P \times O$).

Identifikatutako arrisku-egoerak jazotzeko zenbateko arriskua dagoen kalkulatzeko metodologia bitarra erabiliko da, alegia: $P \times O$ (probabilitatea bider ondorioak). Metodologia hori UNE 81905:1997 EX arauko A eranskinean “Ebaluatze-ko metodo orokorra” izenez deskribatutako metodologiaren oso antzekoa da. Lan-arriskuak ebaluatzeko INSHT erakundeak luze eta zabal dibulgatu du metodo hori.

Arriskua balioesteko metodoan bi aldagaik hartzen dute parte, hala nola:

- a) Larrialdien ONDORIOAK edo kaltearen larritasuna, hau da, sortutako eragina.
- a) Larrialdi-egoerak kalteak eragiteko duen probabilitatea, eta ez, istripua gertatzeko probabilitatea.

ARRISKU-MAILA = PROBABILITATEA X ONDORIOAK

Metodo honek aldagai bakoitzarentzat hiru balore konbinatzen ditu, eta bost arrisku-maila lortzen ditu, alegia: hutsala, onargarria, neurritzkoa, handia eta onartezina.

7. irudia - Arriskuak ebaluatzeko taula

ARRISKUEN EBALUAZIOA		Arg.: Berr. Data:						
EREMUA/SAILA/INSTALAZIOA:		EBALUAZIO-DATA:						
ARRISKUA IDENTIFIKATZEA		ARRISKUEN EBALUAZIOA						
ZK.	ARRISKUA	DESKRIPZIOA (Iturburua/kausa)	ONDORIOAK	P	O	ARRISKU- MAILA	ARRISKUAREN BALIOZTAPENA	PREBENTZIO- NEURRIAK EDOTA ZUZENKETA- NEURRIAK
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				ARRISKUAREN BALIOZTAPENA	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				ARRISKUAREN BALIOZTAPENA	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				ARRISKUAREN BALIOZTAPENA	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				ARRISKUAREN BALIOZTAPENA	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				ARRISKUAREN BALIOZTAPENA	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				ARRISKUAREN BALIOZTAPENA	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				ARRISKUAREN BALIOZTAPENA	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				ARRISKUAREN BALIOZTAPENA	<input type="checkbox"/>
	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>				ARRISKUAREN BALIOZTAPENA	<input type="checkbox"/>

8. irudia - Probabilitatea balioestea

PROBABILITATEA	KONTZEPTUA
Txikia	Kontrako eragina oso gutxitan gertatuko da.
Ertaina	Eragina noizbehinka gertatuko da.
Handia	Eragina askotan edo gehienetan gertatuko da

Probabilitatea kalkulatzeko honako alderdiak eduki behar dira kontuan:

- Ezarritako kontrolerako neurriak eta horien egokitasuna.
- Instalazioek bete behar dituzten legezko baldintzak.
- Kontrolerako neurri zehatzentzat garatutako jarduera egokien araudiak.
- Arrisku-egoeraren maiztasuna zenbaterainokoa izan daitekeen. Las consecuencias previsibles (Impactos Adversos) pueden clasificarse de acuerdo con la siguiente tabla no exhaustiva:

Aurreikus daitezkeen ondorioak (kontrako eraginak) jarraian irudikatzen den taularen arabera sailka daitezke (ez da osoa):

9. irudia - Eragin-motak

SEGURTASUNEAN ETA OSASUNEAN DITUEN ERAGINAK
• Istripu edo gaixotasun arinak.
• Istripu edo gaixotasun larriak.
• Istripu edo gaixotasun oso larriak edo heriotza eragin dezaketenak.
INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINA
• Atmosfera kutsatzea: atmosferara, legeak onartutako mugak gaindituz, substantzia kontzentratu kaltegarriak igortzea.
• Ura kutsatzea: Azaleko uretara (ibaia, aintzira, urtegia, itsasoa) edo lur azpiko uretara legeak onartutako mugak gaindituz, substantzia kontzentratu kaltegarriak igortzea.
• Lurrazala kutsatzea: lurrazalera legeak onartutako mugak gaindituz, substantzia kontzentratu kaltegarriak isurtzea, bertan botaz edo sartuz.
• Habitatak eta ekosistemak kaltetzea.
• Paisaia kaltetzea.
• Makroeraginak: euri azidoa, ozono-geruza agortzea, berotegi-efektua, biodibertsitatea desagertzea.
BALIABIDE MATERIALEN GAIN DUEN ERAGINA
• Instalazioak kaltetzea.
• Produkzioa galtzea.
• Produktua galtzea.
• Merkatua galtzea.
• Eta abar.

Larrialdien ondorioak jarraian aipatzen den modura balioetsiko dira:

10. irudia - Ondorioen balioespena

ONDORIOAK	KONTZEPTUA
Kaltegarri samarra	<ul style="list-style-type: none"> • Azaleko kalteak (ebaki eta kolpe txikiak, hautsak begiak narritatzea), ondoezak eta narritadurak (buruko mina, deserosotasunak). • Ingurumenaren gaineko eragina instalazio industrialeko zati batera mugatzen da. Instalazioaren kanpoaldean, ordea, ez dago ingurumenaren gaineko kalterik. • Kalte materialak, egon litezkeen zehapenak barne, 5 milioi pezeta (30.000 euro) baino txikiagoak izango dira.
Kaltegarria	<ul style="list-style-type: none"> • Urradurak, erredurak, konmozioak, bihurritu garrantzitsuak, haustura txikiak, gorreria, dermatitis, asma, hezurretako eta muskuluetako arazoak, ezgaitasun txikia eragiten duen gaixotasuna. • Ingurumenaren gaineko eragina instalazio industrialaren zati handi batera zabaltzen denean edota instalazioaren perimetroa gainditzen duenean, baina mugatutako hainbat eremutan kalte txikiak eraginez. • Eragindako kalteak konpontzea, egon litezkeen zehapenak barne, 50 milioira (300.000 euro) iris daiteke.
Erabat Kaltegarria	<ul style="list-style-type: none"> • Anputazioak, haustura handiak, toxikapenak, lesio anitzak, lesio oso gogorak, eta bizitza denbora laburrera mugatzen duten minbizia eta beste gaixotasun kronikoak. • Ingurumenaren gaineko eraginek instalazio industrialaren perimetroa gainditzen dute, eta instalaziotik kanpo ere, eremu zabalera hedatzen dira bere eraginak. • Istripu larriak. • Eragindako kalteak konpontzeak, egon litezkeen zehapenak barne, 50 milioi pezetako (>300.000 euro) kopurua gainditzen du.

Ondorioak zehazteko honako alderdiak eduki behar dira kontuan:

- Kontrako eraginak noraino heda daitezkeen, hau da, kaltetutako pertsona eta kaltetutako eremuen kopurua.
- Istripuan nahasi diren substantzien arriskugarritasuna eta toxikotasuna.
- Kontrako eraginak kontrolatzeko aukera.
- Konponketek, isunak eta zehapenak barne, eragin ditzaketen kostuak.

Arriskuaren balioespena egiterakoan, ondorioak, kasu bakoitzaren probabilitatea, eta jarraian azaltzen den irudian jasotzen diren irizpideak hartzen dira kontuan, hala nola:

11. irudia - Arriskua balioesteko matriza

		ONDORIOAK		
		Kaltegarri samarra	Kaltegarria	Erabat kaltegarria
P R O B A B I L I T A T E A	Txikia	Arrisku hutsala (1. maila)	Arrisku onargarria (2. maila)	Neurrizko arriskua (3. maila)
	Ertaina	Arrisku onargarria (2. maila)	Neurrizko arriskua (3. maila)	Arrisku handia (4. maila)
	Handia	Neurrizko arriskua (3. maila)	Arrisku handia (4. maila)	Arrisku onartezina (5. maila)

C) Arriskuaren ebaluazioa

Aurreko fasean balioetsitako arriskuak jarraian azaltzen den irudiko irizpideekin alderatzen dira. Horrek bi helburu ditu: arriskuak kontrolatu behar diren ala ez erabakitzea, eta hartu beharreko ekintzen premia zehaztea.

12. irudia - Arriskuak balioztatzea

ARRISKU-MAILA	BALIOZTATZEA ETA EKINTZA-MAILA
Hutsala	<ul style="list-style-type: none"> Ez du ekintza zehatzik behar.
Onargarria	<ul style="list-style-type: none"> Arriskuen kontrola hobetu beharrik ez dago; baina bestalde, erantzun errentagarriagoak edo hainbesteko zama ekonomikoa eragiten ez duten hobekuntzak aztertzea komeni da. Aldizka, kontrolerako neurriak eraginkorrak izaten jarraitzen dutela egiaztatu beharko da.
Neurritzkoa	<ul style="list-style-type: none"> Arriskua gutxitzeko ahaleginak, eta horretarako egoki irizitako inbertsio zehatzak egin beharko dira. Arriskua gutxitzeko neurriak denboraldi jakin batean ezarri beharko dira. Neurritzko arriskuak guttiz kaltegarriak diren ondorioak badakartzate, gerora, kontrolerako neurriak hobetu behar diren erabaki beharko da. Horretarako kalteen probabilitatea erabiliko da.
Handia	<ul style="list-style-type: none"> Arriskua gutxitu arte ez da hasi behar lanean. Baliteke arriskua kontrolatzeko baliabide asko erabili behar izatea. Arriskua lan zehatz batek eragiten duenean, neurritzko arriskuak konpontzeko behar den denbora-tartean baino denbora gutxiagoan konpontzea komeni da.
Onartezina	<ul style="list-style-type: none"> Arriskua gutxitu arte ez da lanean hasi edo jarraitu behar. Arriskua ezin bada txikitu eskura dauden baliabide guztiak erabilita ere, lan hori egitea eragotzi behar da.


1.2.1.3. Arriskua kudeatzeko orientabideak, eta arriskua desagerrarazteko edo txikitzeo plangintza

Orain arte deskribatu dugun prozesuari jarraituz –eskema bidez adierazita dago hurrengo irudian–, enpresak aukera izan du bertako arriskuak identifikatzeko eta ebaluatzeko. Zentzu horretan, honakoak izango dira larrialdiak eragin ditzaketen egoerak: *neurritzko arrisku-maila dutenak, arrisku-maila handia dutenak eta arrisku-maila onartezina dutenak.*

Hortik abiatuz, enpresak arrisku horiek dituela jakin behar du bai eta arrisku horiek larrialdiak eragin ditzaketela jakin ere. Beraz, arriskuak desagerrarazteko edo gutxitzeko neurriak planifikatu beharko ditu. Arriskuak desagerrarazteko, arriskua eragiten duten kausak ezabatu behar dituzte, hau da, arriskuak. Eta arriskuak gutxitzeko, berriz, arrisku-maila da txikitu behar dutena.

Neurri horiek hartzen badira, identifikatutako larrialdi potentzialak gutxitu edota horien larritasuna txikitu daiteke. Dena dela, horrek ez du esan nahi erabakitako neurri horiek ezartzea erraza denik edota epe laburrean egin daitekeenik.

13. irudia - Enpresako arriskuen kudeaketa



Hurrengo irudiko taulan, enpresako arriskuak kudeatzeko, orientabide gisa, zenbait irizpide aipatzen da.

14. irudia - Arriskua kudeatzeko irizpide orientagarriak

Arrisku-mota (neurritzko mailaren pareko maila edo handiagoa)	Ezaugarriak	Ekintza orientagarriak
Eragotzi daitezkeenak	Epe laburrera eta kostua onargarria izanik	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzenketa-ekintzak gauzatzea. • Arriskuen ebaluazioa eguneratzea.
	Epe ertainera eta epe luzera	<ul style="list-style-type: none"> • Helburuak planifikatzea. • Ezabatzen ez den bitartean, larrialdi-planean larrialdien artean sartuko da. • Behin ezabatzen denean, larrialdi-plana berrikusi eta arriskuen ebaluazioa eguneratu beharko da.
Eragotzi ezin daitezkeenak	Epe laburrera gutxitu daitezke eta kostua onargarria izanik	<ul style="list-style-type: none"> • Zuzenketa-ekintzak gauzatzea. • Arriskuen ebaluazioa eguneratzea.
	Epe ertainera edo luzera gutxitu daitezke	<ul style="list-style-type: none"> • Helburuak planifikatzea. • Gutxitzen ez den bitartean, larrialdi-planean larrialdien artean sartuko da. • Behin gutxitzen denean, arrisku-maila berriaren arabera, larrialdi-plana berrikusi eta arriskuen abaluzioa eguneratuko da. • Zaintza teknologikoa egingo da etorkizunean ezabatzeko.
	Ezin daitezke gutxitu	<ul style="list-style-type: none"> • Larrialdi-planean larrialdien artean sartuko dira. Zaintza teknologikoa etorkizunean arriskua gutxitzeko edo ezabatzeko.

Arriskuak gutxitzeko edo ezabatzeko neurriek honako alderdiak aipa ditzakete:


- Barneko prebentzioa, hau da, arriskuei iturburuan aurrea hartzea (diseinuan).
- Babesa, aktiboa nahiz pasiboa.
- Informazioa eta seinaleak jartzea.
- Prestakuntza.
- Antolakuntza.
- Arriskua kontrolatzeko beste neurri batzuk.

1.2.2. Larrialdiak identifikatzea eta tipifikatzea

Larrialdi-egoerak definitzeko, *NEURRIZKO arrisku-mailaren parekoak nahiz handiagoak* hartuko dira kontuan, bai eta arrisku-maila zehaztugabeak ere (esate baterako, pertsona batek osasunean berehalako kaltea jasatea; izan ere arrisku hori praktikan nekez ebalua daiteke).

Identifikatutako larrialdi-egoerak 15. irudian aipatutako moduan erregistratuko dira.

1.3. ANTOLAMENDU-ESKEMAK



Helburua: Kapitulu honek zure larrialdi-plana egiten lagunduko dizu.

Edukia:

- a) Larrialdi-planeko antolamendu eskemak eta eskema funtzionalak definitzea.
- b) Beharrezko baliabideak zehaztea.
- c) Komunikatzeko bide egokiak aukeratzea.

1.3.1. Larrialdiaren antolaketa funtzionala

Antolaketa funtzionalaren eskemak larrialdi baten aurrean abian jarri beharreko jarduera-mailak islatzea du helburu. 16-19. irudietan, enpresako antolamendu-eskemaren arabera, larrialdi-egoera baten aurrean nola antolatu behar dugun adierazten zaigu. 16. irudian antolamendu-eredua baten eskema orokorra eta osatua irudikatzen da.

Adibideen bidez, larrialdietan egitekoak eta ardurak nola banatu erabakitzeko jarraibideak ematen dira. Adibideekin enpresako antolakuntza eta beharrezkoa den gutxiengo antolakuntza alderatzen dira.


Zure enpresako antolamendu-mota irudikatutakoen artean ez badago, edota hor irudikatutako adibideak aplikatzeari egoki irizten ez badiozu, zeure organigrama propioa egin dezakezu. Baina hori bai, 20. irudian definitutako larrialdietarako egitekoak nahi eta nahi ez bermatu behar dituzu. 21. irudiko taulan, hainbat irizpide orientagarri zerrendatzen da, maila funtzional bakoitzerako beharrezko profila definitzeko baliagarri izan daitezkeen irizpideak, hain zuzen ere.

Antolamendu-maila bakoitzeko arduradunak izendatzeko, egokitzapen-irizpideak aplikatuko dira, eta irizpide horiek, era berean, enpresako profila eta antolamendu-eskemaren arabera aukeratuko dira.


Horrela ezarritako kasuetan, pertsona bakarrak eginbehar bat baino gehiagoren ardurak izan dezake. Horretarako, ordea, honako alderdiak kontuan hartzea komeni da: enpresaren antolamendua, gerta litezkeen larrialdien arrisku-maila eta larrialdi horien ondorioz aurreikus daitezkeen ondorioak.

22-24. irudietan, antolamendu-maila bakoitzari esleitutako egitekoak eta ardurak aipatzen dira. Horretarako, hiru larrialdi-egoera hartu dira kontuan.


16. irudia - Larrialdi-egoeretan jarduteko antolakuntza baten eskema orokorra




17. irudia - Enpresa-antolakuntzaren tipologiari egokitutako larrialdiatarako organigramak (1)



18. irudia - Enpresa-antolakuntzaren tipologiari egokitutako larrialdietarako organigramak (2)



19. irudia - Enpresa-antolakuntzaren tipologiari egokitutako larrialdietarako organigramak (3)



20. irudia - larrialdi-egoeran parte-hartzen duten pertsonen esleitutako egitekoak

Organigrama funtzionala	Bermatu beharreko egitekoak
Larrialdietarako b	Larrialdi-egoeretan arduraren handiena duen pertsona, koordinazio-lanak egingo ditu.
Esku-hartzeetarako burua	Larrialdietarako esku-hartzeak zuzendu eta larrialdietarako buruak emandako aginduak aplikatuko ditu.
Kontrol-taldea	Larrialdi-egoeran pertsona horrengan biltzen da informazio guztia. Kanpoko taldeei berak abisatzen die.
Hasierako esku-hartzeetarako t	Larrialdi-egoerari bukaera emateko edota heda ez dadin, berehala esku hartuko duen edo duten pertsona/ak.
Azken buruko esku-hartzeetarako t	Larrialdi zehatzei aurre egiteko bereziki prestatutako pertsonak, enpresa barnekoak nahiz kanpokoak izan daitezke. Pertsona horiek hasierako esku-hartzeetarako taldeak larrialdia eragin duen kausa kontrolatu eta ezabatu ezin dutenean hartzen dute parte.
Lehen laguntzako taldea	Larrialdiaren ondorioz zaurituari edo zaurituei laguntzeaz arduratzen den/diren pertsona/ak.
Laguntza-taldeak	Taldeei laguntza espezializatua eskaintzeaz arduratzen den/diren pertsona/ak.

21. irudia - Behar funtzional bakoitzak eskatzen duen profila definitzeko irizpide orientagarriak

Beharra	Ezaugarriak	Prestakuntza	Esperientzia
Larrialdia nork zuzentzen duen	Autokontrolerako gaitasuna. Agintzeko gaitasuna. Taldeak koordinatzeko gaitasuna.	Gerta litezkeen larrialdiei aurre egiteko baliabideak eta prozedurak zehaztasunez ezagutzea. Bere gain zein leku, prozesu eta pertsona dauden zehaztasunez ezagutzea.	Simulazioetan esperientzia izatea gomendatzen da.
Esku-hartzea nork zuzentzen duen	Autokontrolerako gaitasuna. Agintzeko gaitasuna. Taldeak koordinatzeko gaitasuna.	Gerta litezkeen larrialdiei aurre egiteko baliabideak eta prozedurak zehaztasunez ezagutzea. Bere gain zein leku, prozesu eta pertsona dauden zehaztasunez ezagutzea.	Simulazioetan esperientzia izatea gomendatzen da.
Hasierako esku-hartzeetarako taldea	Autokontrolerako gaitasuna. Larrialdiari baliabide sinpleekin aurre egiteko gaitasuna.	Larrialdiari aurre egiteko baliabide sinpleen erabileran prestakuntza teoriko praktikoa.	Larrialdiei aurre egiteko erabiliko dituen baliabideen erabileran trebatzea (aldizkako entrenamenduak egitea).
Azken buruko esku-hartzeetarako taldea	Autokontrolerako gaitasuna. Larrialdiari baliabide sinpleez nahiz konplexuez aurre egiteko gaitasuna.	Larrialdiari aurre egiteko baliabide sinpleen eta konplexuen erabileran prestakuntza teoriko praktikoa.	Larrialdiei aurre egiteko erabiliko dituen baliabideen erabileran trebatzea (aldizkako entrenamenduak egitea).
Lehen laguntzako taldea	Autokontrolerako gaitasuna. Zaurituz arduratzeko eta larrialdiak eragindako kalteak eta beharrak ebaluatzeko gaitasuna.	Lehen laguntzatan prestakuntza teoriko praktikoa.	Lehen laguntzetan aldizkako entrenamenduak
Huste-taldea	Autokontrolerako gaitasuna. Pertsonak zuzentzeko gaitasuna. Antolatzeko gaitasuna.	Huste-kasuan zuzendu beharko dituen kokalekuaren, huste-bideen eta pertsona-kopuruaren eta horien ezaugarrien ezagutza zehatza.	Aldizkako simulazioak
Laguntza-taldea	Autokontrolerako gaitasuna.	Espezializazioa	Simulazioak

22. irudia - Larrialdia antolatzea: egitekoak eta ardurak (1. Adibidea)

Larrialdia: sutea, halabeharrezko isurketa...


Esku-hartzen duena	Atzeman	Egiaztatu Aktibatu	Larrialdi -mota adierazi	Larrialdia jakinarazi	Esku-hartzeak	Hustea	Kanpoko laguntza	Larrialdiaren bukaera
Larrialdietarako burua			Adierazi	Agindu		Adierazi		Adierazi
Esku-hartzeetarako burua					Zuzendu			
Kontrol-taldea		Egiaztatze agintzen du		Jakinarazi			Jakinarazi	Jakinarazi
Hasierako esku-hartzeetarako taldea					Lehenengo esku-hartzen dute			
Azken buruko esku-hartzeetarako taldea					Azken buruan esku-hartzen dute			
Lehen laguntzako taldea					Zaurituak daudenean esku-hartzen dute			
Alarma- eta huste-taldea						Jakinarazi eta zuzendu		
Laguntza-taldeak					Laguntzeko ekintza gehigarriak			
Beste edonor	Atzeman dezake	Egiaztatu						

24. irudia - Larrialdia antolatzea: egitekoak eta ardurak (3. adibidea)
Larrialdia: laneko istripua edo bat-bateko gaixotasun larria

Esku-hartzen duena	Atzeman	Egiaztatu Aktibatu	Larrialdi -mota adierazi	Larrialdia jakinarazi	Esku-hartzeak	Hustea	Kanpoko laguntza	Larrialdiaren bukaera
Larrialdietarako burua				Agindu				
Esku-hartzeetarako burua								
Kontrol-taldea				Jakinarazi			SOS Deiak-eri: 112 jakinarazten dio	Jakinarazi
Hasierako esku-hartzeetarako taldea								
Azken buruko esku-hartzeetarako taldea								
Lehen laguntzako taldea			Adierazi		Zuzendu eta esku-hartzen du	Kaltetua eramateko adierazten du		Adierazi
Alarma- eta huste-taldea								
Laguntza-taldea								
Beste edonorAtzeman dezake					Laguntzeko ekintza gehigarriak			

(*) Ez du egiaztatzen beharrik

1.4. JARDUERA-EREDUAK ETA JARDUERA-JARRAIBIDEAK



Helburua: Kapitulu honek larrialdietan jarduteko prozedurak definitzen lagunduko dizu.

Edukia:

- a) Esku-hartzeko prozedura definitzea.
- b) Larrialdi-plana esku-hartzeetarako fitxa zehatzetan zabaltzea.
- c) Larrialdia jakinaraztea.

1.4.1. Larrialdi-egoeretan jarduteko prozedurak

25. irudian, larrialdi-egoeran gauzatzea beharrezko izan daitezkeen jarduerak aipatzen dira.

Erabilgarritasuna: larrialdi batean beharrezko izan daitezkeen jardueren ikuspegi orokorra ematen du.

Nola interpretatu? Segida:

Larrialdia egiaztatzea: larrialdietarako sistema abian jarriko duten alarma faltsuak eragozteko asmoz, beharrezko iritziz gero, larrialdi-egoera egiaztatu beharko da, horrela:

- Larrialdia alarma zuzen bidez adierazten bada (telefono, ahoz... adierazita-koa), berehala jarriko da abian larrialdi-plana.
- Larrialdia alarma-sakagailuz adierazten bada, bitarteko horren bidez alarma faltsu asko jaso ohi bada, larrialdia egiaztatuko da; eta, bestela, larrialdi-plana abian jarriko da.
- Larrialdia alarma automatikoz adierazten denean, larrialdia egiazta egin beharko da.

Esku-hartzea: Larrialdi-egoera egiaztatzen denean, berehala esku hartuko da.


- Sute hasiera bada, hasierako esku-hartzeetarako taldeak (HET) ekingo dio sua kontrolatzeari.
- Larrialdi partziala nahiz orokorra denean, azken buruko esku-hartzeetarako taldeak (AET) esku hartuko du larrialdia kontrolatzeko.

Beste jarduera batzuk: Larrialdiaren bilakaeraren arabera, beste hainbat jarduera ere beharrezkoak izan daitezke.

Pertsonei kalteak eragiteko arriskua badago, lantegia hustea aginduko da. Eba-kuazioa jakinaraztea eta zuzentzea alarma- eta huste-taldeari (AHT) dagokio.


- Zaurituak baldin badaude, horietaz lehen laguntzako taldeak (LLT) arduratuko dira.
- Kanpoko laguntza beharrezkotzat jotzen bada, haien laguntza eskatuko da.

25. irudia - Larraldietan jarduteko prozedura-motak




25a irudia

Emaitza: larrialdi-egoeraren arabera, zein jarduera burutu behar diren jakingo dugu. 25a eta 25b irudietan, bi egoeratan dauden bi enpresen adibideak irudikatzen dira.



25b irudia



1.4.2. Esku-hartzeetarako fitxak. Adibideak

A) 1. Fitxa: SUTEETAN ESKU-HARTZEKO FITXA

KARGUA: KONTROL-TALDEA (Lantokian langilerik ez dago – JAI-EGUNAK)

EKINTZAK

MURRIZTUTAKO ALARMA: — Pertsonalki atzeman du sutea, erronda, atzema-te-gune edo TBKGaren bidez.

— Ahal izanez gero, su-itzalgailuez sua itzaltzen saiatuko da.

— Sua itzali ezin badu edota sua bakarrik itzaltzen ez saiatzea erabaki badu, ezbeharra gertatu den tokia ixten saiatuko da (ateak, leihoak... itxiko ditu) eta istripua alarma orokortzat joko du.

— Lantegian egon litezkeen guztiei jakinaraziko die.

ALARMA OROKORRA:

— kanpoko esku-hartzeetarako zerbitzuei jakinaraziko die (segurtasunerako buruari, esku-hartzeetarako buruari eta eraikineko zerbitzu orokorretako buruari), eta egoeraren berri emango die.

- Suhiltzaileen zain egongo da lantegiko planoak eskuan dituela, eta larrialdia gertatu den tokira eramango ditu.

- Baimendu gabeko ibilgailuei eta beharrezko ez direnei sarbidea ukatuko zaie.

- Kanpoko zerbitzuei bidalitako mezuak gutxienez honako informazioa eta ordena honetan jaso behar du:

Jazoera-lekua.

Larrialdi-egoerak dirauen bitartean eraikin barrukoekin komunikatzeko telefono zenbakia.

Jazoera-mota.

Zauriturik ba al dagoen.

Mediku-zerbitzurik beharko al den.

Zer-nolako ekintzak ari diren burutzen.

B) 2. fitxa: SUTEETAN ESKU-HARTZEKO FITXA

KARGUA: ZERBITZU OROKORRETA KO BURUA

EKINTZAK:

- Eremu jakin batean sutea (ezbeharra) gertatu dela jakinarazten diote.
- Esku-hartzeetarako taldeek arrisku gutxiago izan dezaten, ezbeharra izan den eremuan energia elektrikoa eta gasa mozteko agintzen du.
- Barruko nahiz kanpoko esku-hartzeetarako taldeei beharrezko laguntza eskainiko die.
- Ezbeharrari aurre egin ondoren, baliabide materialak martxan jarrai dezaten arduratuko da.

C) 3. fitxa: SUTEETAN ESKU-HARTZEKO FITXA

KARGUA: HASIERAKO ESKU-HARTZEETARAKO TALDEKO KIDEA – HET

EKINTZAK:

PREBENTZIOZKOAK:

- Egiaztatu egunero zure ardurapeko eremuko larrialdietarako atea eta irteerak (pasilloetan trabarik ez dagoela, giltzez itxitako aterik eta irteerarik ere ez...).
- Egiaztatu laneguna bukatzen duzunean, tresna elektrikorik ez dela alferrik konektatuta geratu (ordenagailuak, fotokopiagailuak, soldatzeko ekipoak...).

ALARMA MURRIZTUA:

Ezbeharrak zure ardurapeko eremuan:

- Sumatutako edozein sute-hasieraren berri jakinaraziko diozu kontrol-taldeari telefonoz, alarma-sakagailuz nahiz ahoz.
- Kontrol-taldeak emango dio larrialdiaren berri alarma automatikoz edota ahoz, eta ahal bezain azkar ezbeharrak gertatu den tokira hurbilduko da, bidean jaso ditzakeen su-itxalgailuak berekin harturik.
- Eremuko arduraduna ezbeharraren tokira berehala iristen ez bada, hurbilen duen su-itxalgailua hartuko du eta hasi berria den sua itzaltzen saiatuko da (egiaztatu itzali beharreko elementuari argi-indarra kendu zaiola). 6 KILOKO HAUTSEZKO SU-ITZALGAILUAK 12-16 SEGUNDO IRAUTEN DITU. BERAZ, EZ ALFERRIK ERABILI SU-ITZALGAILUA. EZ ARITU INOIZ BAKARRIK.
- Ezbeharrari aurre egingo dio.
 - Esku-hartzeetarako buruak egoki irizten badio, hurbilen dagoen suteetako ur-hartuneaz baliatuko da (GUTXIENEZ TALDEKO BI KIDEK BURUTU BEHAR DUTE JARDUERA HORI).
 - Eremuko arduraduna azaltzen denean, horren aginduetara jarriko da.

Ezbeharrak beste eremu batean

- Eremu hori hustu behar bada ere, prebentzio gisa, dagozkion irteeretara joan behar du.
- Hustea gauzatuko den irteeretarako bideetan trabarik ez dagoela egiaztatu behar du.
- Eremuko arduradunaren aginduen zain geratu.

ALARMA OROKORRA (ezbearra norberarena ez den eremuan):

- Behin bere eremua hustu ondoren, bere laguntza behar badute ere kontrol-taldera hurbilduko da.
- Segurtasunerako eta esku-hartzeetarako buruak emandako aginduak beteko ditu (ezbearra gertatu deneko esku-hartzeetarako taldeei lagundu...).

D) 4. fitxa: SUTEETAN ESKU-HARTZEKO FITXA

KARGUA: AZKEN BURUKO ESKU-HARTZEETARAKO TALDEKO KIDEA – AET

EKINTZAK:

EZBEHARRA KONTROLATZEKO GAI IZAN EZ DEN ESKU-HARTZEETARAKO TALDEARI LAGUNDUKO DIOZU- JARRI ARRETA BEREZIA ESKAINI DIEZAZ-KIZUEKETEN INFORMAZIOARI.

PREBENTZIOZKOAK:

- Egiaztatu egunero zure ardurapeko eremuko larrialdietarako atea eta irteerak (pasilloetan trabarik ez dagoela, giltzez itxitako atetik eta irteerarik ere ez...).
- Egiaztatu laneguna bukatzen duzunean, ez dela tresna elektrikorik alferrik konektatuta geratu (ordenagailuak, fotokopiagailuak, soldatzeko ekipoak...).

1., 2., ... MAILAKO LARRIALDIA:

- Kontrol-taldearen eskutik edota ahoz jasoko du larrialdiaren berri, eta ahal bezain azkar ezbeharraren gertatu den tokira hurbildu behar du, bidean jaso ditzakeen su-itxalgailuak berekin harturik.
- Egoeraren berri eremuko HETen bitartez emango da (erregai-moten, burutu diren ekintzen, egon litezkeen arriskuen... berri).
- Eremuko arduraduna ezbeharraren tokira berehala iristen ez bada, larrialdiari aurre egiten hasiko da. **EZ ARITU INOIZ BAKARRIK.**
- Ezbeharrari aurre egingo dio.
- Esku-hartzeetako buruak egoki irizten badio, hurbilen dagoen suteetarako ur-hartuneak erabiliko dira (GUTXIENEZ TALDEKO BI KIDEK BURUTU BEHAR DUTE JARDUERA HORI).
- Eremuko arduraduna azaltzen denean, horren aginduetara jarriko da.
- Kanpoko esku-hartzeetako zerbitzuak iristen direnean, horiei lagundu beharko die. Egoera zein den azalduko zaie, bai eta zein ekintza burutu diren eta zein material behar daitezkeen ere.
- Behin sua itzali denean, sua berriz ez pizteko ingurua zaintzeaz arduratuko den laguntza-taldeko kide izango da.

E) 5. fitxa: SUTEETAN ESKU-HARTZEKO FITXA

KARGUA: LANTEGIKO LANGILEAK OROKORREAN (arrisku handiko lanpostuetan lan egiten duten langileek fitxa propioa edukitzea komeni da).

EKINTZAK:

PREBENTZIOZKOAK:

- Erabili hautsontziak. Baimendutako eremuetan soilik erre.
- Bero handia botatzen duten guneak ez hurbildu erretzeko gai diren materialetara.
- Ez gainkargatu entxufeak edo energia-hartuneak. Zalantzarik izanez gero, galdetu mantenimenduko arduradunari.
- Laneguna amaitzean, ikuskatu bakoitzak erabiltzen duen lan egiteko tokia, ez utzi piztuta makinarik edota beharrezko ez diren ekipo elektrikorik.

SUA AURKITUZ GERO:

- EZ GALDU PATXADA, EZ EGIN DEIADARRIK. Larrialdi-egoeretarako dagoen antolakuntzak lagunduko dizu.
- Abisatu eremuko arduradunari (hurbilen duzun alarma-sakagailu bidez, kontrol-taldeari deituz...)
- Sua itzaltzeko su-itzalgailuak aski direla ikusiz gero, saiatu sua amatatzen, baina hori bai, *alferrikako arriskurik ez hartu eta su-itzalgailuen funtzionamendua ezagutzuz gero soilik saiatu.*
- Ezbeharraren tokira berehala hurbilduko den esku-hartzeetarako taldeak emandako jarraibideei jarraitu. Talde hori bertaratuko ez balitz, irten ezbeharraren tokitik.
- Ez jardun bakarrik, eta ez saiatu heroiarena egiten.
- Eraikina husteko aginduz gero, ez eztabaidatu eta deskonektatu erabiltzen ari zaren makina (fotokopiagailua, ordenagailuak soldatzeko ekipoak...), arriskurik sor ez dezaten.
- Irten inguru horretatik, baina korrika hasi gabe. Esku-hartzeetarako taldeek eta seinaleek adieraziko dizute non dagoen irteera.

ERAIKINA HUSTEKO AGINDUZ GERO:

- Deskonektatu tresna elektrikoak, sua har dezaketenak, gasa erabiltzen dutenak, eta “egoera seguruan” utzi lanerako erabiltzen duzun tokia.
- Eremuko arduradunak eta esku-hartzeetarako taldeek emandako aginduak jarraitu, edo bestela, larrialdietarako ezarritako seinaleei egin kasu.
- Irten eraikinetik ahal bezain laster, baina korrika hasi gabe.
- Behin eraikina husten ari bazara, ez itzuli gauza pertsonalen bila, ez saiatu autoa edo beste zenbait gauza sototik ateratzen, eta **EZ ERA-BILI IGOGAILUA.**
- Irten eraikinetik eta _____ amokatutako elkargunera abiatu oinez.

F) 6. fitxa: ESKU-HARTZEETARAKO FITXA (Aurrealdea)

LANTEGIA SA ENPRESAKO LANGILEENTZAT ESKU-HARTZEETARAKO FITXA		1. berr. 2001-01-09
EDOZEIN KASUTAN	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Edozein ezbeharren berri kontrol-taldeari eman ahoz (oharrak hartzeko telefonogunera), alarma-sakagailuaren bidez nahiz barmeko telefono bidez. <input type="checkbox"/> Larrialdietarako eta esku-hartzeetarako buruak emandako aginduak bete. <input type="checkbox"/> ALFERRIKAKO ARRISKURIK EZ HARTU. 	
SUA atzeman baduzu	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Sua kontrolatzeko edo/eta itzaltzeko, su-izalgailuez baliatu, BAINA ALFERRIKAKO ARRISKURIK HARTU GABE ETA SU-ITZALGAILUEN FUNTZIONAMENDUA EZAGUTZEN BADA SOILIK. <input type="checkbox"/> Sua itzaltzeko modurik ez badago, ALDE TOKI HORRETATIK, eta ahal bada, suari mugak jartzen saiatu (leiholak eta ateak itxi). <input type="checkbox"/> CO₂ duten su-izalgailuak erabiliko dira BETI su elektrikoa sortzen denean edota asko balio duten ekipoez hartzen dutenean su. ABC hautsezko su-izalgailuak (6 k) 12-16 segundo irauten dituzte. <input type="checkbox"/> Larrialdietarako eta esku-hartzeetarako buruak horrela agindutakoan soilik erabili ahal izango dituzu suteetarako ur-hartuneak, baina gutxienez BI LAGUNEN artean jardun behariko duzue. <input type="checkbox"/> ARGI-INDARRA KENDU GABE DUTEN TRESNETAN SORTUTAKO SUA ITZALTZEKO EZ DA INOIZ URA ERABILI BEHAR. 	
ISTRIPUREN BAT EDO BAT BATEKO GAIXOTASUNA atzeman baduzu	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Zaurituak konorterik galdu ez badu, zauritua lasaitzen saiatu, eta LANTEGIA SAKO bitartekoan bidez lagundu. <input type="checkbox"/> Kalte larriren bat izan dezakeela uste izanez gero, ETA NOLA EGIN JAKIN EZEAN, zauritua ez higitu. Berehalako arriskuren bat sumatutakoan soilik higitu behar da zauritua, eta egoera seguruagoan jarri. <input type="checkbox"/> Zaurituak kalte arina jasan arren, lantokian zaurituari laguntzeko bitartekorik ez badago, kontrol-taldeari deitu. Kontrol-taldea arduratuiko da zauritua Gojain industrialdeko MUTUARA eramateaz (lan egunetan 11:00 arte zabalik) edo MUTUA klinikara eramateaz (Gasteizko Tomas Zumarraga Dohatsuaeren kalea). <input type="checkbox"/> KALTEA LARRIA BADA EDO LARRIA IZAN DAITEKEELA USTE IZANEZ GERO, jakinarazi BEREHALA kontrol-taldeari, horrek kanpoko laguntza eska dezan (SOS deiak – 112) eta zauritua ospitalera eraman dezaten. 	
ALARMAK jotzen badu	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Kontrol-taldearen aginduen zain geratu. <input type="checkbox"/> Prest egon eraikina edo horren zati bat hustu behar bada ere. 	

LANTEGIA SA ENPRESAKO LANGILEENTZAT ESKU-HARTZEETARAKO FITXA		1. berr. 2001-01-09
Eraikina edo horren zati bat HUSTEA agintzen bada	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> AHAL DUZUN GUZTIETAN, tresna elektrikoak (fotokopiagailua, ordenagailua labea...) eta gasa erabiltzen duten tresnak deskonektatu, horrela, "EGOERA SEGURUAN" utziz. <input type="checkbox"/> Eraikinetik BEREHALA BAINA KORRIKA HASI GABE irten. Larraldietarako seinaleek adieraziko dizute irteera nondik den. <input type="checkbox"/> Eraikina husten den bitartean, EZ ITZULI gauza pertsonalen bila, ez eta beste lagunen bila ere, eta IBILGAI-LUEN APARKALEKUAN kokatutako ELKARGUNERA zuzendu. <input type="checkbox"/> Horretarako izendatutako langileek, eta horien faltan, sailtako buruek zuzenduko dute BEREN ARDURAPEKO EREMUKO langileen husteak. Behin elkargunera iristen direnean zenbatuko dira eraikinetik ateratako langileak. <input type="checkbox"/> INGURUMENEAN KALTEAK sortu badira (atmosfera kutsatzea, hondakinak, isurketak...), edota ERRADIAZIOA KONTROLATZEKO hainbat jarduera beharrezko bada (stripuak ikertzea...), kudeaketa-sistemako prozeduretara kasu horietarako aurreikusitako sistematika jarraituko da. 	
LARRALDIAREN ONDOREN		

F) 6. fitxa: ESKU-HARTZEETARAKO FITXA (Atzealdea)

<p style="text-align: center;">LANTEGIA SA ENPRESAKO LANGILEENTZAT ESKU-HARTZEETARAKO FITXA</p>	<p style="text-align: center;">1. berr. 2001-01-09</p>
<p>PREBENTZIOZKO AK</p>	<ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Erabili hautsontziak. Baimendutako eremuetan soilik erre. <input type="checkbox"/> Erratsak eta bukatutako produktu kimikoen ontziak ez bota zakarrontzira. <input type="checkbox"/> Bero handia botatzen duten guneak ez hurbildu erretzeko gai diren materialetara. <input type="checkbox"/> Ez gainkargatu energia-hartuneak. Zalantzarik izanez gero, galdetu mantentze-lanetako arduradunari. <input type="checkbox"/> Erabili kontu handiz produktu kimikoak, batez ere ezaugarri arriskutsuak dituztenak. <p>ZURE ARDURAPEKO EREMUAN egiaztatu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Larrialdietarako ekipoen egoera (su-itzalgailurik falta den, su-itzalgailu akastunik ba al dagoen, suteetarako ur-hartuneetan presio aski dagoen, puskatutako sakagailuak...) <input type="checkbox"/> Larrialdietarako ateen eta irteeren egoera (ateek trabaturik dauden, giltzez itxirik...) <input type="checkbox"/> Botika-kutxaren egoera eta edukia. <input type="checkbox"/> Larrialdietarako irteeretan, eraikina hustu behar izanez gero, inolako oztoporik dagoen. <input type="checkbox"/> Lan-eguna bukatutakoan tresna elektrikorik (ordenagailuak, laborategiko ekiporik...) alferrik deskonektatu gabe geratu ote den. <p>Lantokian larrialdietarako baliabideetan nolabaiteko akatsen bat sumatuz gero, jakinarazi BEREHALA mantentze-lanetako arduradunari.</p>

1.4.4. Komunikazioa

26. irudian, larrialdietan egoera hori nola jakinarazi adierazten duen eskema agertzen da.

Erabilgarritasuna: larrialdi-egoeretan erabili beharreko jakinarazpenen antolamenduaren ikuspegi osoa eskaintzea.

Nola interpretatu? Segida:

Larrialdia jazo den lekuko *hasierako esku-hartzeetarako taldeak*, lehenik eta behin, egoera zein den ezagutu behar du, nahiz zuzenean nahiz larrialdia jazo den inguruko pertsona baten edo askoren bitartez.


Larrialdia kontrolatzeari dagokionez inolako zalantzarik izanez gero, larrialdietarako buruari jakinaraziko zaio zuzenean nahiz kontrol-taldearen bitartez (egonez gero).

Larrialdietarako buruak beharrezko barneko/kanpoko jakinarazpenen arabera emango ditu aginduak. Jakinarazpenak mugatuak (antolamenduko zenbait pertsonentzat soilik) edo orokorrak izan daitezke (eremu edo eraikin osoarentzat).


Emaitza: jakinarazpenen segida orokorra lortuko da, eta komunikatzeko zein bitarteko erabil daitezkeen adieraziko da.

26a. eta 26b. irudietan, hainbat egoera zehatzetarako balio duten jakinarazpenen adibideak adierazten dira.


26. irudia - larrialdia jakinarazteko antolakuntza



26a. irudia



26b. irudia




Protocolo de comunicación a SOS Deiak

SIEMPRE que se solicite Ayuda Externa a SOS Deiak 112 se seguirá el siguiente protocolo.

Está llamando la empresa (<i>Nombre de la empresa</i>), situada en (<i>Dirección del centro de trabajo</i>), desde el teléfono (<i>Número de teléfono</i>)	
SE HA PRODUCIDO	<input type="checkbox"/> Un incendio <input type="checkbox"/> Una fuga/derrame (<i>Indicar si es posible el producto y la cantidad</i>) <input type="checkbox"/> Una explosión <input type="checkbox"/> Una inundación <input type="checkbox"/> Otros
EN	<input type="checkbox"/> Área de oficinas <input type="checkbox"/> Área de <input type="checkbox"/> Área de <input type="checkbox"/> Área de <input type="checkbox"/> Área de almacenamiento
AECTA A	<input type="checkbox"/> Depósitos exteriores <input type="checkbox"/> Almacenamiento de botellas <input type="checkbox"/> <i>Señalar otros puntos vulnerables</i>
HAY/NO HAY HERIDOS (Cuántos)	<input type="checkbox"/> Atrapados <input type="checkbox"/> Quemados <input type="checkbox"/> Traumatizados <input type="checkbox"/> Intoxicados
HA TENIDO LUGAR A LAS	<input type="checkbox"/> Hora de inicio del incidente
LOS EFECTOS PREVISTOS SON	<input type="checkbox"/> Humo <input type="checkbox"/> Vapores tóxicos <input type="checkbox"/> Atmósferas explosivas <input type="checkbox"/> (<i>Indicar modo de afección</i>)
PUEDA AFECTAR A	<input type="checkbox"/> Empresas vecinas <input type="checkbox"/> Viviendas <input type="checkbox"/> (<i>Alcance a vulnerables próximos</i>)
EN LA INSTALACIÓN ESTAN	<input type="checkbox"/> Nombre del responsable <input type="checkbox"/> Número de personas <input type="checkbox"/> Actuación de los equipos de intervención propios
LAS CONDICIONES AMBIENTALES SON (Si son determinantes para el tipo de accidente)	<input type="checkbox"/> Intensidad y dirección del viento <input type="checkbox"/> Precipitación.

2. LARRIALDI-PLANA EZARTZEA, MANTENTZEA ETA HOBETZEA



Helburua: kapitulu honek zure larrialdi-plana ezartzen lagunduko dizu, baita planaren berrikuspena behar bezala kudeatzen eta eguneratzen ere.

Edukia:

a) Plana ezartzeko programa

2.1. LARRIALDI-PLANA EZARTZEKO PROGRAMAREN ADIBIDEA


27. irudia - Larrialdi-plana ezartzeko planaren adibidea

PLANA EZARTZEKO PROGRAMA						
Zk.	Itema	Jarduerak	Hasierako data	Bukarako data	Baliabideak (pta.)	Arduraduna
1	Larrialdi-plana egitea (LP)	<ul style="list-style-type: none"> Enpresa eta horren ingurua deskribatzea. Larrialdi-egoerak. Larrialdia antolatzea. Jarduera-prozedurak. 	2000-1-15	2000-2-15	1.000.000	Alfonso Urizar (Ingurumen eta Prebentziorako koordinatzailea)
2	Proposatutako zuzenketa-neurriak ezartzea edota prebentziozkoak	<ul style="list-style-type: none"> Norberaren babes-neurriak egokitzea. Arrisku-guneak husteko argiak eta segurtasuneko argiak egokitzea. Norberaren babeserako instalazioak eta ekipoak egoera onean mantentzeko plana. Segurtasunerako instalazioak eta ekipo kritikoak egoera onean mantentzeko plana. 	2000-2-15	2000-8-31	2.000.000	Ernesto Balza (Mantenimenduko burua)
2	Barne-larrialdietarako planari buruzko informazio orokorra eta hori hedatzea	<ul style="list-style-type: none"> Enpresako maila guztietan (kontratak eta bisitan etorritakoak barne) informazio-satoak. Esku-hartzeetarako fitxa pertsonalizatuak egitea. Kontrata eta bisitan etorritakoentzat oinarritzko jarraibideak prestatzea. LPren kopia bidaltzea kanpoko laguntza-taldeetara eta laguntza-hitzarmenak dituzten enpresetara. Bisita kanpoko laguntza-zerbitzuak eskaintzen dituen enpresara 	2000-2-15	2000-5-31	1.000.000	Alfonso Urizar (Ingurumen eta Prebentziorako koordinatzailea)

27. irudia (jarraipena) - Larrialdi-plana ezartzeko adibidea

PLANA EZARTZEKO PROGRAMA						
ZK.	itema	Jarduerak	Hasierako data	Bukarako data	Baliabideak (pta.)	Arturadunak
3	Langile guztiak prestatzea	<ul style="list-style-type: none"> • Antolakuntzako maila desberdinetarako prestakuntza-plana egitea • Prestakuntza-jarduerak mailaka abian jartzea • Prestakuntza aldizka eguneratzea 	2000-2-15	2000-8-31	5.000.000	Felipe Canto (prestakuntza-arduraduna)
4	Entrenamendua eta simulazioak	<ul style="list-style-type: none"> • Urteko entrenamendu eta simulazioen plana egitea • Entrenamendu-jarduerak abian jartzea • Aldizka simulazioak egitea • Simulazioen eta lantokian jazotako larrialdien erregistroa eta horiei buruzko azterketak eta txostenak 	2000-9-1	2000-12-31	3.000.000	Alfonso Urizar (Ingurumen eta Prebentziorako koordinatzailea)
5	Larrialdiak kudeatzeko sistema ezartzea	<ul style="list-style-type: none"> • LP egiteko eta eguneratzeko prozedurak prestatzea • Prozedura ezartzea 	2000-2-15	2000-12-31	1.000.000	Alfonso Urizar (Ingurumen eta Prebentziorako koordinatzailea)

2.2. PLANA MANTENTZEKO ETA HOBETZEKO IRIZPIDEAK



Helburua: kapitulu honek zure larrialdi-plana mantentzen, eguneratzen eta hobetzen lagunduko dizu.

Edukia:

- a) Barne-larrialdietarako plana mantentzeko, eguneratzeko eta hobetzeko prozedura

2.2.1. Procedimiento tipo para la gestión de emergencias

LANTEGIA SA	PROZEDUREN ESKULIBURUA	<i>Prozedura-kodea</i> <i>Arg.:</i> <i>Berr.:</i> <i>Or.:</i>
Izenburua: LARRIALDI-PLANA EGITEKO, HEDATZEKO, BERRIKUSTEKO ETA MANTENTZEKO PROZEDURA		

AURKIBIDEA

1. Helburua.
2. Irismena.
3. Erreferentziak.
4. Definizioak
5. Ardurak.
6. Deskripzioak.
7. Banaketa eta agiritegian gordetzea.
8. Eranskinak.

Berr.	Data	Aldaketak	Or.
Egilea:	Berrikuspena:	Onarpena:	Data

1. HELBURUA

Prozedura honen helburua honakoa da: larrialdi-plana (LP) egiteko, berrikusteko, hedatzeko eta eraginkorra izaten jarrai dezan beharrezko sistematika ezartzea. Horrek ahalbidetuko du “LANTEGIA SA” enpresan sor daitezkeen larrialdi-egoerei erantzun eraginkorra eta azkarra ematea. Horrela, pertsonak, instalazioek eta ingurumenak jasan ditzaketen istripu larrien kalteak prebenitzen eta, behin gertatuz gero, ahalik eta txikienak izan daitezen saiaturiko da.

2. IRISMENA

Prozedura hori “LANTEGIA SA” enpresako jarduera guztiei, prozesuei eta instalazioei aplikatuko zaie.

3. ERREFERENTZIAK

- Kudeaketa-eskuliburu integratua.
- UNE-EN ISO 14.001 Araua.
- OHSAS 18001 Araua.

4. DEFINIZIOAK

- *Istripu larria*: prozedura horri dagokionez, istripu larria izango da “LANTEGIA SA” enpresako kontrolik gabeko industria-jardueraren ondorioz sortutako edozein jazoera (igortzea, ihesa, isurketa, sutea, leherketa...). Beti ere, kontrolik gabeko jarduera horrek pertsonengan, lantokiko instalazioetan edota ingurumenean zuzeneko nahiz zeharkako kaltea eragin badezake.
- *Perila*: kalteak eragiteko gai den egoera edo iturria, hala nola: lesioak, kalteak jabetzan, kalteak ingurumenean edota horiek guztiak batera.
- *Arriskua*: arriskua eragiteko probabilitatearen eta gertaera horren ondorioek izan dezaketen garrantziaren emaitza.
- *Kaltea*: istripu larri batek zuzenean edo zeharka nahiz berehala edo gerora honako ondorioak eragiten dituenen: heriotzak, lesioak, kalte materialak edota ingurumenaren gaineko kalteak.
- *Larrialdi-plana (LP)*: agiri bat da, eta bertan “LANTEGIA SA” enpresan istripu larri bati aurrea hartzeko eta horrek instalazioetan –eta ahal izanez gero, lantoki kanpoan– eragin ditzakeen kalteak ahalik eta gehien arintzeko jarduerak, neurriak, prozedurak eta horien guztien antolamendua jasotzen da.
- *Simulazioa*: larrialdi-plana zati batean edo osotasunean abian jartzea simulatuko da. Horrekin, plan horretan parte hartu behar duten pertsonak nolako arintasunez erantzuten duten egiaztatu nahi da, bai eta babeserako neurrien funtzionamendua eta eraginkortasuna ere. Era berean, aurreikusitako prestazioei dagokionez, planak duen eraginkortasuna egiaztatu nahi da; eta horren harian, hartu beharreko zuzenketa-neurriak edota plana berrikustea erabakiko da.

5. ARDURAK

Prozedura honetan esleitutako ardurak 5. atalean adierazten dira. Bestalde, larrialdi-egoeretan antolakuntzaren jarduera-moduari dagokionez, ardurak "LANTEGIA SA" enpresako larrialdi-planean definitzen dira.

6. DESKRIPZIOA

"LANTEGIA SA" enpresak bertako industria-jardueretan gerta daitezkeen istripu-arriskuak identifikatzen eta ebaluatzen ditu, eta horren harian, istripu horiek prebenitzeko beharrezko neurri teknikoak eta antolakuntzazko neurriak ezartzen ditu. Neurriak hartu arren, arrisku-egoera sor daiteke, eta horrek, pertsonengan, instalazioetan edota ingurumenean kalteak sor ditzakeen istripua eragin dezake. Istripuren bat gertatuko balitz, antolakuntzak kasu horietarako aurreikusitako prozedurak azkartasun eta eraginkortasun handiz gauzatu beharko ditu. Dena dela, aipatutako prozedura horiek (LP) aurretik probatuta egon ohi dira; horretarako egiten dira, hain zuzen ere, simulazioak. Larrialdi-planak larrialdien ondorioei aurrea hartzea edo horiek arintzea du helburu.

"LANTEGIA SA" enpresako larrialdi-planak larrialdi-egoeretarako antolamendu-egitura, baliabide pertsonalak nahiz materialak, eta jarduera-prozedurak definitzen ditu.

"LANTEGIA SA" enpresako larrialdi-plana bertako langile guztiek ezagutzen dute, eta aldizka horren funtzionamenduari buruzko probak egiten dituzte. Larrialdi-planean ardurak dituzten langileek eurei dagozkien jarduerak gauzatzeko beharrezkoa den prestakuntza dute.

6.1. Larrialdi-plana egitea eta horren edukia

Larrialdi-plana egiteko, aurretik honako urratsak eman behar dira: "LANTEGIA SA" enpresako jardueren eta instalazioen arriskuak modu sistematikoan eta dokumentatuan identifikatzea eta ebaluatzea, eta jazo daitezkeen istripu-zerrenda batean adieraztea.

Arriskuak aztertzeke eta ebaluatzeke, kasuan kasu, tresna sinpleak eta tradizionalak erabiltzen dira (arriskuen aurretiazko azterketa, istripuen azterketa historikoa, Check-List...); eta azterketaren konplexutasunak horrela eskatzen duenean soilik erabiliko dira gehiago landutako metodologiak (AMFEC, akatsen zuhaitzak...).

Azterketa- eta ebaluazio-prozesuetan, bestalde, honako alderdiak hartzen dira kontuan: instalazio-motak, instalazio bakoitzeko jarduera-motak (makinak mar-txan jartzea, gelditzea, mantenimendua...) eta kontuan hartu beharreko arriskuak (barnekoak, kanpokoak, efektu sinergikoak eta domino-efektua...).

Arriskuen azterketa lan-talde batek egiten du, eta, gutxienez, honakoek osatzen dute: kalitaterako, ingurumenerako eta segurtasunerako zuzendariak; saileko edo sailtako arduradunek eta lantokiko zuzendariak edo delegazioz horren kargua betetzen duenak. Talde horrek berak, egiten du larrialdi-plana, arriskuen azterketa kontuan hartuz eta 6.1. ataleko edukien arabera.

Larrialdi-planak, gutxienez, honako alderdiak landu behar ditu:

1. Enpresa eta enpresa-ingurua deskribatzea.
2. Larrialdi-plana abian jarriko duten larrialdiak identifikatzea.
3. Larrialdiaren antolaketa: zuzendaritza, arduradunen katea, mailen arteko komunikazioa, interfasea eta kanpoko laguntza-zerbitzuekin (SOS Deiak 112, suhiltzaileak, anbulantziak, eskumendun agintariak) komunikatzeko bideak.
4. Kontuan hartutako larrialdi bakoitzari dagozkion jarduera-prozedurak: larrialdia zein baldintzatan hasi eta bukatu zen, antolakuntzako maila bakoitzak jarduteko duen ahalmena eta burutu beharreko ekintzak.

Kalitaterako, ingurumenerako eta segurtasunerako zuzendariak berrikusten du larrialdi-planaren bukaerako agiria, eta agiri hori zuzendari-gerenteak onartzen du.

6.3. Hedapena eta prestakuntza

“LANTEGIA SA” enpresako langileek, enpresa horrentzat lan egiten duten kontratek eta bisitan etorritakoek, gerta litezkeen larrialdi-egoeren aurrean nola jokatu behar duten adierazten dieten dokumentazio pertsonalizatua eta eguneratua dute. Larrialdietan parte hartuko duten kanpoko erakundeek ere (SOS Deiak 112, suhiltzaileek...), alderdien artean adostutako informazioa eskura dute. Agiri horren hedapena PI 029 “kanpoko eta barneko komunikazioa” agiriaren arabera egingo da.

Planoak atezaindegian horrexetarako suaren kontrako armairuan gordeko dira, eta suhiltzaileek armairu horretako giltzen kopia bat dute beren esku.

Larrialdi-planean ardurak dituzten langileen prestakuntza “LANTEGIA SA” enpresaren prestakuntza-planean aurreikusten da, PI 006 “prestakuntza-kudeaketa” atalean deskribatutako moduan.

6.4. Larrialdi-planaren simulazioak

Larrialdi-plana zati batean edo osotasunean abian jartzeak, bertan aurreikusitako prestazioen erabilgarritasuna eta egokitasuna egiaztatzeko aukera ematen du. Eta horren harian, behar izanez gero, hartu beharreko zuzenketa-neurriak edota plana berrikustea erabakiko da.

Kalitaterako, ingurumenerako eta segurtasunerako zuzendariak simulazioak zenbatean behin egingo diren ezartzen du plan batean, eta larrialdi-plana abian jartzeko beharrezko jarduerak koordinatzen ditu.

Bi urtetik behin, simulazio orokor bat egingo da enpresa osorako.

6.5. Larrialdi-planaren berrikuspena

Larrialdi-plana egin duen lan-taldeak plana honako egoeretan berrikusiko du:

- Instalazio berriak sartzen direnean edota lehendik zeudenetan aldaketak egiten badira; beti ere, berrikuntza edo aldaketa horiek ordura arte kontuan hartu ez diren larrialdi-egoerak eragin baditzakete.
- Antolakuntzan larrialdietarako antolamenduari eragiteko gai diren aldaketak egiten badira. Aldaketa horiek ordura arte ezarritako prebentzio- eta babesneurrien kantitatean eta kalitatean eragin behar dute, edo bestela, larrialdi-plana egituratzen duten kapituluaren erredakzioa ukitzen duen edozein alderditan.
- Arauzko betebeharrak horrela eskatzen badute.
- Aldizka egiten diren simulazioen emaitzek horrela eskatzen badute.
- Oro har, hiru urtetik behin berrikusiko da, goian adierazitako egoerak gertatu ala ez.

Kalitaterako, ingurumenerako eta segurtasunerako zuzendariak eguneratuko du berrikuspen berria, eta zuzendari-gerenteak onartuko du.

6.6. Larrialdi-plana abian jartzea

Kalitaterako, ingurumenerako eta segurtasunerako zuzendariak larrialdi-plana abian jartzen den bakoitzean I. eranskinean erregistratu ohi du, nahiz simulazioak izan (S), nahiz benetako larrialdiak izan (L). Larrialdi-plana abian jartzen den bakoitzean, kontuan hartutako larrialdi-egoera bakoitzean nola funtzionatu duen ebaluatu behar da, bai eta benetan eman den egoera zerk eragin zuen eta zein ondorio sortu zituen ere.

Larrialdi-egoeraren irismenaren arabera, azterketa eta ebaluazioa larrialdi-plana egin zuen taldeak edota horretarako osatutako lan-taldeak gauzatuko du. Kalitaterako, ingurumenerako eta segurtasunerako zuzendariak egin behar du emaitzei buruzko txostena. Ondoren hori erregistratu eta lan-taldea osatzen dutenei banatuko die.

7. BANAKETA ETA AGIRITEGIAN GORDETZEA

Banaketa kalitaterako, ingurumenerako eta segurtasunerako zuzendariak berrikusten du eta zuzendari-gerenteak onartuko du. Argitaratzea, banatzea eta egunean jartzea kalitaterako, ingurumenerako eta segurtasunerako zuzendariari dagokio.

Prozedura hori honakoei banatuko zaie:

(aipatu enpresako zein saili banatzen zaien)

Jatorrizko agiria kalitaterako, ingurumenerako eta segurtasunerako zuzendariak gordeko du agiritegian.

8. ERANSKINAK

I. eranskina: larrialdi-plana abian jartzeko erregistroaren formatua (Larrialdiak eta simulazioak)

ERANSKINAK

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (1.eranskina-Hutsik)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 13tik 1a
------------------------	---	---

Aurkibidea

- 1.- Helburua.
- 2.- Ezarpen-eremua.
- 3.- Definizioak eta laburdurak.
- 4.- Erreferentziak.
- 5.- Ardurak.
- 6.- Deskribapena.
 - 6.1.- Enpresaren eta enpresa-inguruaren deskribapena.
 - 6.2.- Enpresaren baliabideak.
 - 6.3.- Larrialdi-egoeren identifikazioa.
 - 6.4.- Larrialdietarako antolamendua.
 - 6.4.1.- Organigrama.
 - 6.4.2.- Larrialdi-egoeretakako egitekoak eta ardurak.
 - 6.5.- Jarduera-prozedura.
 - 6.5.1.- Prozedura orokorra.
 - 6.5.2.- Ezohiko egoerak.
 - 6.5.3.- Komunikazio-bideak.
 - 6.6.- Larrialdietarako lan-fitxak.
- 7.- Plana banatzea eta agiritegian gordetzea.
- 8.- Eranskinak (Planoak).

Berrikusketa	Data	Aldaketak	Orrialdea
Egilea	Berrikuspena:	Onarpena:	Data 01-01-09

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (1.eranskina-Hutsik)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 13tik 2a
------------------------	---	---

1. HELBURUA
 2. EZARPEN-EREMUA
 3. DEFINIZIOAK ETA LABURDURAK
 4. ERREFERENTZIAK
 5. ARDURAK
 6. DESKRIBAPENA
- 6.1. ENPRESAREN ETA ENPRESA-INGURUAREN DESKRIBAPENA**

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (1.eranskina-Hutsik)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 13tik 1a
------------------------	---	---

	Enpresa-izena	Lantokia
Identifikaziorako datuak ¹	Helbidea:	
	Herria:	
	Probintzia:	
	Posta-kodea:	
	Telefonoa:	
	Faxa:	
	Posta elektronikoa:	
Ingurua eta sarbideak ²	Egitura	Eraikin industrialia:
		Eraikin ez industrialia:
	Kanpoko sarbideak	Oinezkoentzako sarbideak:
		Ibilgailuentzako sarbideak:
	Kanpoko laguntza	Suhiltzaile-etxerik hurbilena: Distantzia eta iristeko behar duten denbora (gutxi gorabehera):
Eraikinaren eraikuntza-ezaugarriak ³	Eraikinaren tamaina	Azalera, guztira:
		Lur gaineko solairuen kopurua:
		Lur azpiko solairuen kopurua:
		Sektore-kopurua:
		Sektore bakoitzaren azalera:
		Altuera:
	Egitura-elementuak	Zutabeak:
		Habeak:
		Habexkak:
		Gangatilak:
		Kanpoko eta barruko itxiturak:
Jarduera ⁴		
Prozesuak ⁵		

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (1.eranskina-Hutsik)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 13tik 1a
------------------------	---	---

Ekipoak eta instalazioak ⁶	Instalazio elektrikoa Transformadoreak: Banaketa-koadroak:	Kontratututako potentzia:	
	Aireztapena	Naturala: Artifiziala:	
	Beroketa		
	Gas sukoiien biltegia		
	Likido sukoiien biltegia		
	Galdarak		
	Konpresoreak		
	Bestelakoak (labeak eta abar)		
Jarduera eta lana ⁷	Jarduera Sektorea / lantegia	Azalera	Langile-kopurua
	Guztira:		
Eraikina husteko baldintzak ⁸	Eskailera-kopurua	Deskribapena	
	Eraikina husteko bide horizontalak	Deskribapena	
	Irteerak	Lantegiko edo sektoreko irteerak	Eraikineko irteerak
Organigrama ⁹			

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (1.eranskina-Hutsik)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or: 13tik 1a
------------------------	---	--


6.2. ENPRESAREN BALIABIDEAK

BALIABIDEA	KOP.	ZEIN PLANOTAN DAUDE ADIERAZITA
Su-itzalgailuak		
Suteetarako ur-hartune hornituak		
Ihinztagailuak (sprinklers)		
Alarma-sakagailua		
Alarma-sirena		
Argi bereziak. Larrialdietarako argiak		
Etenik gabeko elikadura elektrikoa (ekipo elektrogenoa, bateria eta abar)		
Megafonia / Telefonía		
Sua itzaltzeko erakinean zehar jarrita dauden sistemak (CO ₂ aparra eta abar)		
Babeserako baliabide pasiboak (ate suhesiak, ontziak eta abar)		
Korridoreak, suteen aurkako elementuak eta husteko biderik hurbilenak		
Kanpoko bilguneak		
Mediku-zerbitzua		
Botika-kutxa		
Ohe txikiak		
Anbulantzia		
Xurgatzaile industrialak		
Suteen aurkako langilearen babesgarriak		
Ustekabeko isuriak maneiatzeko langilearen babesgarriak		
Isuri toxikoak maneiatzeko langilearen babesgarriak		

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (1.eranskina-Hutsik)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or: 13tik 1a
------------------------	---	--

6.4. LARRIALDIETARAKO ANTOLAMENDUA

6.4.1. Organigrama



LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (1.eranskina-Hutsik)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or: 13tik 1a
------------------------	---	--


6.4.2. Larrialdi-egoeretarako egitekoak eta ardurak

Esku hartuko duena	Atzeman	Egiaztatu Aktibatu	Larrialdi-mota adierazi	Larrialdia jakinarazi	Esku-hartzeak	Hustea	Kanpoko laguntza	Larrialdiaren bukaera
Larrialdietarako burua							Adierazi	
Esku-hartzeetarako burua								
Kontrol-taldea								Jakinarazi
Hasierako esku-hartzeetarako taldea								
Azken buruko esku-hartzeetarako taldea								
Lehen Laguntzako taldea								
Alarma- eta huste-taldea								
Laguntza-taldea								
Beste edonor								

(*) Langileren batek istripuren bat izango balu edo bat-batean gaixotuko balitz, ez da beharrezkoa larrialdia egiaztatzea

6.5. JARDUERA-PROZEDURA

6.5.1. Prozedura orokorra (moldatu diagrama orokor hau norbere enpresara)




LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (1.eranskina-Hutsik)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 13tik 1a
------------------------	---	---

6.5.2. Ezohiko egoerak

LANORDUETAN		<ul style="list-style-type: none"> •
LANORDUETATIK KANPO (Jaiegunak eta oporraldiak)	Bada langilerik lanean	<ul style="list-style-type: none"> •
	Lantokia itxita dago	<ul style="list-style-type: none"> •

6.5.3. Komunikazio-bideak (moldatu diagrama orokor hau)



LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (1.eranskina-Hutsik)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 13tik 1a
------------------------	---	---

• **Telefono-zerrenda**

KANPOKO LAGUNTZA	TELEFONO ZK.
SOS DEIAK	112
Bestelakoak	

• **Aginte-katea**

ORDENA	LANTEGIA SA-KO LANGILEAK	TELEFONO- LUZAPENA	ETXEKO TELEFONOA	TELEFONO MUGIKORRA
1				
2				
3				
4				
5				

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (1.eranskina-Hutsik)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 13tik 1a
------------------------	---	---

• **SOS Deiak-i larrialdiaren berri emateko protokoloa**

<p>XXXXXXXX enpresatik deitzen dizuegu; hauxe da helbidea: XXXXXX (industrialdea), XXXXX kalea XXXXX.a, XXXXX, eta telefono-zenbaki honetatik ari gara deika: XXX.XX.XX.XX (*) (*) (Adierazi beste telefono-zenbaki bat, mugikor batetik deituz gero, adibidez)</p>	
ZER GERTATU DA	<input type="checkbox"/> Sute bat <input type="checkbox"/> Langile batek istripua izan du edo bat-batean gaixotu egin da <input type="checkbox"/> Bestelakoak
NON	<input type="checkbox"/> Beheko solairuan –1. lantegian <input type="checkbox"/> Beheko solairuan –2. lantegian <input type="checkbox"/> Tarteko solairuan –3. lantegian <input type="checkbox"/> Lehenengo solairuan, bulegoetan <input type="checkbox"/> Lehenengo solairuan, laborategian <input type="checkbox"/> Teilatuan <input type="checkbox"/> Kanpoaldean
ZERI ERAGITEN DIO	<input type="checkbox"/> Elektrizitate-instalazioari <input type="checkbox"/> Aireztapen- eta girotze-instalazioari <input type="checkbox"/> Gas-botilen biltegiari <input type="checkbox"/> Produktu kimikoen edo/eta hondakin arriskutsuen biltegiari <input type="checkbox"/> Presiopeko aparatuei <input type="checkbox"/> Makinei (zehaztu zentzuei) <input type="checkbox"/> Ibilgailuei <input type="checkbox"/> ADR ibilgailuei
BADA/EZ DA ZURITURIK (Zenbat)	<input type="checkbox"/> Harrapatuta <input type="checkbox"/> Erreta <input type="checkbox"/> Traumatismoren batekin <input type="checkbox"/> Toxikatuta <input type="checkbox"/> Hilda
NOIZ GERTATU DA	<input type="checkbox"/> Istripua zein orduetan hasi den (adibidez, 13:55etan)
AURREIKUSITAKO ONDORIOAK	<input type="checkbox"/> Airera kea edo/eta gas toxikoak isurtzea <input type="checkbox"/> Atmosfera leherkorrak sortzea <input type="checkbox"/> Lurra kutsatzea <input type="checkbox"/> Ura kutsatzea
ZERI ERAGIN DIEZAIKE	<input type="checkbox"/> Inguruko enpresei <input type="checkbox"/> Aparkatuta dauden autoei <input type="checkbox"/> Bestelakoek
NORTZUK DAUDE LANTEGIAN	<input type="checkbox"/> Larrialdietarako buru diharduen arduradunaren izena <input type="checkbox"/> Lagun-kopurua <input type="checkbox"/> Hasierako esku-hartzeetarako taldea zertan ari den (zerbaitetan ari bada)
INGURUMEN-EGOERA (Gertatutako istripu-mota dela-eta, garrantzirik baldin badu)	<input type="checkbox"/> Haizearen intentsitatea eta norabidea <input type="checkbox"/> Euria

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (1.eranskina-Hutsik)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 13tik 1a
------------------------	---	---

6.6. LARRIALDIETARAKO LAN-FITXAK

.....(*).....REN LARRIALDIETARAKO LAN-FITXA	
(Bestela ere esan daiteke:(*).....RENTZAKO LARRIALDIETARAKO LAN-FITXA	
(*) ESKU HARTUKO DUENA (HET, AET eta abar)	
EKINTZAK	
❖ Suteren bat atzeman baduzu	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
❖ Isuriren bat atzeman baduzu	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
❖ Ibaira egindako isuriren bat atzeman baduzu	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
❖ Bat-bateko gaixotasun edo istripuren bat atzeman baduzu	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>
❖ Alarmak jotzen badu	<input type="checkbox"/>
❖ Eta abar	<input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/> <input type="checkbox"/>

6.7. LARRIALDI OSTEKO JARDUERAK

7. PLANA BANATZEA ETA AGIRITEGIAN GORDETZEA

8. ERANSKINAK

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina-Adibidea)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1a
------------------------	---	---

Aurkibidea

- 1.- Helburua.
- 2.- Ezarpen-eremua.
- 3.- Definizioak eta laburdurak.
- 4.- Erreferentziak.
- 5.- Ardurak.
- 6.- Deskribapena.
 - 6.1.- Enpresaren eta enpresa-inguruaren deskribapena.
 - 6.2.- Enpresaren baliabideak.
 - 6.3.- Larrialdi-egoeren identifikazioa.
 - 6.4.- Larrialdietarako antolamendua.
 - 6.4.1.- Organigrama.
 - 6.4.2.- Larrialdi-egoeretarako egitekoak eta ardurak.
 - 6.5.- Jarduera-prozedura.
 - 6.5.1.- Prozedura orokorra.
 - 6.5.2.- Ezohiko egoerak.
 - 6.5.3.- Komunikazio-bideak.
 - 6.6.- Larrialdietarako lan-fitxak.
- 7.- Plana banatzea eta agiritegian gordetzea.
- 8.- Eranskinak (planoak).

Berrikusketa	Data	Aldaketak	Orrialdea
1	01-01-9	Osoa	Denak
Egilea:	Berrikuspena:	Onarpena:	Data: 01-01-09

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina-Adibidea)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1a
------------------------	---	---

1. HELBURUA

Barne-larrialdietarako plan honen helburua hauxe da: LANTEGIA SA enpresak, gerta litezkeen larrialdi-egoerei aurre egiteko edo larrialdi-egoera horiek instalazioetan izango dituzten ondorioak txikiagotzeko, zein antolamendu, baliabide eta jarduera-prozedura behar dituen zehaztea.

2. EZARPEN-EREMUA

Gerta litekeen larrialdi-egoeratzat hartu eta agiri honetako 6.3. atalean zerrendatutako egoera guztietan ezarriko da barne-larrialdietarako plana.

3. DEFINIZIOAK ETA LABURDURAK

- *Azken buruko esku-hartzeetarako taldea (AET)*: Gertatutako larrialdiak larrialdi, horrelako egoerei aurre egiteko trebatuta dauden kanpoko laguntzarako zerbitzuak dira, eta LANTEGIA SA enpresako esku-hartzeetarako taldeek larrialdia sortarazi duena ezabatzea eta larrialdia bera kontrolatzea lortzen ez dutenean esku hartuko dute.
- *Hasierako esku-hartzeetarako taldea (HET)*: Larrialdi-egoeran berehalaxe esku hartuko duen pertsona edo taldea da. Larrialdi-egoera ezabatzea edo heda dadin saihestea izango dute helburu, eta, besteak beste, ondorengo bi egiteko hauek izango dituzte euren gain: enpresa hustea beharrezkoa denean berori zuzendu eta ikuskatzea, eta zauriturik baldin badago horiei laguntza ematea.
- *Kontrol-taldea (KT)*: Larrialdiak dirauen bitartean egoerari buruzko informazio guztia jasoko eta zentralizatuko duen pertsona da. Bera arduratuko da kanpoko taldeei larrialdiaren berri emateaz.
- *Larrialdi txikia*: LANTEGIA SA enpresako baliabideek (hau da, hasierako esku-hartzeetarako taldeek) kontrolatzeko moduko larrialdi-egoera.

<p>LANTEGIA SA</p>	<p>LARRIALDI-PLANA (2.eranskina-Adibidea)</p>	<p>Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1a</p>
-------------------------------	--	--

- *Larrialdia*: LANTEGIA SA enpresako baliabideek kontrolatzeko modukoa ez den larrialdi-egoera da. Horrelakoetan, beraz, ezinbestekoa da kanpoko laguntzara jotzea (hau da, azken buruko esku-hartzeetarako taldeetara), eta baliteke bertan dauden langile guztiak edo batzuk atera behar izatea (huste orokorra edo partziala).
- *Larrialdietarako eta esku-hartzeetarako burua (LEB)*: Larrialdietako arduradun nagusia izango da, eta koordinatzaile izateaz gain, esku-hartzeak zuzenduko ditu. Aginte-katearen taulan (6.5.3) lehenbizi ageri den pertsona arituko da larrialdietarako eta esku-hartzeetarako buru, eta hura ez dagoenean, berriz, LANTEGIA SA-n egon eta zerrendan azaltzen den hurrengoa. Egoera berezietarako, ikus larrialdi-plan honetako 6.5.2. atala.

4. ERREFERENTZIAK

- PI041 “larrialdi-planaren prozedura”
- Kudeaketa-eskuliburua
- UNE-EN-ISO 14001
- OHSAS 18001

<p>LANTEGIA SA</p>	<p>LARRIALDI-PLANA (2.eranskina-Adibidea)</p>	<p>Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1a</p>
-------------------------------	--	--

5. ARDURAK

Larrialdietarako eta esku-hartzeetarako buruaren ardura da barne-larrialdietarako plan hau egitea eta eguneratzea. Kalitaterako, ingurumenerako eta laneko arriskuen prebentziorako zuzendaritzak berrikusiko du gero, eta LANTEGIA SA-ko zuzendariak edo gerenteak onartu.

6. DESKRIBAPENA

6.1. ENPRESAREN ETA ENPRESA-INGURUAREN DESKRIBAPENA

Ondorengo tauletan eta bertan aipatutako planoetan laburbiltzen dira LANTEGIA SA enpresa non dagoen, zein eraikuntza-ezaugarri dituen eta zein industria-jardueratan aritzen den.

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina- Adibidea)	Arg: 00-11-06 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1.a
------------------------	--	--

ENPRESAREN ETA ENPRESA-INGURUAREN DESKRIBAPENA (1)	
	Enpresa-izena: LANTEGIA SA
	Helbidea: Kalamina kalea, 11
	Herria: Oketa
	Probintzia: Araba
1.- IDENTIFIKAZIO- RAKO DATUAK	Posta-kodea: 01510
	Telefonoa: 999-999999
	Faxa: 999-999998
	Posta elektronikoa: LANTEGIA SA@sea.es
	2.1.- Egitura Eraikin industrialia: Hiru solairuko eraikina, bistako adreilukoa.
2.-INGURUA ETA SARBIDEAK (ikus 1. eta 2. planoak)	2.2.-Kanpoko sarbideak Oinezkoentzako sarbideak: <ul style="list-style-type: none"> • Hiru sarbide daude, lurraren mailan: harrerarako atarikoa, 1. lantegikoa eta 2. lantegikoa. • Horiez gain, larraldietarako eskailera bidezko sarbiderik ere bada, ekialdeko fatxadako tarteko solairuan eta lehenengo solairuan. • Azkenik, kanpoko eskailera batetik ere bada beste sarbide bat, tarteko solairutik eta lehenengo solairutik teilatuko galdaretara artekoa.
	2.3.- Kanpoko laguntza

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina- Adibidea)	Arg: 00-11-06 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1.a
------------------------	--	--

ENPRESAREN ETA ENPRESA-INGURUAREN DESKRIBAPENA (2)		
		Eraikitako azalera, guztira: 2200 m ² .
		Lur gaineko solairuen kopurua:
		• <u>Beheko solairua:</u> harrera-lekua, lantegiak (1000 m ²)
		• <u>Tarteko solairua:</u> lantegia (300 m ²)
		• Lehenengo solairua: bulegoak (900 m ²)
		Lur azpiko solairuen kopurua: ez dago solairurik.
		Sektore-kopurua: lau
		Sektore bakoitzaren azalera: 1. lantegia (500 m ²), 2. lantegia (500 m ²), tarteko solairua (300 m ²) eta lehenengo solairua (900 m ²)
		Altuera:
		• Iparraldeko fatxadaren gaina: 11 m.
		• Hegoaldeko fatxadaren gaina: 8 m.
		Zutabeak: hormigoi armatua.
		Habeak: hormigoi armatua.
		Habexkak: hormigoi arindua.
		Gangatiak: hormigoi arindua.
		Kanpoko eta barruko itxiturak:
		• Hegoaldeko fatxadan lakatutako aluminiozko mihiztadura dago jarrita zutabeen artean, gorantz horizontalki modulatuta, eta "Planilux"-motako beirak ditu, 10 mm-ko lodierakoak.
		• Itxitura hormen bidez egin da eta eraikuntza-ezaugarri hauek dituzte: kanpoaldean, bistako adreiluz egindako fabrika-horma dago, erdiraino, eta hormatala, beiriz, adreilu huts bikoitzekoa da, erdiraino hori ere; morterozko estaldura bakarra du, zarpiatua hidrofugoa da eta aire-ganbera PV-50 motako beira-zuntzezko isolatzailez eginda dago; behealdean, beiriz, trenkadan jarritako adreilu huts bikoitzez egindako fabrika-lebantezkoa da, zarpiatua eta igeltsuz luzitua.
		• Iparraldeko fatxadan ireki daitezkeen leihateak daude, lehen esandako ezaugarri berekoak eta 6 mm-ko lodierakoak.
3.- ERAIKINAREN ERAIKUNTZA- EZAUGARRIAK	3.1.-Eraikinaren tamaina	
	3.2.- Egitura- elementuak	

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina- Adibidea)	Arg: 00-11-06 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1.a
------------------------	--	--

ENPRESAREN ETA ENPRESA-INGURUAREN DESKRIBAPENA (3)		
4.- JARDUERA	<ul style="list-style-type: none"> Bulegoetako jarduera: administrazioa, merkataritza-jarduera eta bulego teknikoa. Lantegietako jarduera: 1. lantegia eta 2. lantegia. 	
5.- PROZESUAK	<ul style="list-style-type: none"> Administrazio-prozesuak. Fabrikazio-prozesuak: lantegietan mekanizazioak. 	
	6.1.- Instalazio elektrikoa	<p>Kontratututako potentzia: 150 kw</p> <p>Transformadoreak: ez dago.</p> <p>Banaketa-koadroak:</p> <ul style="list-style-type: none"> Banaketa-koadro nagusia beheko solairuan dago, eta harrera-lekutik heltzen da bertara. Bigarren mailako koadrorik ere bada: 1. eta 2. lantegietan, tarteko solairuan eta lehenengo solairuan.
	6.2.- Aireztapena	Aireztapen artifizialerako instalazioa dago, eraikin osoko airea berritzeko, eta plenumms-en bidez iristen da eraikineko kompartmentuetara.
6.- EKIPOAK ETA INSTALAZIOAK (ikus 2, 3 eta 4. planoak)	6.3.- Beroketa	Beroketa-sistema "fan-coil"-motako aire-girogailuen bidezkoa da, bai lurrekoak bai sabailkoak, girotu beharreko lekuren arabera. Ur beroa, berriz, errendimendu handiko bederatz galdararen bidez lortzen da (galdarak gas naturalaren bidezkoak dira eta eraikineko teilatuan daude). Tailerretan, hodi erradiatzaileen bidezkoa da beroketa-sistema.
	6.4.- Gas konprimatuen, likidotuen, disolbatuen eta prestopekoen biltegia	Iparraldeko fatxadaren ondoko biltegian gordetzen dira botilak (azetilenoa, argona, nitrogenoa, helioa eta oxigenoa).
	6.5.- Likido sukoien biltegia	<ul style="list-style-type: none"> Lantegiak: olioak eta disolbatzaileak (2000 l). Eskorjentzako andela 1900 l-koa da.

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina- Adibidea)	Arg: 00-11-06 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1.a
------------------------	--	--

ENPRESAREN ETA ENPRESA-INGURUAREN DESKRIBAPENA (4)			
6.- EKIPOAK ETA INSTALAZIOAK (ikus 2, 3 eta 4. planoak)	6.6.- Galdarak	Bederatzi galdara daude, guztiak gas natural bidezkoak eta errendimendu handikoak (26 kw-ko potentzia erabiltzerria, ganbera estankoa, pizketa automatikoa, garraren kontrola ionizazio bidezkoa eta NO _x isuria 15-24 ppm artekoa). Eraikineko teilatuko galdara-gelan daude denak. <ul style="list-style-type: none"> • Konpresorea: 4 Hp/kw. • Presiopeko andela: V= 0,45 m³ / P= 10 bar. • Lantegiko makinak 	
	6.7.- Aire konprimitua		
	6.8.- Bestelakoak		
	Jarduera Sektorea/lantegia	Azalera	Langile-kopurua
7.- JARDUERA ETA LANA	<ul style="list-style-type: none"> • Beheko sol. - lantegiak • Tarteko sol. - lantegia • 1. sol. – lab/bulegoak. 	1000 m ² 300 m ² 900 m ²	50 10 30
	Guztira:	2200 m²	90 lagun (irebakuntza ikastaroak daudenean, 25 lagun gehiago lehenengo solairuan)
8.- ERAIKINA HUSTEKO BALDINTZAK (ikus 2, 3 eta 4. planoak)	Eskailera-kopurua: Bost	Deskribapena: <ul style="list-style-type: none"> • Tarteko solairurako eta lehenengo solairurako sarbidea harrera-tekutik. • Tarteko solairurako eta lehenengo solairurako sarbidea harrera-lekuaren paretik. • Teilatutako sarbidea (galdara-gelarakoa) tarteko solairutik. • Larraldietarako irteera tarteko solairuko eta lehenengo solairuko mendealdeko fatxadatik. 	
	Eraikina husteko bide horizontalak: Sei	Deskribapena: Solairu bakoitzean bi: batetik harrera-tekuko eskaileretara irteten da, eta besteik, berri, mendealdeko fatxadako larraldietarako irteeretara (beheko solairuko solairu pilotuetan sartzeko atea).	
	Irteerak 12	Lantegiko edo sektoreko irteerak 3	Eraikineko irteerak 5
		Beheko solairua Tarteko solairua Lehenengo solairua	2 2 2

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina-Adibidea)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1a
------------------------	---	---

6.2. ENPRESAREN BALIABIDEAK

LANTEGIA SA enpresak larrialdi-egoerei aurrea hartzeko eta, halakorik gertatuz gero, aurre egiteko zein baliabide dituen zehazten da ondorengo taulan.

Eranskinako 2., 3. eta 4. planoetan dago adierazita baliabide horiek non dauden.

Zk.	BALIABIDEA	KOPURUA	ZEIN PLANOTAN DAGO
1	Sute-detektagailua/Alarma jasotzeko instal.	40 / 1	2., 3. eta 4. planoak
2	Alarma-sakagailua	20	
3	ABC-motako suteetarako hautsezko itzalgailuak	40	
4	CO ₂ bidezko itzalgailuak	20	
5	Suteetarako ur-hartune hornituak	6	
6	Alarma-sirena	2	
7	Gas-detektagailua/Alarma jasotzeko instal.	4 / 1	
8	Larrialdietarako argiak	100	
9	Telefonia / Megafonia	1	
10	Ate suhesiak	20	
11	Huste-bideak	6	
12	Kanpoko bilguneak	1	
13	Botika-kutxak	5	

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina-Adibidea)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1a
------------------------	---	---

6.3. LARRIALDI-EGOEREN IDENTIFIKAZIOA


Industria-jardueraren arriskuak ebaluatu ondoren, emaitzek ez dute adierazi aztertutako egoera bakar bat ere 3. arrisku-mailakoa (neurritzkoa) edo gehiagokoa denik. Baina, hala eta guztiz ere, halakotzat hartu dira 31/1995 Legeak, laneko arriskuei aurrea hartzekoak, 20. artikuluan exijitutakoak. Ondorengo taulan duzue, labur-labur, LANTEGIA SA enpresan gerta litezkeen larrialdi-egoeratzat identifikatutakoak.

	EGOERA	NON	ARRISKU-MAILA	IZAN DITZAKEEN ONDORIOAK	OHARRAK
1	SUTEA	Lantokia	ONARGARRIA	<ul style="list-style-type: none"> • Zaurituak • Kalte materialak • Ingurumenean eragindako kalteak (airea kutsatzea, ura kutsatzea eta hondakinak sortzea) 	<p>Baliteke sutearen eraginez produktu kimikoak eta hondakin arriskutsuak erretzea.</p> <p>Laneko arriskuei aurrea hartzeko 31/1995 Legeko 20. artikulua.</p>
2	LANGILEREN BATEK ISTRIPUA IZATEA EDO BAT-BATEAN GAIXOTZEA	Lantokia	EE	<ul style="list-style-type: none"> • Zaurituak 	<p>Laneko arriskuei aurrea hartzeko 31/1995 legeko 20. artikulua.</p>

<p style="text-align: center;">LANTEGIA SA</p>	<p style="text-align: center;">LARRIALDI-PLANA (2.eranskina- Adibidea)</p>	<p>Arg: 00-11-06 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1.a</p>
---	---	---

6.4. LARRIALDIETARAKO ANTOLAMENDUA

6.4.1. Organigrama



LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina- Adibidea)	Arg: 00-11-06 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1.a
------------------------	--	--

6.4.2. Larrialdi-egoeratarako egitekoak eta ardurak

Ondorengo taulan duzue laburtuta zein egiteko eta ardura dituzten larrialdietarako antolamenduko maila guztiak.

	Atzeman	Egiaztatu Aktibatuta (*)	Larrialdi-mota adierazi	Larrialdia jakinarazi	Esku-hartzeak	Hustea	Kanpoko laguntza	Larrialdiaren bukaera
Larrialdietarako eta esku-hartzeetarako burua			Adierazi	Agindu	Zuzendu	Adierazi	Agindu	Adierazi
Kontrol-taldea		Egiaztatzea agindu		Jakinarazi		Jakinarazi	Jakinarazi	Jakinarazi
Hasierako esku-hartzeetarako taldea					Hasiera-hasieran esku hartu	Esan eta zuzendu Zaurituaren ebakuazioa adierazi		
Azken buruko esku-hartzeetarako taldea					Azken buruan esku hartu			
Beste edonor	Atzeman lezake	Egiaztatu			Laguntza eman			

(*) Langileren batek istripuren bat izango balu edo bat-batean gaixotuko balitz, ez da beharrezkoa larrialdia egiaztatzea

<p>LANTEGIA SA</p>	<p>LARRIALDI-PLANA (2.eranskina-Adibidea)</p>	<p>Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1a</p>
-------------------------------	--	--

6.5. JARDUERA-PROZEDURA

Ondorengo irudiko fluxu-diagraman adierazi da, eskema moduan, larrialdi-egoeretan jarraitu beharreko jarduera-prozedura. Oinarrizko bi larrialdi-egoera hartu dira kontuan:

- *Larrialdi txikia*: LANTEGIA SA enpresak dituen baliabideekin (hasierako esku-hartzeetarako taldea) kontrolatzeko moduko larrialdia.
- *Larrialdia*: LANTEGIA SA enpresako baliabideek kontrolatzeko modukoa ez den larrialdi-egoera da. Horrelakoetan, beraz, ezinbestekoa da kanpoko laguntzara jotzea (hau da, azken buruko esku-hartzeetarako taldeetara), eta baliabideak bertan dauden langile guztiak edo batzuk atera behar izatea (huste orokorra edo partziala).

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina-Adibidea)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1a
------------------------	---	---

6.5.2. Ezohiko egoerak


Baliteke LANTEGIA SA enpresak larrialdiren bat izan eta bi egoera hauetakoren bat gertatzea: larrialdia enpresaren ohiko lanordutatik kanpo jazotzea edo larrialdietarako antolamenduan funtsezkoak diren norbaitzuk (adibidez, larrialdietarako burua, esku-hartzeetarako burua eta abar) lantokian ez egotea. Horrelakoetan jarraitu beharreko urratsak laburbiltzen ditu ondorengo taulak.

LANORDUETAN		<ul style="list-style-type: none"> • Antolamendua larrialdietarako organigrama orokorrarekin bat arituko da. • Larrialdietarako eta esku-hartzeetarako burua ez badago, aginte-katean mailarik handiena duen hurrenak hartuko du haren lekua, hura etorri arte.
LANORDUE- TATIK KANPO (Jaiegunak eta oporraldiak)	Bada langilerik lanean	<ul style="list-style-type: none"> • Une horretan lantokian egon eta maila profesional handiena duen langileak hartuko ditu bere gain, behin-behingo, larrialdietarako eta esku-hartzeetarako buruaren egitekoak. • Barne-larrialdietarako planean ezarritakoaren arabera hartu beharreko erabakiak hartuko ditu, eta larrialdietarako eta esku-hartzeetarako burua aurkitzen saiatuko da telefonoz. Harekin harremanetan jartzetik lortzen ez badu, aginte-katean ezarritako ordenari jarraituz han ageri direnei deituko die telefonoz, arduradunen bat aurkitu arte. • Larrialdietarako eta esku-hartzeetarako burua ez dagoenean, lantokira joan ahal izan eta aginte-katean mailarik handiena duenak hartuko du haren lekua, hura etorri arte. • Kontrata bidezko langileak baino ez badaude (adibidez, garbitzaileak, lorezainak...), SOS Deiak-i eta industrialdeko segurtasun-zerbitzuei dei egin eta larrialdiaren berri emango diete.
	Lantokia itxita dago	<ul style="list-style-type: none"> • Industrialdeko segurtasun-zerbitzukoak larrialdietarako eta esku-hartzeetarako buruarekin harremanetan jartzen saiatuko dira telefonoz, eta lortzen ez badute, aginte-katean ezarritako ordenari jarraituz han ageri direnei deituko die telefonoz, arduradunen bat aurkitu arte. • Larrialdietarako eta esku-hartzeetarako burua ez dagoenean, lantokira joan ahal izan eta aginte-katean mailarik handiena duenak hartuko du haren lekua, hura etorri arte.

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina-Adibidea)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1a
--------------------	---	---

6.5.3. Komunikazio-bideak

Larrialdi-egoeretan barne- eta kanpo-komunikaziorako jarraitu beharreko prozedura laburbiltzen du, eskema moduan, irudi honek.



OSO GARRANTZITSUA:

1. Telefono-luzapen batetik LANTEGIA SA-tik **kanpora deitze**ko, "9" zenbakia markatu behar da lehendabizi eta zerrendako telefono-zenbakia gero. **Lantoki barruko deiak egite**ko, nahikoa da telefono-luzapenak zuzenean markatzea.
2. Argi-indarririk gabe geratuz gero, telefonoguneari erantsitako telefonoa izango da erabilgarria den bakarra.

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina-Adibidea)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1a
------------------------	---	---

- **Telefono-zerrenda**

KANPOKO LAGUNTZA	TELEFONO-ZK.
SOS DEIAK	112
INDUSTRIALDEA	999.99.99.99
MUTUALITATEA (INDUSTRIALDEA)	999.99.99.99
MUTUALITATEKO KLINIKA	999.99.99.99
ALARMA JASOTZEKO INSTALAZIOA	999.99.99.99

- **Aginte-katea**

ORDENA	LANTEGIA SA-KO LANGILEAK	TELEFONO-LUZAPENA	ETXEKO TELEFONOA	TELEFONO MUGIKORRA
1	Ramon Gorbea	110	999.99.99.99	999.99.99.99
2	Eneko Oketa	111	999.99.99.99	999.99.99.99
3	Aitor Lekanda	112	999.99.99.99	999.99.99.99
4	Ester Berretin	113	999.99.99.99	999.99.99.99
5	Lorena Aldabide	114	999.99.99.99	999.99.99.99

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina-Adibidea)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1a
------------------------	---	---

• **SOS Deiak-i larrialdiaren berri emateko protokoloa**

<p>SOS Deiak 112-era laguntza eske deitutakoan, ondorengo protokolo honi jarraitu behar zaio BETI. LANTEGIA SA enpresatik deitzen dizuegu; hauxe da helbidea: Oketako industrialdea, Kalamina kalea 11, Oketa (Araba), eta telefono-zenbaki honetatik ari gara deika: 999.99.99.99 (*). (*) (Adierazi beste telefono-zenbaki bat, mugikor batetik deituz gero, adibidez)</p>	
ZER GERTATU DA	<input type="checkbox"/> Sute bat <input type="checkbox"/> Langile batek istripua izan du edo bat-batean gaixotu egin da <input type="checkbox"/> Bestelakoak
NON	<input type="checkbox"/> Beheko solairuan – 1. lantegian <input type="checkbox"/> Beheko solairuan – 2. lantegian <input type="checkbox"/> Tarteko solairuan - 3. lantegian <input type="checkbox"/> Lehenengo solairuan, bulegoetan <input type="checkbox"/> Lehenengo solairuan, laborategian <input type="checkbox"/> Teilatuan <input type="checkbox"/> Kanpoaldean
ZERI ERAGITEN DIO	<input type="checkbox"/> Elektrizitate-instalazioari <input type="checkbox"/> Aireztapen- eta girotze-instalazioari <input type="checkbox"/> Gas-botilen biltegiari <input type="checkbox"/> Produktu kimikoen edo/eta hondakin arriskutsuen biltegiari <input type="checkbox"/> Presiopeko aparatuei <input type="checkbox"/> Makinei (zehaztu zentzuei) <input type="checkbox"/> Ibilgailuei <input type="checkbox"/> ADR ibilgailuei
BADA/EZ DA ZAURITURIK (ZENBAT)	<input type="checkbox"/> Harrapatuta <input type="checkbox"/> Erreta <input type="checkbox"/> Traumatismoren batekin <input type="checkbox"/> Toxikatuta <input type="checkbox"/> Hilda
NOIZ GERTATU DA	<input type="checkbox"/> Istripua zein orduetan hasi den (adibidez, 13:55etan)
AURREIKU-SITAKO ONDORIOAK	<input type="checkbox"/> Airera kea edo/eta gas toxikoak isurtzea <input type="checkbox"/> Atmosfera leherkorrak sortzea <input type="checkbox"/> Lurra kutsatzea <input type="checkbox"/> Ura kutsatzea
ZERI ERAGIN DIEZAIKE	<input type="checkbox"/> Inguruko enpresei <input type="checkbox"/> Aparkatuta dauden autoei <input type="checkbox"/> Bestelakoei
NORTZUK DAUDE LANTEGIAN	<input type="checkbox"/> Larrialdietarako buru diharduen arduradunaren izena <input type="checkbox"/> Lagun-kopurua <input type="checkbox"/> Hasierako esku-hartzeetarako taldea zertan ari den (zerbaitetan ari bada)
INGURUMEN-EGOERA (Gertatutako istripu-mota dela-eta, garrantzirik baldin badu)	<input type="checkbox"/> Haizearen intentsitatea eta norabidea <input type="checkbox"/> Euria

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina- Adibidea)	Arg: 00-11-06 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1.a
------------------------	--	--

6.6. ESKU-HARTZEETARAKO LAN-FITXAK

- Atzealdea (Beti egitekoak)

LANTEGIA SA-KO LANGILEENTZAKO ESKU-HARTZEETARAKO LAN-FITXA	1. berr. 2001-01-09
<p>PREBENTZIOKOAK</p> <p><input type="checkbox"/> Erabili hautsontziak. Baimendutako eremuetan soilik erre.</p> <p><input type="checkbox"/> Erraustsak eta bukatutako produktu kimikoen ontziak ez bota zakarrontzira.</p> <p><input type="checkbox"/> Bero handia botatzen duten guneak ez hurbildu erretzeko gai diren materialetara.</p> <p><input type="checkbox"/> Ez gainkargatu energia-hartuneak. Zalantzarik izanez gero, galdetu mantentze-lanetako arduradunari.</p> <p><input type="checkbox"/> Erabili kontu handiz produktu kimikoak, batez ere ezaugarri arrisksuak dituztenak.</p> <p>ZURE ARDURAPEKO EREMUAN egiaztatu:</p> <p><input type="checkbox"/> Larrialdietarako ekipoen egoera (su-itzalgailurik falta den, su-itzalgailu akastunik ba al dagoen, suteetarako ur-hartuneetan presio aski dagoen, puskatutako sakagailuak...)</p> <p><input type="checkbox"/> Larrialdietarako ateen eta irteeren egoera (ateek trabaturik dauden, giltzez itxirik...)</p> <p><input type="checkbox"/> Botika-kutxaren egoera eta edukia.</p> <p><input type="checkbox"/> Larrialdietarako irteeretan, eraikina hustu behar izanez gero, inolako oztoporik dagoen.</p> <p><input type="checkbox"/> Lan-eguna bukatutakoan tresna elektrikorik (ordenagailuak, laborategiko ekiporik...) alferrik deskonektatu gabe geratu ote den.</p> <p>Lantokian larrialdietarako baliabideetan nolabaitako akatsen bat sumatuz gero, jakinarazi BEREHALA mantentze-lanetako arduradunari.</p>	

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina- Adibidea)	Arg: 00-11-06 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1.a
------------------------	--	--

6.6.1. Hasierako esku-hartzeetarako taldea (HET)

• Aurrealdea

LANTEGIA SA ENPRESAKO LANGILEENTZAKO ESKU-HARTZEETARAKO LAN-FITXA		1. berr. 2001-01-09
EDOZEIN KASUTAN	<input type="checkbox"/> Edozein ezbarharren berri kontrol-taldeari eman ahoz (oharrak hartzeko telefonogunera), alarma-sakagailuaren bidez nahiz bar-neko telefono bidez. <input type="checkbox"/> Larrialdiatarako eta esku-hartzeetarako buruak emandako aginduak bete. <input type="checkbox"/> ALFERRIKAKO ARRISKURIK EZ HARTU.	
SUA Atzeman baduzu	<input type="checkbox"/> Sua kontrolatzeko edo/eta itzaltzeko, su-itzalgailuez baliatu, BAINA ALFERRIKAKO ARRISKURIK HARTU GABE ETA SU-ITZALGAILUEN FUNTZIONAMENDUA EZAGUTZEN BADA SOILIK. <input type="checkbox"/> Sua itzaltzeko modurik ez badago, ALDE TOKI HORRETATIK, eta ahal bada, suari mugak jartzen saiatu (leihoak eta ateaq itxi). <input type="checkbox"/> CO ₂ duten su-itzalgailuak erabiliiko dira BETI su elektrikoak sortzen denean edota asko balio duten ekipoeq hartzen dutenean su. ABC ² hautsezko su-itzalgailueq (6 k) 12-16 segundu irauten dituzte. <input type="checkbox"/> Larrialdiatarako eta esku-hartzeetarako buruak horrela agindutakoan soilik erabili ahal izango dituzu suteetarako ur-hartuneak, baina gutxienez BI LAGUNEN artean jardun beharko duzue. <input type="checkbox"/> ARGI-INDARRA KENDU GABE DUTEN TRESNETAN SORTUTAKO SUA ITZALTZEKO EZ DA INOIZ URA ERABILI BEHAR.	
ISTRIPUREN BAT EDO BAT BATEKO GAIXOTASUNA atzeman baduzu	<input type="checkbox"/> Zaurituak konortetik galdu ez badu, zauritua lasaitzen saiatu, eta LANTEGIA SAKO bitartekoen bidez lagundu. <input type="checkbox"/> Kalte larriren bat izan dezakeela uste izanez gero, ETA NOLA EGIN JAKIN EZEAN, zauritua ez higitu. Berehalako arriskuren bat sumatutakoan soilik higitu behar da zauritua, eta egoera seguruagoan jarri. <input type="checkbox"/> Zaurituak kalte arina jasan arren, lantokian zaurituari laguntzeko bitartekorik ez badago, kontrol-taldeari deitu. Kontrol-taldea arduratuko da zauritua Gojain industrialdeko MUTUARA eramateaz (lan egunetan 11:00 arte zabalik) edo MUTUJA klinikara eramateaz (Gasteizko Tomas Zumarraga Dohatsuaeren kalea). <input type="checkbox"/> KALTEA LARRIA BADA EDO LARRIA IZAN DAITEKEELA USTE IZANEZ GERO , jakinarazi BEREHALA kontrol-taldeari, horrek karpoko laguntza eska dezan (SOS deiak – 112) eta zauritua ospitalera eraman dezaten.	

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina- Adibidea)	Arg: 00-11-06 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1.a
------------------------	--	--

LANTEGIA SA ENPRESAKO LANGILEENTZAKO ESKU-HARTZEETARAKO LAN-FITXA		1. berr. 2001-01-09
ALARMAK jotzen badu	<input type="checkbox"/> Kontrol-taldearen aginduen zain geratu. <input type="checkbox"/> Prest egon eraikina edo horren zati bat hustu behar bada ere.	
Eraikina edo horren zati bat HUSTEA agintzen bada	<input type="checkbox"/> AHAL DUZUN GUZTIETAN, tresna elektrikoak (fotokopiagailua, ordenagailua labea...) eta gasa erabiltzen duten tresnak deskonektatu, horrela, "EGOERA SEGURUAN" utziz. <input type="checkbox"/> Eraikinetik BEREHALA BAINA KORRIKA HASI GABE irten. Larrialdietarako seinaleek adieraziko dizute irteera nondik den. <input type="checkbox"/> Eraikina husten den bitartean, EZ ITZULI gauza pertsonalen bila, ez eta beste lagunen bila ere, eta IBILGAI-LUEN APARKALEKUAN kokatutako ELKARGUNERA zuzendu. <input type="checkbox"/> Horretarako izendatutako langileek, eta horien faltan, sailletako buruek zuzenduko dute BEREN ARDURAPEKO EREMUKO langileen hustea. Behin elkargunera iristen direnean zenbatuko dira eraikinetik ateratako langileak.	
LARRIALDIAREN ONDOREN	<input type="checkbox"/> INGURUMENEAN KALTEAK sortu badira (atmosfera kutsatzea, hondakinak, isurketak...), edota ERRADIAZIOA KONTROLATZEKO hainbat jarduera beharrezko bada (stripuak ikertzea...), kudeaketa-sistemako prozeduretan kasu horietarako aurreikusitako sistematika jarraituko da.	

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina- Adibidea)	Arg: 00-11-06 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1.a
------------------------	--	--

6.6.2. Kontrol-taldea

• Aurrealdea

LANTEGIA SA ENPRESAKO KONTROL-TALDEAREN ZAKO LARRIALDIETARAKO LAN-FITXA		1. ber. 2001-01-09
EKINTZAK		
Si se ordena EVACUAR una planta o el edificio	<input type="checkbox"/> Eman BEREHALA larrialdietarako eta esku-hartzeetarako buruari kontrol-gunean jasotako larrialdi-egoera ororen berri. <input type="checkbox"/> Bete larrialdietarako eta esku-hartzeetarako buruak emandako aginduak. <input type="checkbox"/> Lantegia edo eraikina hustu behar denean, jakinarazi bertako langileei. <input type="checkbox"/> Larrialdian arituko diren langileei barne- nahiz kanpo-komunikazioa izango dutela bermatu. <input type="checkbox"/> Jarri harremanetan kanpoko laguntzarako zerbitzuekin, eta erabili BETI horretarako idatzitako protokolo-orria. <input type="checkbox"/> Egin harrera kanpoko laguntzarako zerbitzuei, eta izan eskura BETI Larrialdi-planaren kopia bat, PLANO ETA GUZTI, haiek beharke balute ere. <input type="checkbox"/> Ez utzi sartzen enpresakoa bertakoa ez den edo beharrezkoa ez den langileei. <input type="checkbox"/> Kanpoko laguntzarako zerbitzuek beharke balute, utzi hutsik LANTEGIA SA-ko aparkalekua. <input type="checkbox"/> EZ HARTU BEHARREZKOA EZ DEN ARRISKURIK.	
Si suena la ALARMA	<input type="checkbox"/> Egon larrialdietarako eta esku-hartzeetarako buruaren jarraibideen zain. <input type="checkbox"/> Egon prest, horrelakorik behar izanez gero, lantegitik edo eraikinetik irteteko.	
POST- EMERGENCIA	<input type="checkbox"/> INGURUMENAREKIN LOTUTAKO ARAZORIK sortuz gero (aire-kutsadura, hondakinak, isuriak eta abar) edo OSTEKO KONTROLERAKO jardueraren bat egin behar baldin bada (istripuak aztertu eta abar), Kudeaketa-sis-tema integratuaren prozeduretan horrelakoetarako zehaztutako urratsei jarraituko zaie.	

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina-Adibidea)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1a
------------------------	---	---

6.7. LARRIALDIAREN OSTEKO JARDUERAK

Larrialdiak sortarazitako ingurumen-arazoezin lotutako larrialdi-osteko jarduerak nahiz horiek gerora kontrolatzeko jarduerak ondorengo prozeduretan zehaztutako urratsei jarraituz egingo dira:

- PI001 “Hondakinak kudeatzeko eta gutxiagotzeko prozedura”.
- PI002 “Ura aurrezteko, isuri likidoak gutxiagotzeko eta kudeatzeko prozedura”.
- PI003 “Produktu kimiko arriskutsuak kontrolatzeko prozedura”.
- PI004 “Airera egindako isuriak kudeatzeko eta gutxiagotzeko prozedura”.
- PI005 “Lan-istripuak eta jazoerak eta lanak eragindako lanbide-gaixotasunak ikertzeko prozedura”.
- PI006 “Larrialdi-planaren prozedura”.
- PI007 “Bat ez etortzeetarako eta zuzenketa-ekintzetarako prozedura”.
- PI008 “Langilearen babesgarriak aukeratzeko eta erabiltzeko prozedura”.

7. PLANA BANATZEA ETA AGIRITEGIAN GORDETZEA

Larrialdi-plan honen kopia bana emango zaie honakoei:

- “Aginte-katea” taulan ageri diren LANTEGIA SA-ko langileei
- Harrera-lekukoei (telefonogunea, kontrol-taldea)
- Oketako industrialdeko segurtasun-zerbitzukoiei
- Gasteizko Suteak itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzukoiei (**eranskinako planoak baino ez**).

Gainera, LANTEGIA SA-ko langile guzti-guztiek izango dituzte (kontrata bidezko nahiz aldi baterako lanetarako enpresen bidezko langileak barne) larrialdietarako lan-fitxa eguneratuak.

Kalitaterako, ingurumenerako eta prebentziorako zuzendariak gordeko du agiritegian agiri honen originala.

LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina-Adibidea)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1a
------------------------	---	---

8. ERANSKINAK

- I. ERANSKINA: Planoak


LANTEGIA SA	LARRIALDI-PLANA (2.eranskina-Adibidea)	Arg: 00-06-11 Ber: 1/01-01-09 Or.: 25tik 1a
------------------------	---	---

I. ERANSKINA:
Planoak
(Plano bat duzue,
adibide gisa)

**LANTEGIA
SA**

**LARRIALDI-PLANA
(2.eranskina-Adibidea)**

Arg: 00-06-11
Ber: 1/01-01-09
Or.: 25tik 1a



3. Eranskina. Hitzen glosarioa

- **Alarma jakinarazteko sistema** (RIPI): Kontrol-guneren batetik eta nahita bes-telako seinale bat igortzeko sistema. Entzuteko modukoa izan beharko du beti seinaleak, eta seinalea jaso behar den lekuko zarata-maila 60 dB (A) baino gehiagokoa denean, ikusteko modukoa ere bai.
- **Alarma-sakagailua** (EN 54-1): Suteak atzemateko sistemaren eta sute-alar-mako sistemaren osagaia, alarma eskuz aktibatzeke balio duena.
- **Apar bidezko itzaltze-sistema** (UNE 23522): Suteei aurre egiteko ekipoa, ho-nako hauez osatua: ur- eta apar-hornidura, dosifikagailua, aparra sortzeko gai-lua, aparra banatzeko sistema eta aparra hauts edo zorrotada modura huste-ko gailuak. Eskuzkoak eta automatikoak daude.
- **Arriskua** (UNE 81902 EX): Arriskua gertatzearen maiztasuna eta probabilita-tea. Eta, halaber, arriskua eragiteko probabilitatearen eta gertaera horren on-dorioek izan dezaketen garrantziaren emaitza.
- **Arriskuak ebaluatzea** (RSP – 3. art.): Ekidin ezin izan diren arriskuak zenba-terainokoak diren balioestea helburu duen prozesua da, eta behar besteko in-formazioa bilduko da bertan, enpresaburuak prebentzio-neurriak hartu behar ote diren erabakitzerakoan erabaki zuzena hartu ahal dezan eta, hala baldin bada, zer-nolako neurriak hartu behar diren ere bai.

Arriskuen ebaluazioak bi aldi ditu:

- **Arriskuak identifikatzea** (UNE 81902 EX): Prozesu honetan, onartu egiten da arriskuren bat badela, eta arrisku horren ezaugarriak zehaz-ten dira.
- **Arriskua balioestea** (UNE 81902 EX): Prozesu honetan, berriz, hau-xe zehazten da: identifikatutako arriskua egiaz gertatzeko zein aukera dauden eta, gertatzekotan, zein maiztasunekin gertatuko litzatekeen eta zein ondorio izango litzatekeen.

Bi aldi horiek egiteari arriskuaren azterketa esaten zaio. Horren bidez, aztertutako zein arrisku diren larrienak eta zeintzuk larritasun txikiago-koak jakiteko funtsezko eta beharrezko zaigun informazioa lortzen dugu.

- **Arriskua balioztatzea** (UNE 81902 EX): Identifikatutako arriskuak onargarriak diren eztabaidatzen da prozesu honetan, eta horretarako, arriskuen azterketan lortutako informazioa hartuko da oinarri, eta alderdi sozio-ekonomikoak eta in-gurumenarekin lotutako alderdiak izango dira kontuan.
- **Arriskuen kontrola** (UNE 81902 EX): Aldi honetan hartuko dira erabakiak, be-tiere arriskuak balioztatu ondoren lortutako informazioaz baliatuta, arriskuak gutxiagotzeko edo/eta kentzeko, zuzenketa-neurriak ezartzeko, hura bete da-din exijitzeko eta, aldi behin, eraginkorra den egiaztatzeko.

- **Arriskuak kudeatzea** (UNE 81902 EX): Arriskuak aztertu, balioztatu eta ebaluatzeko, kudeaketa-politikak, prozedurak eta jarduerak sistematikoki ezartzea.
- **Azpikontratista** (1627/1997 Errege Dekretua): Kontratu bidez eta kontratistarekin (enpresaburu nagusiarekin, alegia), proiektuan ezarritakoak betetz lanaren zati edo instalazio batzuk egiteko konpromisoa hartzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.
- **Bat ez etortzea** (UNE 81902 EX): Zehaztutako baldintzak ez betetzea.
- **Bereziki sentikorrek diren langileak** (Laneko arriskuei aurrea hartzeko legea): Ezaugarri pertsonalengatik, jakineko egoera biologikoagatik edo behar bezala aintzatetsitako minusbaliotasun fisiko, psikiko edo sentsorialen bategatik lanak eragindako arriskuekiko sentikortasun berezia duten langileak.
- **Bero-detekttagailua** (EN 54-1): Tenperatura igoerak atzemateko gai den gailua.
- **Bertako prebentzio-zerbitzua** (Laneko arriskuei aurrea hartzeko legea - PZE): Prebentzio-jardueretarako beharrezkoak izan eta enpresak berak dituen giza baliabide nahiz baliabide materialak.
- **Eginkizuna**: Langileen euren lan- edo muntaketa-gunean egiten duten lan-jarduerako jarduera bakoitzari deritzo eginkizuna agiri honetan.
- **Enpresa arteko prebentzio-zerbitzuak** (Laneko arriskuei aurrea hartzeko legea - PZE): Lantoki, eraikin edo merkataritza-gune berean aritzen diren enpresen arteko bertako prebentzio-zerbitzua, baldin eta zerbitzua eraginkorra izango dela bermatuta badago, zerbitzuko baliabideak arriskuen arabera izan daitezkeen.
- **Gar-detekttagailua** (EN 54-1): Suaren garrek igortzen duten erradiazioa atzemateko gai den gailua. Hiru motatakoak daude: infragorrien bidezkoa, ultramoreen bidezkoa eta banda anitzekoa.
- **Gas-detekttagailua** (EN 54-1): Errekuntza edo/eta deskonposizio termikoaren ondorioz sortutako gasak atzemateko gai den gailua.
- **Hauts bidezko itzaltze-sistema** (UNE 23541): Hainbat elementu finkoen multzoa (hala nola, gailuak, presiopeko gasen ontziak, martxan jartzeko eta ibilazteko organoak eta abar). Presiopeko gasaren bidez, hauts kimikoa hodi-sare batetik eramaten da, eta, gero, piten edo mahuken bidez hustu. Hiru motatakoak izan daitezke: dena hartzekoak, leku jakinetan aplikatzekoak edo mahuka bidezkoak. Bestalde, eskuzkoak eta automatikoak daude.
- **Ihinztagailua – Sprinkler** (UNE 23590): Tenperatura aldaketak atzemateko gai den ixte-gailudun pita, sutearen gainean ura botatzeko ireki egiten dena. Bi motatakoa izan daiteke: bustia (hodia etengabe urez presurizatuta dagoenean) edo lehorra (tutua airez edo gas geldoaz presurizatuta dagoenean).

- **Ingurumena** (ISO 14001): Instalazio industrialak aritzen direneko ingurunea, honakoak barne: airea, ura, lurra, natur baliabideak, flora, fauna, gizakiak eta horien arteko erlazioa.
- **Ingurumen-istripua**: Ingurumenaren gain ondorio kaltegarriak dituen gertakari oro, nahi eta espero ez dena.
- **Ingurumenaren gaineko eragina** (ISO 14001): Instalazio industrial bateko jardueren, produktuen eta zerbitzuen ondorioz ingurumenean eragindako aldaketa oro.
- **Ingurumenean eragindako kaltea**: Ingurumenaren aurkako eragin baten ondorioz ingurumena hondatzea, berehala edo gerora.
- **Istripua**: Sistema baten diseinu-baldintzak okertzea eragiten duen gertakizun oro. Istripua izango da, halaber, nahi ez den kalteren bat izatea, norbait hiltzea edo ingurumenean edo sisteman kalteak (akatsak) izatea eragin duen aurrez pentsatu gabeko gertakari-katea.
- **Istripu larria** (1254/1999 Errege Dekretua): Errege Dekretu horren arabera,koa izan beharreko establezimenduren bat dabilen bitartean gertatutako kontrolatu gabeko prozesuren baten ondorioz, eta substantzia arriskutsuren bat edo gehiago direla medio, pertsonentzat, ondasunentzat eta ingurumenarentzat bai berehala bai gerora arrisku bizikoa izan litekeen egoeraren bat sortarazten duen gertakari oro (adibidez, isuriren bat, sutea edo leherketa bat),
- **Itzaltzaile gaseoso bidezko itzaltze-sistema (RIPI)**: Suteen aurkako ekipoa, honakoez osatua: jaurtiketa-mekanismoa, kontrol-ekipoak (elektrikoak edo pneumatikoak), presiopeko gasen ontziak, kanpo-eragilearentzako hodiak eta zabaltzaileak. Eskuzkoak eta automatikoak daude.
- **Izendatutako langilea** (Laneko arriskuei aurrea hartzeko legea – PZE): Enpresaburuak prebentzioaz arduradain izendatutako langilea. Horrelako langileek horretarako gaitasuna izan beharko dute, bai eta nahikoa astia eta behar besteko baliabideak ere.
- **Jazoera** (UNE 81902 EX): Pertsonengan osasun-kalterik edo lesiorik eragin ez, baina jabetzetan, ekipoetan, produktuetan edo ingurumenean kalteak eragin eta ekoizpena gutxiagotzea nahiz arduraren legalak gehiagotzea eragin lezakeen ez nahi ez espero ez zen gertakari oro.
- **Kanpoko prebentzio-zerbitzua** (Laneko arriskuei aurrea hartzeko legea - PZE): Horrelakoetan espezializatutako erakundea, enpresatik kanpoko eta eskumeneko lan-agintaritzak kreditatutakoa, eta prebentzio-jarduerak egitea, enpresan dauden arrisku-moten araberako aholkuak eta laguntza ematea edo bi-biak egitea hitzartzen duena enpresekin.
- **Kanpoko ur-paldoen sistemak** (RIPI): Honako hauez osatutako multzoa: ur-hornidurarako iturria, ur-hornidurarako hodian sarea eta beharrezkoak diren kanpoko ur-paldoak.

- **Ke-detektagailua** (EN 54-1): Errekuntzaren edo/eta pirolisiaren ondorioz sortu eta airean geratzen diren partikulak (aerosolak) atzemateko gai den gailua. Bi motatakoak daude: ionikoak eta optikoak.
- **Konponketa-kostuak**: Ingurumenean eragindako kaltea konpontzeak (esate baterako, lurraren deskontaminazioa, ibaiaren deskontaminazioa eta abar) sortutako kostu ekonomikoa. Atal honetan sar litezke, halaber, besteei eragindako kalteak ordaintzeagatikoko kostuak eta administrazio-zigorak.
- **Kontratista** (1627/1997 Errege Dekretua): Sustatzailearekin, eta kontratu bidez, bere edo besteren giza baliabide nahiz baliabide materialak erabiliz eta proiektuan eta kontratuan ezarritakoarekin bat, lan osoa edo lanaren zati bat egiteko konpromisoa hartzen duen pertsona fisiko edo juridikoa.
- **Lan-baldintza** (Laneko arriskuei aurrea hartzeko legea): Langileen segurtasuna eta osasuna arriskuan jar ditzakeen laneko alderdi oro. Definizio horren barruan daude, berariaz, honako hauek:
 - a) Lokalen, instalazioen, ekipoen, produktuen eta lantokiko gainerako tresnen ezaugarri orokorrak.
 - b) Laneko ingurunean dauden eragile fisiko, kimiko eta biologikoak, bai eta horien guztien intentsitate- eta kontzentrazio-maila ere.
 - c) Aipatutako eragileak erabiltzeko prozedurak, arriskuak eragin ditzaketanak.
 - d) Langileak lanean dituen arriskuak areagotzen dituzten gainerako lanaren ezaugarri guztiak, antolamendua barne.
- **Lan-gunea** (486/1997 Errege Dekretua): Langileek egon behar duten edo euren lana dela-eta joan daitezkeen eremua da (lantokiko eremua), eta honako hauek barne: komunak eta atsedenerako guneak, lehen laguntzetarako guneak, jangelak eta zerbitzuetako edo babeserako instalazio erantsiak.
- **Lan-istripua** (UNE 81902 EX): Langileren bat gaixotzea edo lesioren bat izatea eragiten duen gertakari oro.
- **Lan-tresneria** (Laneko arriskuei aurrea hartzeko legea - 1215/1997 Errege Dekretua): Lanean aritzeko erabiltzen den makina, aparatu, tresna edo instalazio oro.
- **Lanak eragindako kalteak** (Laneko arriskuei aurrea hartzeko legea): Langileek lanean ari direla edo lanaren ondorioz izandako gaixotasun, patologia edo lesioak.
- **Laneko arriskua** (Laneko arriskuei aurrea hartzeko legea): Langileek lanak eragindako kalteren bat jasateko aukera, hots, lanean ari direla edo lanaren ondorioz gaixotasunen bat, patologiaren bat edo lesioren bat izatekoa.

- **Laneko arrisku larria eta berehalakoa** (Laneko arriskuei aurrea hartzeko legea): Etorbizun hurbilean gerta daitekeen eta, gertatuz gero, langileen osasunaren gain ondorio larriak izango lituzkeen arrisku oro.
- **Laneko arriskuei aurrea hartzeko kudeaketa-sistema** (UNE 81902 EX): Antolamenduaren kudeaketaren sistema orokorraren atala, prebentziorako ildoak zehazten dituena. Honako hauek alderdi hartzen ditu: antolamendu-egitura, ardurak, jarduerak, prozedurak, prozesuak eta aipatutako ildoak gauzatzeko baliabideak.
- **Laneko istripua** (1/1994 Errege Dekretua - LGSS): Besteren konturako langileek lanean ari direla edo lanaren ondorioz gorputzean izandako lesio oro.
- **Laneko segurtasun- eta osasun-seinaleak** (485/1997 Errege Dekretua): Objektu, jarduera edo egoeraren bati buruz laneko segurtasunaren edo osasunaren inguruko adierazpenen edo eginbeharren bat adierazten duten seinaleak. Era askotakoak izaten dira, adierazi nahi denaren arabera: taulak, koloreak, seinale argidunak, ahozko jakinarazpenak edo keinu bidezko seinaleak.
- **Langile autonomia** (1627/1997 Errege Dekretua): Bere kabuz, bera zuzenean eta inolako lan-kontraturik gabe jarduera profesionalen batean aritzen den pertsona fisikoa, kontratistaren eta azpikontratistaren bestelakoa. Lanaren zati bat edo instalazio bat egiteko konpromisoa hartzen du bere gain, kontratu bidez, sustatzailearekin, kontratistarekin edo azpikontratistarekin. Baliteke, ordea, langile autonomoek besteren konturako langileak hartzea lanerako; horrelakoetan, langile autonomo izateari utzi, eta kontratistatzat edo azpikontrastatzat hartuko dira.
- **Langilearen babesgarriak** (773/1997 Errege Dekretua): Langileek, euren segurtasuna eta osasuna arriskuan jartzen duen orotatik babesteko asmoz, soinean edo aldean eramateko edonolako ekipoa da, bai eta helburu bererako beste edozein osagarri ere.
- **Lantokia**: Berariazko antolamendua duen produkzio-unitatea eta Lan-agintaritzan hala alta emandakoa. Ez da beharrezkoa lantokiak berezko eremu fisikoa izatea, beste guneren baten bestelakoa eta autonomia. Izan ere, legeak eskatzen duen bakarria berariazko antolamendua edukitzea baita, Lan-agintaritzan alta emateaz gain, eta eskakizun hori soilik ez da nahikoa lantokia identifikatzeko, enpresariaren esku baitago halakorik egitea.
- **Mahuka erdizurruna** (UNE 23091): Barrutik presioa eginda nahiz presiorik egin gabe zirkulu-forma samarreko ebakidura duen mahukari deritzo erdizurruna.
- **Mahuka malgu zapala** (UNE 23091): Barrutik presioa eginda ez bada zirkulu-formako ebakidurarik ez duen mahuka malguari deritzo zapala.
- **OHSAS 18000 multzoko arauak**: Egiaztatzen aritzen diren eta egiazta daitezkeen zenbait enpresen partzuergoak egindako nazioarteko arauak, guztiz

boluntarioak, eta Laneko arriskuei aurrea hartzeko kudeaketa-sistema ezarzteari eta ebaluatzeari buruzkoak (Occupational Safety and Health Management System - OSHMS).

- **Perila** (UNE 81902 EX): Kalteak eragiteko gai den egoera edo iturria, hala nola: lesioak, kalteak jabetzan, kalteak ingurumenean edota horiek guztiak batera.
- **Prebentzio-ekintza** (Laneko arriskuei aurrea hartzeko kudeaketa-sistemari buruzkoa): Gerta litekeen bat ez etortzeren baten, akatsen baten edo nahi ez den beste egoeraren baten jatorria ezabatzeko eta gerta ez dadin lortzeko asmoz egindako ekintza. Prebentzio-ekintza, beraz, nahi ez den hura gerta ez dadin egiten dugu, eta zuzenketa-ekintza, berriz, berriro gerta ez dadin (ISO/DIS 9000:2000).
- **Prebentzio-neurria** (Laneko arriskuei aurrea hartzeko legea): Ikus prebentzio-ekintza.
- **Segurtasun- eta osasun-batzordea** (Laneko arriskuei aurrea hartzeko legea): Kide anitzeko organo paritarioa da, eta enpresak arriskuen prebentzioaren inguruan zer-nolako jarduerak egiten dituen aldian behin aztertzea du helburu.
- **Su-motak** (EN-2): Lau su-mota bereizten dira:
 - A motakoak: Material solidoen suak dira. Material horiek organikoak izaten dira eskuarki, eta horrelakoak erretzean txingarra sortu ohi da.
 - B motakoak: Likidoen edo solido likidogarrien suak dira.
 - C motakoak: Gasen suak dira.
 - D motakoak: Metalen suak dira.
- **Su-itzalgailua** (EN 3-1): Sua itzaltzeko gailua da. Aparatuaren barne-presioari esker, barruan daraman itzaltzailea sutara zuzendu eta bota daiteke, sua itzaliz. Aparatu batzuk aldeztatik konprimituta dute itzaltzailea eta, beraz, barne-presioa etengabea da. Beste aparatuetan, ordea, gas osagarri bat askatu behar da presioa sortzeko.
- **Su-itzalgailu eramangarria** (EN 3-1): Aldean eramateko eta eskuz erabiltzeko su-itzalgailua da, eta, erabiltzeko moduan dagoenean, 20 kg-ko masa edo gutxiago izaten du.
- **Sute-alarma** (UNE 23007): Pertsonok atzemateko moduko sute-seinalea.
- **Sute-alarmak jasotzeko instalazioa (EN 54-1)**: Edozein unetan suteei aurre egiteko eta suteetatik babesteko neurriak hartzeko prestatuta dagoen gunea.
- **Sute-detekttagailua** (EN 54-1): Suteak atzemateko sistemaren osagai bat da. Suteekin lotutako fenomeno fisiko edo/eta kimikorik dagoen egiaztatzeko sensore bat izaten du, gutxienez, eta kontrol- eta seinaleztapen-taldeak jasoko duen seinalea igortzen du.

- **Suteak antzemateko sistema automatikoa:** Seinaleak sortzeko eta beti zainduta egongo den kontrol- eta seinaleztapen-gunera igortzeko detektagailuen multzoa (ikus motak), horrela detektagailua zein lekutan aktibatu den azkar-azkar jakin ahal izateko.
- **Suteen aurkako babes-sistema automatikoa (EN 54-1):** Suteak kontrolatzeko eta suteei aurre egiteko ekipo automatiko oro; adibidez: suteak itzaltzeko instalazioak.
- **Suteen aurkako ur-hornidurako sistema (UNE 23500):** Honako osagaiez osatutako sistema: ur-hornidurarako iturri bat edo gehiago, bultzadarako sistema bat edo gehiago eta ur-hornidura duten instalazioetara ura banatzeko sare orokorra. Sistema honen egitekoa hauxe da: suteak itzaltzeko sistema jakin batek edo gehiagok behar beste ur eta behar besteko presioan izango dutela bermatzea, betiere aipatutako arauak xedatutakoarekin bat.
- **Suteetarako eskuzko alarma-sistema (RIPI):** Seinaleak nahita sortarazteko eta beti zainduta egongo den kontrol- eta seinaleztapen-gunera igortzeko sakagailuen multzoa, horrela sakagailua zein lekutan aktibatu den azkar-azkar jakin ahal izateko.
- **Suteetarako eskuzko ur-hartune hornitua (EN 671-1,2):** Suteei aurre egiteko tresna dugu, eta honako hauez osatuta dago: ardatz-hornidurako harilkaiak, harilkai ondoko ur-horniduraren eskuzko ixte-balbula, mahuka erdizurruna edo zapala, itxigailudun ahoa eta, mahukaren noranzkoa aldatzeko gailua. Badira suteetarako ur-hartune automatikoak ere: ur-horniduraren ixte-balbula automatikoa dute horrelakoek.
- **UNE 81900 EX multzoko arauak:** AENORek (hots, "Asociación Española de Normalización y Certificación" taldeak) egindako arauak, esperimentalak eta boluntarioak, eta Laneko arriskuei aurrea hartzeko kudeaketa-sistema ezartzeari eta ebaluatzeari buruzkoak.
- **Ur-hartune hornituen sistemak (RIPI):** Honako hauez osatutako multzoa: ur-hornidurarako iturria, ur-hornidurarako hodien sarea eta beharrezkoak diren ur-hartune hornitua.
- **Ur-paldo lehorra (UNE 23405):** Banaketa-sare nagusira konektatu eta lurretik aterako den zutabe-itxurako ur-paldoa. Bertan jarriko dira konexio-errakoreak. Balbula nagusia lur azpian egongo da, eta hura irekitakoan baino ez da sartuko urik zutabearen. Ondorengo osagai hauek izango ditu ur-paldoak: burua, balbula-atala eta, beharrezkoa denean, txirrika. Ur-paldo hezeetan (UNE 23406) etengabe dago ura ur-paldoaren barruan. Bestalde, ur-paldoak kutxatila barruan ere egon litezke, lur azpian (UNE 23407).
- **Ur-paldo lehorreko sistemak (RIPI):** Ezaugarri hauek dituzte: Ur-hartunea fatxadan edo suteen aurkako zerbitzuetakoek erraz erabiltzeko lekuren batean egongo da, eta suhiltzaileek baino ez erabiltzekoa dela adieraziko da bertan; konexio siamdarra izango dute, giltzak eta guzti eta 70 mm-ko errakore tapa-

duna eta 25 mm-ko purgaketa-giltza; altzairu galbanizatuko eta 80 mm-ko diametro nominaleko hodian goranzko zutabea izango dute; eta, azkenik, zortzigarren solairura arte solairu bikoiti guztietan izango dute irteera eta hortik aurrera, berriz, solairu guzti-guztietan, eta irteerek konexio siamdarra izango dute, giltzak eta guzti eta 45 mm-ko errakore tapadunekin.

- **Ur lainoztatu bidezko itzaltze-sistema** (UNE 23501): Segurua eta suteetatik babesteko ur nahikoa duen iturriren batera konektatutako hodi finkeen multzoa, pita lainoztagailuak dituena. Eskuzkoak eta automatikoak daude.
- **Zuzenketa-ekintza** (UNE 81902 EX): Bat ez etortzeren baten, akatsen baten edo nahi ez den beste egoeraren baten jatorria ezabatzeke eta berriro gerta dadin ekiditeko asmoaz egindako ekintza.
- **Zuzenketa-neurria** (Laneko arriskuei aurrea hartzeko legea): Ikus zuzenketa-ekintza.

4. Eranskina. Legeen eta arauen erreferentziak

ARAUDIA	AZALPENAK	OHARRAK
1979ko irailaren 25eko Agindua, Merkataritza- eta turismo-ministerioarena, turismo-lekuetan suteak prebenitzeari buruzkoa (79-10-20ko BOEn). Aldaketak: 1980ko martxoaren 31ko Aginduaren bidez (80-4-10eko BOEn). Zirkular argigarria: 80-4-10ekoa (80-5-6ko BOEn).	2. d) art. Larrialdi-plana	
1979ko urriaren 24ko Agindua, Gizarte-segurantzaren eta osasun-ministerioarena, Osasun-etxeetan izan beharreko suteen aurkako babes-neurriei buruzkoa (79-11-7ko BOEn).	2. a) <i>Norberaren babes-neurrietarako plana.</i>	Ospitaleak eta osasun-etxeak.
1982ko martxoaren 12ko Agindua, Industria- eta energia-ministerioarena, etileno-oxidoak biltegitzeari buruzko MIE-APQ-002 instrukzio tekniko osagarria onartzen duena, (82-3-30eko BOEn).	3. 4. art. <i>Norberaren babes-neurrietarako plana.</i>	
2816 Errege Dekretua, 1982ko abuztuaren 27koa, Barne-ministerioarena, Poliziaren eta lkuskizun publikoetarako nahiz Olgeta-jardueretarako Araudi orokorra onartzen duena (82-11-6ko BOEn. Akatsen zuzenketa: 82-11-29ko BOEn eta 83-10-1eko BOEn).	<i>I. TITULUA. I. KAPITULUA. LAUGARREN ATALA : Norberaren babes-neurriak.</i>	
1984ko martxoaren 1eko Agindua, Industria- eta energia-ministerioarena, kloroa biltegitzeari buruzko MIE-APQ-003 instrukzio tekniko osagarria onartzen duena (84-3-9ko BOEn. Akatsen zuzenketa: 84-6-14ko BOEn).	<i>VIII. KAPITULUA. Arriskuen aurkako babesa. Norberaren babes-neurrietarako plana.</i>	Presiopeko kloro likidoaren instalazioak.
1984ko azaroaren 13ko Agindua, Hezkuntza- eta zientzia-ministerioarena, OHOk, batxilergoko eta lanbide-heziketako herri-ikastetxeetan larrialdietarako ebakuazioaren inguruko jarduera praktikoak egiteari buruzkoa (84-11-17ko BOEn).		Hustuketarako jarraibideak baino ez.
1984ko azaroaren 29ko Agindua, Barne-ministerioarena, "Norberaren babes-neurrietarako eskuliburua. Suteen aurkako eta lokalak eta eraikinak husteko Larrialdi-plana egiteko gidaliburua" delakoa onartzen duena (85-2-26ko BOEn. Akatsen zuzenketa: 85-6-14ko BOEn).		Norberaren babes-neurrietarako planaren edukia eta garapena.

ARAUDIA	AZALPENAK	OHARRAK
1087ko ekainaren 29ko Agindua, Industria- eta energia-ministerioarena, amoniako anhidroa biltegitzeari buruzko MIE-APQ-004 instrukzio tekniko osagarria onartzen duena (87-7-10eko BOEn. Akatsen zuzenketa: 87-10-15eko BOEn eta 88-4-16ko BOEn).	<i>V. KAPITULUA. 5. Larrialdi-plana.</i>	50 m ³ baino edukiera handiagoko biltegiak.
1991ko urtarrilaren 30eko Erabakia, Barne-ministerioaren idazkariordetzarena, sektore kimikoko plan bereziak egiteari eta homologatzeari buruzko oinarriko ildoak onartzen duen Ministroen kontseiluaren xedapena argitaratzen duena (91-2-6ko BOEn. Akatsen zuzenketa: 91-3-8-ko BOEn).		886/1988 Errege Dekretuaren eskakizunak osatzen ditu.
1991ko uztailaren 18ko Agindua, Industria-, merkataritza- eta turismo-ministerioarena, likido sukoiaren eta erregaien biltegitzeari buruzko MIE-APQ-001 instrukzio tekniko osagarria onartzen duena (91-7-30eko BOEn. Akatsen zuzenketa: 91-10-14ko BOEn).	<i>IV. KAPITULUA. Azaleradun instalazio finkoetako suteen aurkako babesa. HIRUGARREN ATALA. Ontzi mugikorretan biltegitzea. 5. Suteen aurkako babesa.</i>	Ikus biltegitzeari eta kokapenari buruzko araudi-eredua.
1992ko uztailaren 21eko Agindua, Industria-, merkataritza- eta turismo-ministerioarena, gas konprimituen, likidotuen eta presiopean disolbatuen botilak eta botila handiak biltegitzeari buruzko MIE-APQ-005 instrukzio tekniko osagarria onartzen duena (92-8-14ko BOEn. Akatsen zuzenketa: 92-11-4ko BOEn).	<i>8. Gas-botilak daudeneko lokaletan suteren bat gertatuz gero egin beharrekoa.</i>	Gas konprimitu, likidotu eta presiopean disolbatuentzat, bai eta saltzeko, banatzeko edo gerora erabiltzeko diren horrelako gasen nahasketentzat ere.
769 Errege Dekretua, 1993ko maiatzaren 21ekoa, Gorteekiko harremanetarako eta Gobernuko idazkariordetzaren ministerioarena, kirol-ikuskizunetan indarkeriarik izan ez dadin aurrea hartzeko araudia onartzen duena (93-6-19ko BOEn).	<i>19. art. Barrutiko instalazioen azterketa. 28. art. Simulazioak eta larrialdiak.</i>	
1942 Errege Dekretua, 1993ko azaroaren 5ekoa, Industria- eta energia-ministerioarena, suteen aurkako babes-neurriak jartzeko araudia onartzen duena (93-12-14ko BOEn. Akatsen zuzenketa: 94-5-7ko BOEn).		Babes-baliabideak aldizka berraztertzea.

ARAUDIA	AZALPENAK	OHARRAK
2085 Errege Dekretua, 1994ko urriaren 20koa, Industria- eta energia-ministerioarena, petrolio-instalazioen araudia onartzen duena (96-1-27ko BOEn. Akatsen zuzenketa: 95-4-20ko BOEn).	28. art. <i>Suteen aurkako babesa eta instalazioak.</i> 32. art. <i>Ustiaketarako arauak. 1. Segurtasun-eskuliburua.</i>	
35 Legea, 1995eko azaroaren 8koa, Laneko arriskuei aurrea hartzeari buruzkoa (azaroaren 10eko BOEn).	20. art. <i>Larrialdi-neurriak</i>	Lantoki guztietarako.
1830 Errege Dekretua, 1995eko azaroaren 10ekoa, Industria- eta energia-ministerioarena, likido korrosiboen biltegitzeari buruzko MIE-APQ-006 instrukzio tekniko osagarria onartzen duena (95-12-6ko BOEn).	III. KAPITULUA. 6. atala. 5. <i>Larrialdi-plana.</i>	Horrelakorik biltegitratzen edo erabiltzen duen ororentzat.
2177 Errege Dekretua, 1996ko urriaren 4koa, Sustapen-ministerioarena, Eraikuntzarako NBE-CPI/1996 oinarrizko araudia (Eraikinek bete beharreko suteetatik babesteko baldintzak) onartzen duena (96-10-29ko BOEn. Akatsen zuzenketa: 96-11-13ko BOEn).		Erabilera industrialekoetan izan ezik , gainerako eraikin eta establezimenduek bete beharreko suteetatik babesteko baldintzak.
486 Errege Dekretua, 1997ko apirilaren 14koa, Lanerako eta gizarte-gaietarako ministerioarena, lantokiek bete beharreko gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak zehazten dituena (97-4-23ko BOEn).	10. art. <i>Eraikina husteko bideak eta irteerak.</i> 11. art. <i>Suteetatik babesteko baldintzak.</i>	Indarrean dago OGSHT-ren II. tituluko 24. artikulua eta VII. kapitulua, NBE-CPI/1996 araudiaren ezarpen-eremutik kanpoko lantokietarako.
Ekoizpenerako erabiltzen diren eraikin eta lokalek bete beharreko suteetatik babesteko baldintzei buruzko ordenantza.		Gasteizko udala.
1254 Errege Dekretua, 1999ko uztailaren 16koa, substantzia arriskutsuak direla medio gertatutako istripu larriei datzekien arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dituena	11. art. <i>Larrialdi-planak.</i>	Ezarpen-eremua 2. artikuluan adierazitakoa da, eta salbuespenak, berriz, 4. Artikuluan daude zehaztuta.

ARAUAK	AZALPENAK	OHARRAK
UNE-EN-ISO 14001 – Ingurumen-kudeaketarako sistema. Erabilerari buruzko zehaztasunak eta ildoak.	<i>4.4.7. puntua. Larrialdi-planak eta larrialdi aurre egiteko gaitasuna.</i>	Antolamendu-mota guztientzat balio du.
UNE 81900 EX – Laneko arriskuei aurre hartzeko kudeaketa-sistema ezartzeko arau orokorrak.		
OSHAS 18001 – Occupational health and safety management systems – Specification	<i>4.4.7. puntua. Emergency preparedness and reponse</i>	Antolamendu-mota guztientzat balio du.
OSHAS 18002 – Occupational health and safety management systems – Guidelines for the implementation of OSHAS 18001	<i>4.4.7. puntua. Emergency preparedness and reponse</i>	Antolamendu-mota guztientzat balio du.

5. Eranskina. Larrialdi-arriskuak ebaluatzearen zailtasun-mailari buruzko taula orientagarria, jardueraka

JARDUERA	ZAILTASUN-MAILA
0. NEKAZARITZA, ABELTZAINZA	
2.1 NEKAZARITZA	A
2.2 ABELTZAINZA	A
2.3 NEKAZARITZA- ETA ABELTZAINZA-ZERBITZUAK	A
2.4 EHIZA	A
2.5 BASOZAINZA	A
2.6 ARRANTZA	A
1. ENERGIA ETA URA	
1.1 ERREGAI SOLIDOAK (IKATZA) ERAUZTEA ETA PRESTATZEA.	C
1.2 PETROLIOA ETA GAS NATURALA ERAUZTEA.	C
1.3 PETROLIOA FINTZEA (FINDEGIAK).	C
1.4 MINERAL ERRADIOAKTIBOAK.	C
1.5 ENERGIA ELEKTRIKOA (EKOIZTEA, GARRAIATZEA ETA BANATZEA).	
1.6 URA BILTZEA, ARAZTEA ETA BANATZEA.	
2. MINERAL EZ ENERGETIKOAK ETA INDUSTRIA KIMIKOA	
2.1 MINERAL METALIKOAK. ERAUZTEA ETA PRESTATZEA.	B
2.2 METALAK EKOIZTEA ETA ERALDATZEA (SIDERURGIA, HODIAK...).	C
2.3 MINERAL EZ METALIKOAK ETA EZ ENERGETIKOAK (ERAIKUNTZA-MATERIALAK, GATZAK, ZOHIKAZTEGIAK ETA ABAR).	A
2.4 MINERAL EZ METALIKOEN INDUSTRIA (ZEMENTUA, URRATZAILAK, BEIRA, ZERAMIKA ETA ABAR).	A/B
2.5 INDUSTRIA KIMIKOA ETA FARMAZEUTIKOA.	C

A: Erraza

B: Zail samarra

C: Zaila

JARDUERA	ZAILTASUN-MAILA
3. METALAK ERALDATZEKO INDUSTRIA	
3.1 PRODUKTU METALIKOAK EGITEA (GALDAKETA, FORJAKETA, EGITURA-PROFILAK, GALDARAGINTZA ETA ABAR).	A/B/C/
3.2 MAKINA ETA EKIPO MEKANIKOAK EGITEA.	A
3.3 BULEGO-TRESNERIA ETA ORDENAGAILUAK EGITEA.	B
3.4 MAKINA ETA MATERIAL ELEKTRIKOA EGITEA (HARIAK, PILAK, ETXETRESNA ELEKTRIKOAK ETA ABAR).	B
3.5 MATERIAL ELEKTRIKOA EGITEA (ORDENAGAILUAK IZAN EZIK).	B/C
3.6 AUTOMOBILAK ETA ORDEZKO PIEZAK EGITEA.	B
3.7 ITSASONTZIAK EGITEA ETA KONPONTZEA.	A
3.8 BESTELAKO GARRAIOBIDEAK EGITEA (TRENAK, AIREONTZIAK ETA ABAR).	A/B
3.9 DOITASUN- ETA OPTIKA-TRESNAK EGITEA.	B
4. MANUFATURA-INDUSTRIAK	
4.1 ELIKAGAIK, EDARIAK, TABAKOA.	A
4.2 EHUNGINTZA (KOTOIA, ARTILEA, SETA ETA ABAR).	B/C
4.3 LARRUGINTZA.	B
4.4 JANTZIGINTZA (OINETAKOAK, ARROPA ETA ABAR).	B
4.5 ZURAREN INDUSTRIA (ARTELAZKIA, ALTZARIAK ETA ABAR).	B
4.7 PAPERGINTZA (PAPER-OREA, PAPERA...).	B/C
4.8 ARTELAZKIA ETA PLASTIKOA ERALDATZEKO INDUSTRIA.	B/C
4.9 BESTELAKOAK (BITXIGINTZA, MUSIKAGINTZA, JOSTAILUGINTZA ETA ABAR).	B/C
5. ERAIKUNTZA	
5.1 ERAISPENA.	A
5.2 HIGIEZINEN ERAIKUNTZA.	A
5.3 HERRI-LANAK.	A/B
5.4 ERAIKINAK ETA LANAK AMAITZEA ETA MUNTATZEA.	A/B

A: Erraza

B: Zail samarra

C: Zaila

JARDUERA	ZAILTASUN-MAILA
6. MERKATARITZA/OSTALARITZA/KONPONKETAK	
6.1 HANDIZKAKO DENDAK.	A
6.2 PRODUKTUAK BERRESKURATZEA (ADIBIDEZ, TXATARRA)	B
6.3 MERKATARITZA-BITARTEKOAK.	A
6.4 JATETXEA ETA KAFETEGIAK.	A
6.5 OSTALARITZA	A
6.6 KONPONKETAK (ETXETRESNA ELEKTRIKOAK, AUTOMOBILAK...).	A
7. GARRAIOA ETA KOMUNIKABIDEAK	
7.1 TREN BIDEZKO GARRAIOA.	A/B/C
7.2 LEHORREKO GARRAIOA.	A
7.3 ITSAS GARRAIOA.	A/B/C
7.4 AIRE-GARRAIOA.	A
7.5 ATXIKITAKO JARDUERAK (SALGAIEN GORDETEGIA, PORTUEN USTIAPENA, AGENTZIAK ETA ABAR).	C
7.6 KOMUNIKABIDEAK (POSTA, TELEKOMUNIKAZIOAK)	A
8. ZERBITZUAK	
8.1 FINANTZA-ERAKUNDEAK.	A
8.2 SEGURUAK.	A
8.3 AHOLKULARITZA (ARTEKARITZA, INJERIARITZA, BULEGO-TEKNIKOAK, PUBLIZITATEA...).	A
8.4 HIGIEZINEN AGENTZIAK.	A
8.5 ONDASUN HIGIGARRIAK ALOKATZEA.	A
8.6 ONDASUN HIGIEZINAK ALOKATZEA.	A
9. BESTELAKO ZERBITZUAK	
9.1 HERRI-ADMINISTRAZIOA, GIZARTE-SEGURANTZA ETA ABAR.	A
9.2 SANEAMENDUA, HONDAKINEN KUDEAKETA ETA ABAR.	A/B/C
9.3 HEZKUTNZA ETA IKERKETA (IKASTETXEA, UNIBERTSITATEAK ETA ABAR).	A
9.4 OSASUNA ETA ALBAITARITZA-ZERBITZUAK.	A
9.5 HERRITARRONTZAKO ZERBITZUAK (SINDIKATUAK, ERLIJO-ERAKUNDEAK ETA ABAR).	A
9.6 ZERBITZU PERTSONALAK (GARBITEGIAK, ARGAZKI-DENDAK ETA ABAR).	B
9.7 ZERBITZARIAK.	A
9.8 NAZIOARTEKO ERAKUNDEAK.	¿